

+



Ibane Abasolo
biokimikariari
elkarrizketa

Gizartea: erronka
konplexuen garaia
da



ALKATEEN MUGIMENDUAK EGINDAKO LANARI AITORTZA

Orain dela 45 urte, uztailaren 21 ean, Alkateen Mugimenduak deituta Bergaran egin zen bilkura gogora ekarri dute. Gaur egungo EAJko eta EH Bilduko 49 alkate batu dira Bergaran / 4

Eguazteneko ekitaldian, lehen lerroan, 1976an alkate zirenak: Patxi Basauri (Elgeta), Jabier Errasti (Eskoriatza) eta Jose Luis Elkoro (Bergara). XABIER URZELAI

"Telebistok arlo digitalean asmatzen ez badugu, etorkizun beltza dugu"

Unai Iparragirre ETBko zuzendariak, Arrasate Telebistan egindako hastapenak eta telebisten erronkak berbagai / 6



Herri guztiak daude gorri, 400etik gorako intzidentziarekin; azaroa ezker ez zen gertatzen / 2

Domekan 63 urte beteko dira Uribarri Ganboako urtegian sei eskoriatzar itota hil zirela / 21

UDALDIA
Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkakia:
'Puntua': uztailaren 30an.
GOIENA: irailaren 3an.

Ondo izan!

SINADURAK

 NEREA ZUBIA BLAZQUEZ / 8	 IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ / 30
 JOSU ZUGASTI / 11	 AMAIA EROSTARBE LETAMENDI / 34
 AINHOA PARDINA / 26	 AGURINE BARRUSO / 48

Arrasatekoak gara

Otalora Lizentziaduna, 18 | Tel: 943 79 29 95 | ARRASATE



Kontsultatu optikari konpainiaren eskuagorriak.

Ikusmen azterketa
doan
+
opariak eta deskontuak

www.multiopticas.com

MULTIOPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen


#PS.91720



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	92	38	1.534	133	1.133
Arrasate	85	57	3.266	147	643
Bergara	54	16	1.690	112	465
Eskoriatza	24	10	434	105	828
Aretxabaleta	22	9	831	117	437
Aramaio	10	14	201	135	1.621
Elgeta	6	4	73	64	884
Antzuola	2	13	269	123	688
Gatzaga	0	1	11	44	427
GUZTIRA	295	162	8.309	128	705

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Eskualdeko herri guztiak daude gorri, 400etik gorako intzidentziarekin

Azken egunetan 295 kutsatu baieztatu dituzte Debagoiengan, joan den astekoen ia bikoitza. Herrietako intzidentzia-tasek gora egin dute, eta eskualdeko mapa osoa gorri margotuta ageri zen atzo; azaroko azken asteburuaz geroztik ez da gertatu

Maialen Santos ARRASATE

Hirugarren astez jarraian positibo kasuek gora egin dute Debagoiengan, eta azken zazpi egunetan 295 pertsona harrapatu ditu COVID-19ak; joan den asteko ia bikoitza da hori -162 izan ziren-. Gauzak horrela, dagoeneko eskualdeko 8.309 lagun kutsatu ditu gaitzak iazko martxoan pandemia hasi zenetik, eta 172 hil, nahiz eta azken astean Debagoiengan ez den inor zendu.

Herriei erreparatuta, Oñatin hauteman dituzte kutsatu gehien joan den egunetik eguazten honetara arte (92) eta gertutik jarraitu dio Arrasatek ere (85). Bergaran ere nabarmen egin dute gora kasu positibo berriek (54), eta 24 izan dira Eskoriatzan, 22 Aretxabaletan, hamar Ara-

maion, sei Elgetan eta bi Antzuolan. Aipatzekoa da Leintz Gatzaga izan dela azken egunetan kutsaturik baieztatu ez duen eskualdeko herri bakarra.

Debagoieneko Ospitaletik adierazi dute atzo bi lagun zeudela koronabirusak jota ingresatuta.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA ASTEBETEAN BIKOIZTU EGIN DA TASA; ATZO 705EKOA ZEN ESKUALDEKOA

Kutsatzeek gora egin duten era berean egin du gora azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak ere, eta atzo 705ekoa zen Debagoiengan -duela astebete 342koa zen-.

Herrietako intzidentzia-tasek gora egin dute, beraz, azken egunetan, eta azpimarratzekoa da atzo osorik gorri margotuta ageri zela Debagoieneko mapa; izan ere, herri guztietako tasa zen 400etik gorakoa. Herri guztiek kopuru horretatik gorako intzidentzia izan zuten azkenengo aldia 2020ko azaroaren azken asteburuan izan zen. Bestetik, esan behar da 1.000tik gorakoa zela atzo Aramaioko (1.621) eta Oñatiko (1.133) intzidentzia.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan gora egin jarraitu du intzidentziak azken egunetan, eta, eskualdekoaren antzera, zertxobait gainera dago Gipuzkoakoa ere: atzo, 736koa zen. Bizkaiko eta Arabako intzidentziak horren azpitik daude; 648koa

eta 533koa zen atzo, hurrenez hurren. Tasa altuena Nafarroak du, edozelan ere -atzo, 920koa-.

ERREKORRA KUTSATZEETAN INOIZKO KUTSATU KOPURU ALTUENA ERREGISTRATU DA EGUN BATEAN EAE-N

Euskal Autonomia Erkidegoak pandemiako daturik altuena erregistratu zuen eguaztengan -1.583 kasu baieztatu ziren-; atzokoek erakusten dutenez, baina, gaudituz egin zuten ezarritako zegoen langa: guztira, 1.801 positibo atzeman baitzituzten -aurreko egunetan baino 218 gehiago-. Gauzak horrela, azken bi egunetan hautsi egin dira orain arteko markak.

Zenbatekoak lurraldeka aztertuz gero, azpimarratzekoa da Bizkaia: 1.078 positibo atzeman ziren atzo bertan. Gipuzkoakoak, berriz, 482 izan ziren eta Arabakoak, 204.

TXERTAKETA-KANPAINA EGUAZTENA EZKERO, HITZORDUA ESKA DEZAKETE 12 ETA 15 URTE ARTEKOEK

Aste honetako gobernu bileraren osteko prentsurrekoan iragarri zuten Gotzone Sagardui Osasun


sailburuak txertaketa kanpainan urrats bat gehiago egingo zutela, eta, hala, eguaztendetik aurrera 12 eta 15 urte arteko gazteek txertoa hartzeko hitzordua eska dezakete Osakidetzaren webgunean edo norberaren osasun zentrori -edo 900 20 30 50 telefonora- deituta. Adin-tarte hori ikasturtea abiatu orduko txertatzen hasia positibotzat jo zuten sailburuak.

Horretaz gain, gogoratu behar da martitzen honetan hasi dutela ofizialki 16 eta 29 urte bitarteko herritarren txertaketa; nahiz eta joan den astetik ari diren gazte batzuei txertoa ematen, agendak betetzeko helburuarekin. Horren harira, Osasun sailburuak ohartarazi du datozten asteetan aurrekoetan baino txerto gutxiago iristea espero duela Osasun Sailak, eta, horri jarraiki, gazte gehienek ez dutela bigarren dosia irailaren aurretik jasoko.

Bestetik, gehitu du hitzordua hartuta duenak baina txertatzen joan ezin denak bere txanda baliogabetu behar duela, Internet bidez edo telefonoz deituta. Izan ere, azken egunetako kutsatzeen eraginez, hainbat lagunek ezingo dute tokatzen zitzaizkien txertoa hartu, eta dosi horiek beste herritar batzuei esleitu gura dizkie Osasun Sailak.

Osasun Sailak aditzera eman dako datuen arabera, 16 urteko


Gazteenak ere, txertoa hartzeko "gogoz"



IÑIGO BARINAGARREMENTERIA
OÑATI, 24 URTE

"Koronabirusa pasa gabe iritsi naiz txertaketara"


"Gazteen txertaketa ofizialki hasi aurretik, joan den egubakoitzean, hartu nuen txertoaren lehen dosia, eta bigarrenak ere etxean harrapatuko nau –ez ordea, oporretan–. Txertoa hartzeko gogo handia nuen; izan ere, kutsatzeak saihesteko gure esku dagoen bakarra da, eta pandemiari aurre egiteko aurrerapauso handia dela uste dut. Koronabirusa pasa gabe iritsi naiz txertaketara, eta horrek izugarri poztan nau".



ALBA ROIG
BERGARA, 22 URTE

"Lasaiago arituko naiz harremantzeko orduan"

"Eguazten honetan hartu dut txertoa. Koronabirusa izan nuenez, ez dut bigarren dosirik hartu beharrik izango; beraz, horrekin amaitu dut txertaketa zikloa. Hitzordua hartzeko mezua iritsi zitzaidan sakelakora, eta iritsi bezain pronto hartu nuen txanda. Txertoa hartzeko gogotsu nengoen, eta uste dut aurrerantzean lasaiago arituko naizela; batik bat, jendearekin harremantzeko orduan, eta baita senideekin ere".



URTZI SARASUA
ELGETA, 12 URTE

"Lagunekin lehen moduan elkartu nahi dut"

"Gurasoek hartu didate hitzordua; abuztuaren 11n hartuko dut lehen dosia eta irailaren 1ean bigarrena. Kanpora joatekoak gara, eta joango gara, baina sasoi horretan gerturatu egingo gara txertoa hartzeko nik eta nire anaiak. Nik nahi dudana da lagunekin lehen moduan elkartzea eta maskara jarri beharrik ez izatea. Txertoarekin lasaiago ibiliko naiz; asma pixka bat daukat, eta zaintzeko esan zidan medikuak".

herritarren erdia baino gehiago, 1.169.917, dira dagoeneko txertaketa zikloa bukatu dutenak (%61,8) eta EAEko biztanleen hiru laurdenak, 1.425.373 lagunek, jaso du lehenengo dosia dagoeneko (%75,4). Gauzak horrela, iritsi diren 2.643.900 dosietatik, 2.457.792 jarri dira Erkidegoan; %93, hain zuzen.

Txertoen konpainiei erreparatura, Pfizerren 1.739.685 txerto jarri dira, AstraZenecaren

395.309, Modernaren 235.663 eta Janssenen 87.135.

MASKARAREN ERABILERA

MASKARAK HAUTAZKOA IZATEN JARRAITUKO DU AIRE ZABALEAN

Berriz ere eztabaidagai izan da maskaren auzia Espainiako Kongresuan. Besteak beste, Ur-

kullu lehendakariak Pedro Sanchezi aste honetan egindako eskaera izan da ekainaren 24ko Errege Dekretua aldatzea, maskararen erabilera berriz ere nahitaezkoa izan dadin. Izan ere, lehendakariak uste du maskara gabeko hartu-emanen gorakada dela "kutsatzei mesede" egiten dien aldagai nagusia. Dekretuak, baina, 180 botoren babesa jaso zuen Madrilgo Kongresuan; tartean, EH Bilduko diputatuena. Eta EAJk, berriz, abstentziora jo zuen. Hala, ez da aldaketarik izango eta maskara ez da nahitaezkoa izango, baldin eta aire zabalean egonez gero eta 1,5 metroko segurtasun tartea bermatu ahal bada.

Egoera epidemiologikoak okerrera egin duela-eta osasun neurriak zorroztea aztertu zuten atzo, eguna. Goizean batu zen Batzorde Teknikoa, eta arratsaldean, ostera, lehendakaria buru duen Labi instituzionala. Edozelan ere, GOIENA aldizkari honen itxiera orduan oraindik ez zegoen bileraren ondotik hartutako erabakien berri.



Donostiako Kursoalean egindako kongresua, eguazten goizean. KURSAAL DONOSTIA

Mondragonek aurreikusten du "susperraldi nabarmena" izatea

Donostian egin dute, asteon, korporazioaren kongresua, eta lazko ekitaldiaren balantze positiboa egin dute

M.S. ARRASATE

Mondragon korporazioaren 2021eko kongresua egin zuten eguaztenean, Donostiako Kursoalean, eta taldea osatzen duten kooperatibetako 650 konpromisario izan ziren bertan.

Positibotzat jo zituen 2020ko emaitzak, pandemiaren urtekoak, hain zuzen ere. Kongresuan azaldu zuten, korporazioan dauden kooperatibek, denentz artean, 10.865 milioi euro lortu zituzten salmentetan; hau da, uzkurdu %6,4 izan zen aurreko urtekoaren aldean. Korporazioko lehendakariak, Iñigo Ucinnek, nabarmendu zuen taldearen bilakaera positiboa izan dela, "kontuan hartuta testuingurua zaila izan dela, pandemiak erabat baldintzatutakoa".

335 milioiko inbertsioa

Enpleguari dagokionez, 2020. urtea ixtean 82.156 lanpostu zedula ere gaineratu zuten; aurreko ekitaldian baino %1,3 gutxiago. Nabarmendu zuten beste datu bat inbertsioen zifra izan zen; izan ere, iaz 335 milioi eurokoa izan zen, denera. Bestalde, EBITDAk %5,7ko gorakada izan zuen, eta 1.324 milioi eurora iritsi zela esan zuten korporazioko kideek. "Kopuru horiek berresten dute kooperatiba gehienak gai izan direla COVID-19aren krisiari notarekin eta gaitzetzeko moduko inpaktuarekin aurre egiteko, inguruabarrak kontuan hartuta eta egoera txarrak gaitzetzeko gaitasuna dutela frogatuta", zioten.

Enpleguaren susperraldia

Industria arloari dagokionez, 37.532 langile enplegatu zituzten, eta 5.271 milioiko fakturazio gehituarekin (-%3,1) eta 227 milioiko emaitzekin (-%20) bukatu zuten urtea. Gaineratu zuten, arlo horrek bilakaera positiboa izan du aurtengo lehen bost hilabeteetan: "Salmenten gorakada handia izan da, eta COVID-19aren aurreko etapatik oso gertu daude emaitzak. Enpleguaren susperraldia ere nabarmena izan da; batez ere, Automobilgintza, Osagaiak, Eraikuntza eta Ekipamendua dibisioen bilakaerak bultzatuta".

Banaketaren arloan, 5.594 milioiko salmentak izan zituzten –aurreko ekitaldian baino %0,9 gehiago–, eta ekitaldia ixtean 40.948 langile zeuden –%0,6ko igoera–. Azkenik, finantzei dagokionez, pandemiaren ondorio negatiboak aurreratzeko 65,7 milioi euroko COVID-19 aparteko hornidura egin ondoren, 87,4 milioi euroko irabazi garbi kontsolidatuarekin itxi zuen 2020a.

"Taldea 2021eko lehen bost hilabeteetan izandako portaera ikusita, aurreratu liteke ekitaldi honetan susperraldi nabarmena izango dugula", aitortu zuten eguazteneko bilkuran.

2020AREN AMAIERAN 82.156 LANPOSTU ZEUDEN ETA 10.865 MILIOI EURORA IRITSI ZIREN SALMENTAK

Test azkarrak eskuragarri daude

Eguena ezker eskuragarri daude autodiagnostikorako testak, medikuaren errezeta beharrik gabe. Ustezko infekzioaren ondorengo zazpi egunetan erabiltzeko pentsatuta daude. Eta sintomak edukiz gero, horiek agertu eta bost egunera.

Sudur-barrunbearen azaleko lagin bat hartu behar da gehienetan, eta listua erabiltzen duten bertsioak ere badaude. Emaitzak ezagutzeko hamabost minutu behar dira. Positiboa bada, bi lerro –'test (T)' eta 'kontrol (C)' marka batzuetan– markatuta egongo dira, eta negatiboa bada bakarra –'kontrol'– agertuko da markatuta. Positibo emanez gero, berehala isolatu eta harremanetan jarri behar da Osakidetzarekin. Eta negatibo eman baina sintomak izanez gero, kontuan hartu behar du proba ez dela erabat ziurra.



Euskal Herriatik etorritako alkateak, manifestu bateratua entzuten Bergarako plazan. XABIER URZELAI



Gonbidatuen familia argazkia: gehienak, plazan; gainontzekoak, balkoian. X.U.

Burujabetza gosez "bide emankorra" hasi zuten alkateei aitortza

Bergara askatasun gosez zeuden euskaldunen biltoki izan zen 1976ko uztailaren 21ean. 45 urte geroago, orduko alkateen kemena aitortzeko ekitaldia egin dute; garaiko protagonistekin eta egungo EAJko eta EH Bilduko 49 alkateren babesarekin.

Xabi Gorostidi BERGARA

Frankismoa bizi izan ez duten belaunaldientzat zaila da gaur egun normalak diren gauza askoren atzean dagoen meritua ulertzea. Ikastolak existitzea edo ikurrina ikur legala izatea, adibidez, betidanik normala izan diren gauzak bezala bizi dituzte gazte askok; baina ez dira ohiko

gauzak, orain dela 45 urte aldarrikatu eta irabazitako lorpenak baizik. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat alkatek lau urtez egindako presioaren eta lanaren fruitua dira lorpen horiek, Alkateen Mugimendua deitura jaso zuena.

1975ean hil zen Francisco Franco diktadorea, eta lau urte

geroago, 1979an, lehen udal hauteskundeak egin ziren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrietan. Bi mugari haien artean, lau urteko epe hartan, alkate haiek euren gain hartu zituzten euskal gizarteak eskatzen zituen premia nagusiak, eta horietako asko gauzatzea lortu zuten: euskararen koofi-

ziantasuna, ikastolak legeztatzea, 1977ko amnistia eta Nafarroaren izaera euskalduna defendatzea izan ziren garaiko 70 alkatek osatutako mugimenduaren lorpen nagusietakoak. Mobilizazio jendetsuak ere egin zituzten, eta azpimarragarrienen artean dago 1976ko uztailaren 21ean Bergaran egin zutena. Herriko Plaza askatasun eta demokrazia gosez zeuden euskaldunen biltoki izan zen, Foruak galdu zirela 100 urte bete ziren egunean. Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako 70 alkate batu ziren udaletxean, eta kaleak jendez bete ziren.

Hala, egun historiko haren 45. urteurrena baliatuz, aitortza ekitaldi bateratua antolatzea erabaki zutela azaldu du Bergarako alkate Gorka Artolak: "1976ko uztailaren 21a Bergarako eta Euskal Herriko oroimen kolektiboan nahiko txertatuta dagoen egun bat da. Baina ni bezalako gazteengan, agian, ez

hainbeste; entzun izan ditugu egun hari buruzkoak, horri buruz irakurri izan dugu... baina beharrezkotzat ikusi genuen hori guztiori gogoratzea eta orduan egindako lana aitortzea. Garaiko protagonistak omendu nahi genituen, eta duela 45 urte Bergaran bizi izan zena gogoratu, eta horretarako antolatuta ditugu ekitaldia eta baita osoko bilkura gelako erakusketa".

Manifestu bateratua


Pandemiaren eraginez ezinezkoa zen duela 45 urteko jendetza ekitaldira batzea, baina, hala ere, Euskal Herri osotik etorritako alkateen ordezkaritza zabala batu zen asteazken eguerdian Bergarako San Martin plazan: gaur egungo 49 alkate abertzale eta garaiko zazpi alkate ohi, besteak beste.

Ekitaldiaren hasieran, honako hauek hartu zuten hitza, EAJren eta EH Bilduren artean adostutako manifestua irakurtzeko:



GORKA ARTOLA
BERGARAKO ALKATEA

"Gaur egun, 1976an bezala, lan esparru zabala dugu udaletan, eta hori aldarrikatu nahi izan dugu ekitaldi honekin. Pandemiak argi eta garbi erakutsi du udaletan badagoela herritarren beharrei erantzuteko gaitasuna, eta uste dut Euskal Herria eraikitze aldera ere udaletatik asko egin dezakegula".



MARIA UBARETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Polita izan da gaur Bergaran bizi izan duguna. Erakusketa ikustera joan garenok hunkitu egin gara duela 45 urte plaza honetan gertatutako iruditari ikustean: plaza jendez beteta, gaur egun ditugun aldarrikapen askorekin, denak elkarrekin... Hori da gaurko mezua: elkarrekin egin behar dugu aldarrikapena".



JOSE ANTONIO ALTUNA
ARRASATEKO ALKATE OHIA

"Erakusketako ikus-entzunezko dokumentua ikusterakoan, lanak izan ditut malkoei eusteko. Politikoki denetarik bizitzea tokatu zait, baina 1976an Bergaran bizitakoa modukorik ez dut bizi izan. Eta gaur egunera etorrita, abertzaleok batu egin behar dugu; batuz gero gu baikara herri honen gehiengoa".



PATXI BASAURI
ELGETAKO ALKATE OHIA

"Duela 45 urte, giltzapetuta egotetik genduzen, kaiola batetik irteten ari ginen. Baina azpimarratu nahiko nuke une haietan abertzaleen artean zegoen batasuna; gaur egun nekezagoa dena. Gure aldarrikapen batzuk bete ziren, eta ea gai garen bete gabe daudenak laster betetzeko".



JOSE LUIS ELKORO
BERGARAKO ALKATE OHIA

"1976an ez zegoen alderdirik; bai, ordea, askatasun gose zen herri bateratu bat. Herriak erantzun egin zuen eta eredu bat utzi zuen geroko: elkartuta jardun behar dugula. Ostean, alderdi bakoitzak berea egin du eta sakabanatuta gaude. Balio dezala gaurkoak aurrerantzean elkarrekin urratsak egiteko; hori nahi nuke".



Egungo bailarako alkateek 1976ko mugimenduko kideei loreak eman zizkieten. XABIER URZELAI



Eneko Goia eta Jose Maria eta Beñardo Kortabarría aita-semeak, erakusketan. X.U.

Jose Luis Elkorok –1976ko Bergarako alkatea–, Patxi Basaurik –1976ko Elgetako alkatea–, Maria Ubarretxenak –Arrasateko alkatea– eta Gorka Artolak –Bergarako alkatea–. "1976an Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaizela samurra gertatu herriaren nahia ulertu eta argitara ematean euren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; hala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungiezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez baitzegoen foraltasun zaharrean, eskubide historiko haiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia", adierazi zuten hitzartze hasieran.

COVID-19ak utzitako testuingurua ikusita, hausnarketa hau ere egin zuten: "Gure herria eta

bere jendea aurrera ateratzeko ordua da, garapen ekonomikoa, gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta. Mundu osorako aldarrikatu nahi dugu, bere eskubideen jabe den herria dela gurea. Ozen adierazten dugu herri irekia eta aurreratu gara eta egungo munduak ekarri dizkigun mehatxuei aurre egiteko prest gaudela. Entzun nahi digun orori azaltzen dioguzer-nolako gaitasuna duen Euskal Herriak aurrez aurre jartzen zaizkion erronka zailenak gailentzeko. Eta, aldarririk hutsetatik haratago, herri modura antolatzeko gure asmoa berresten dugu, gutako bakoitzaren gaitasun individuala gaitasun kolektibo-

EAJ-KO ETA EH BILDUKO 49 ALKATE BATU ZIREN ALKATEEN MUGIMENDUKO KIDEAK OMENTZEKO

ra batuz, herritar guztiei bi-zi-proiektu duin eta kalitatezkoa bermatzeko beharrezkoak diren tresnak eskuratuz".

Orduko eta gaurko aldarriak

Manifestuaren amaieran orduko alkateak izendatu zituzten, eta baita azken hausnarketa hau egin ere: "Jose Luis Elkorok, Imanol Murua, Jose Antonio Altuna, Iñaki Aristizabal, Prudentzio Larrañaga, Jose Mari Kortabarría, Juan Inazio Uria, Jabier Errasti, Luis Arkauz, Pablo Gorostiaga, Patxi Basauri, Inazio Iruin eta beste hainbat izan ziren udalei eta euskal herritarrei dei egiteko erantzukizuna hartu zutenak, oroitzapen-egun bat ospatzetik ekiteko konpromisora igarotzeko eta mezu bat lau haizeetara zabalitzeko: Euskal Herria bazela, izateko eskubidea zuela eta gainerako herriekin harremanean etorkizuneko bere helmuga non egongo den erabakitze-

ko eskubidea zeukala. Adierazpen hura indarrean dago eta gaur, 45 urteren buruan, guri dagokigu aurrera jotzea gure herriaren askatasunerantz".

Aitortza, ikurrinarekin

Manifestuaren ostean, ekitaldiaren unerik hunkigarriena heldu zen. Lehenik eta behin, duela 45 urte Alkateen Mugimenduko kide izan ziren sei protagonistak igo ziren oholtzara: Jose Luis Elkorok, Patxi Basauri, Jabier Errasti –Eskoriatzako alkate ohia–, Jose Maria Kortabarría –Antzuolako zinegotzi ohia, eta Beñardo Kortabarría alkatearen aita–, Luis Arkauz –Oñatiko zinegotzi ohia– eta Jose Antonio

Altuna *Txatillo* –Arrasateko alkate ohia–.

Jarraian, Bergarako plazan dagoen ikurrinaren altxatzea egin zuten, dantzarien eta txistularien laguntzarekin. Behin ikurrina igota, txalo zaparrada ozen eta luzea entzun zen Bergarako plazan. Oholtza gainean zeuden protagonistek abiarazitako mugimenduak lortu zuen ikur hori legezkoa izatea, eta bertaratutako askok aitortu zuten "oso une hunkigarria" izan zela. Ostean, gaur egungo bailarako alkateek lore sorta eman zieten protagonistei, eta osoko bilkura gelako erakusketa ikustera joan ziren jarraian. Amaitzeko, familia argazkia jendetsua atera zuten; alkate gehienak plazan eta beste batzuk udal-etxe bakoian, 1976an bezala.

Azpimarratu behar da mezu honekin amaitu zuela Jose Luis Elkorok: "Ea kapaz garen, 1976an egin bezala, hemen gaudenok elkarrekin urratsak egiteko".

IKURRINA ALTXATUZ AITORTZA EGIN ZIETEN HURA LEGEZTATZEA LORTU ZUTEN PROTAGONISTEI



JABIER ERRASTI
ESKORIATZAKO ALKATE OHIA

"Duela 45 urteko garaia une zailak izan ziren, baina oso oroitzapen onak uzten dizkirate: ilusioa eta gauzak aldatzeko gogo gainezka genituen. Atzera begiratzeak sumindu egiten nau, ikusten dudalako gure amets asko ez direla oraindik bete; hein batean, gure errua izan da ez betetze hori".



ENEKO GOIA
DONOSTIAKO ALKATEA

"Gogora ekarri dugu hainbat lagunek baldintza oso zailetan egindako ekarpena, eta oso hunkigarria izan da. Nire ustez, balio izan du ez ahazteko udalerriek nazio eraikuntzan izan dezakegun garrantzia; udalok izan gara nazio izaera eta horren aldeko aldarrikapena bizirik mantendu dutenak".



INMA GARRASTATXU
DURANGOKO ALKATEA

"Hunkigarria izan da bideoan ikustea duela 45 urte zenbat jende batu zen Bergaran, hainbat lekutatik etorrira. Baina bideo horretan emakume bakarra ikusi dut, eta asko poztzen nau gaur hemen batutako emakume kopuruak. Udaletatik lanean jarraitu behar dugu, orduko mugimendua bizirik mantentzen".



KOLDOBIKE OLAETXEA
LEGAZPIKO ALKATEA

"1976an ni jaioberria nintzen eta uztailaren 21ean gertatutakoari buruz dakidan guztia kontakizunei esker dakit. Orain hautetsia naiz eta ohorea da niretzat hemen egotea. Garai hartan elkartu egin ziren, gaur ere elkartzeko aukera izan dugu, eta etorkizunerako elkartasun hori behar-beharrezkoa dugu".



IÑIGO HERNANDO
GALDACAOKO ALKATEA

"Ohore handia izan da Galdakaoren izenean hona etortzea. Ekitaldian zehar argi geratu zait garai hartako alkateen ekimenaren uztza, oraindik, hemen dagoela. Alde horretatik, udalok naziogintzan eta nazio eraikuntzan dugun garrantzia oso handia da; hunkigarria izan da niretzako".



Unai Iparragirre, ETBko zuzendaria, Goiena telebistako platoon; bere telebista ibilbidea hasi zuen lekuan. XABIER URZELAI

"Informatzea, entretenitzea eta heztea lortu behar du ETBk"

UNAI IPARRAGIRRE ETB-KO ZUZENDARIA

Discovery Channel eta halako kateentzat urtez luzez lan egin ostean, apirilaz geroztik ETBko zuzendari dihardu lanean, "kanpoan ikasitakoa etxean aplikatuz"

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Arrasaten hasi, EITBtik pasa, eta Londresen aritu da azken urteetan Discovery Channel katean lanean. Otsailean ETBko zuzendari izateko proposamena jaso zuen, eta etxera itzuli da erronka berri horri heltzeko. Otsailean izendatu zintuzten ETBko zuzendari. Zer sentitu zenuen proposamena jasotzerakoan? Zalantzak izan zenituen?

Bai eta ez. Azkenaldian, indar-tzen joan zait etxera bueltatzeko gogo, hamasei urte egin baiti-

tut etxetik kanpo. Baina azken urtea oso gogorra izan da: *brexit*-a dela, COVID-19a dela... Alde horretatik, aukera ezin hobea da azken urteetan Europako telebistetan egin dudana nire etxeko telebistan egin ahal izan

"TELEBISTOK ARLO DIGITALEAN ASMATZEN EZ BADUGU, ETORKIZUN BELTZA IZANGO DUGU"

tea. Hori guztiori kontuan izanda ere, banituen kezka eta zalantzak. Baina, azkenean, baiezkoa eman nion Andoni Aldekoari, EITBko zuzendari orokorrari. Hark duen proiektuak eta ikuskerak konbentzitu egin ninduen.

ETBko zuzendari bezala, zein erronka nagusi duzu aurretik?

Erronka handia da, eta polita ere bai. Azken finean, Euskal Telebista da euskal gizartearen telebista publikoa, eta, zuzendari bezala, herritarrek ETB

eurengandik gertuago sentitzea lortu nahiko nuke. Discoveryk, adibidez, oso garbi du zein den bere misioa: sortzen dituen edukien bitartez gizartea hobetzea. Oso erromantikoa iruditu daiteke, baina lortu daiteke. Sortu daitezke edukiak gizartea hobetzeko, eta hori da ETBn egin nahi dudana. Informatzeaz gain, entretenitzeko eta hezteko gai den telebista bat. Programa bat ikusi eta kredituak azaltzen direnean, ikusleek esatea: ordu-betez edo bi orduz egon naiz ETB ikusten, baina gauza asko aportatu dizkit, eta gauza asko ikasi ditut.

Zeintzuk dira ETBren ahulguneak eta indarguneak?

Ikerketek baieztatzen dutenez, Euskal Telebista bada euskaldunek gertuko sentitzen duten komunikabide bat. ETBko albiste programa asko liderrak dira, kasu batzuetan %30eko *share*-arekin, eta miresgarria dela iruditzen zait. Puntu onean dagoela uste dut, baina Londresen izan nuen arduradun batek zioena oso barneratuta dut: "Hobetu daiteke?" galderari beti baietz erantzun behar zaio.

Zer hobetu daiteke, adibidez?

Duela hamasei urte hemen utzi nuen euskal gizarteak ez du zerikusirik gaur egun aurkitu dudarekin; askoz anitzagoa, modernoagoa. Horrez gain, plataforma digitalen eztagarekin jendeak lehen baino eduki gehiago ikusten du, eta geroz eta gehiago daki; hortaz, zorrotzatsuna eskatzen dute, eduki ona zer den ondo baitakite. Hori lortzeko, berritasuna ekarri behar dugu ETBra. Arlo digitalean asko dago egiteko, esaterako, eta, horrez gain, eskuzabalak izan behar dugu euskal munduarekin, kulturarekin, hasten dabiltzan artistekin...

Une honetan ETBk bost kate ditu: ETB1, ETB2, ETB3, ETB4 eta ETB Basque. Beharrezkoak dira bost?

Hain justu, hori da erantzuteko dugun galderetako bat. ETB1 eta ETB2 ezinbestekoak direla argi dut. ETB3k haurrentzako edukiak ditu, baina zalantza dut ea haurrak mundu linealean

"ARRASATE TELEBISTA GABE EZ NUKE GAUR ARTE EDUKI DUDAN LAN IBILBIDEA EDUKIKO"

dauden. Agian, eduki horiek guztiek euskarri digital batean egon behar lukete.

Ekainean ETB1k %2,3ko audientzia maila izan zuen eta ETB2k, %10,4koa. Zer diotsu?

Bada, 2009ko ekaina ezkeror lortutako emaitzarik onenak dira. Baina beti dago hazteko aukera. Niretzako audientziak garrantzitsuak dira, baina baita marka ere. Eta, alde horretatik, badugu zer hobetu: ETB2n, adibidez, berrikuntza falta dagoela uste dut aspektu horretan.

Bigarren kateak audientzia handiagoak ditu, faktore askogatik. Baliabide aldetik, berdin bideratzen da kate batera edo bestera?

Etxe barruan, eta bai etxetik kanpo, nahiko hedatuta zegoen ETB2ra diru gehiago bideratzen zen ideia. Hori argitzeko, Andoni Aldekoak horri buruzko datuak eskatu zizkion finantza departamentuari, eta datuek argi diote bien arteko banaketa oso parekoa dela: ia %50 eta %50. Argi dago ETB1ek ez duela inoiz ETB2ren audientzia maila izango; azken finean, hizkuntza gutxitu batean egiten delako. Aipatu dituzun audientzia datuak 4 urtetik gorako lagunenak dira, eta horietako askok ez dakite euskaraz. Baina ikerketa batzuek argitu digute badagoela jendea euskaraz dakiena baina uste duena ez duela euskara maila nahikorik euskarazko edukiak kontsumitzeko; horrek kezkatzen nau.

ETBk euskarazko bestelako telebistekin elkarlana handitzeko aukerarik ikusten duzu?

Adibidez, Erresuma Batuan BBC etxeak oso ondo egiten du hori. Badaukate programa bat bertako tokiko komunikabideekin elkarlanean, eta oso ondo funtzionatzen du. BBCekin elkarlana bat egin berri dugu, ikusteko ea hemen antzerako zerbait egin daitekeen.

Udazkenerako berrikuntzak datozela diozu. Ezer aurreraterik?

Ezin dezaket pista handirik eman, baina oso pozik nago daukagunarekin. Editorialki oso udazken indartsuarekin datoz ETB1 eta ETB2, eta sorpresa eta aurpegi berri ugari izango dira.

Arrasate Telebistan hasi zinen. Zein oroitzapen dituzu?

Sekulakoak. Hemen ikasi dut telebista zer den; oso eskertuta nago, Arrasate Telebista gabe ez nuke gaur arte eduki dudana ibilbidea izango.

Salaketa-gutuna

Eskertza-gutuna

Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna

Aldarrikapen-gutuna

Kexa-gutuna

Arrasate Blues: eskerrik asko!

AMAIA CECIAGA

ARRASATEKO UDALEKO MERKATARITZA ZINEGOTZIA
ARRASATE

Hirugarrenez Arrasate Blues jaialdiaz gozatzeko aukera izan dugu gurean. Aurten emakumea izan da protagonista; artista bikainak ikusi eta entzuteaz gain, kalitatezko sormena dastatu ahal izan dugu. Eta guztia, Ibai Arte Merkatari Elkarteak bultzatu eta antolatua. Tokiko merkataritzaren balioa azpimarratuz, Arrasaterekin duten konpromisoa erakutsiz. Eskerrik asko, Ibai Arte.

Are garrantzitsuagoa izan da aurten, COVID-19ak eragindako pandemiaren aurrean, kulturaren aldeko apustua berretsiz. Euskal Herria plaza, Jokin Zaitegi, Arotz plaza, Arbolapeta, Portaloia... Herriko txokoak hartu ditu bluesak, eta saretu gaitu arrasatearrok.

Eta aitortzarentzat ere egon da unea. Goikobalu abesbatzaren eta Arrasate Musikalen laguntzarekin Jesusi Etxeberriak jaso zuen merezitako omenaldia, musika hauspotu eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeagatik. Gure kulturak eta, bereziki, bertan murgilduta dauden herritarrek egiten dute Arrasate herri bizi.

Laguntzen eta babesten jarraituko dugun ekimena, ezbaierik gabe. Mila esker Ibai Arteko kideei, ostalariei, artistei... eta, bereziki,

arrasatear guztiei, erakutsi duten harreragatik. Arrasate Bluesen taupadak inoiz baino indartsuago jo du asteburu honetan, eta jarraituko du egiten.

Zaindu ibaia

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Aurten hamar urte beteko dira Bergaran lehenengo ahateak eta ondoren arrainak hilik azaldu zirela; errudunik ez dute aurkitu, baina agerian geratu zen administrazioen arteko ganora faltak eragin zuela hondamendi hura. Harrezkero ere gertatu dira nahita eragindako arrain hilketak; 2013an eta 2018an, baten batek zianuroa isuri zuen eta Osintxu eta Soraluz artean hilik azaldu ziren arrainak. Animatu nahi zaituztet ibaia zaintzera, eta, zerbait arraroa sumatuz gero, 112ra deitu. Adibide bezala, 2014ko maiatzaren 15ean Oñatin gertatutakoa kontatuko dizuet: giza akats bategatik, depositura bideratu beharrean ibaira isurtzen hasi ziren. Eskerrak ibai inguruan zebilen batek azkar ohartarazi zuela arazoaz, eta arrain hilketak saihestu ziren.

Ematen du birusaren kontuarekin krisi ekonomikoa hasi zela, baina ibaiek hobera egin dute; hala ere, Azpeitian, Errezil errekatxoan, arrain hilketak gertatu ziren, lantegi baten sutearen ondorioz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

NEREA ZUBIA BLAZQUEZ

Izena eta izana

13/13 epaiketa, COVID-19 kasuen gorakada, Kubako blokeoaren ondorioak, Tubacex eta Euskaltzaindiak *txantxiku* balekotzat ematea... Betea dator oporraldi ataria, eta nire Whatsappen zeresan gehien sortu duena Euskaltzaindiaren eskuzabaltasun ariketa izan da. Ni soziologoa ez banaiz ere, neurri batean, pertsonen eguneroko interesak eta gizarte joerak mugikorretako elkarrizketa eta Interneten sareetatik jaso daitezkeela esatera ausartzen naiz. Tabernetako solasaldietan baino ausartago eta *askeago* aritzen garen irudipena dut. Beraz, nire ondorioa izan da txantxikuak baduela tiradizorik oraindik ere, edo, gutxienez, oñatiarrok herri-identitatearen errekonozimenduak pozten gaituela. Bueno, eta *debagoiendar*-ok ere ba omen gara nor.

Ba, aitortuko dizuet, oñatiarren anfibio kuttunaren onarpenarena nahiko anekdotikoa iruditzen zait niri. Txantxikuaren ofizialtasunari baino balio handiagoa

ematen diot *queer*, *heteropatriarkatu*, *islamofobia*, *sexualki*, *berdinzale*, *asanblada*... hitzek arautegi ofizialean beraien lekua izateari. Honek Euskaltzaindiari atxiki izan zaion kutsu kontserbadoretik

DUELA BI URTE ONARTU ZITUZTEN IZEN 'MISTO' BATZUK, GEHIENAK TOPONIMIARI LOTUAK

aldentzen ari den zantzuak ematen dizkigu? Agian, bai, baina hor ditugu oraindik, 2021ean, pertsona izenak genero-markari lotuak, esaterako.

Lehenengo, Eliza; ondoren, frankismo garaian euskarazko eta Errepublikari lotutako izenen debekua; eta 2001etik aurrera, Euskaltzaindiaren sexuaren arabera izenen banaketa euskal izendegian. Duela bi urte onartu zituzten izen *misto* batzuk, gehienak toponimiari lotuak. Baina oraindik ere Iratizek mutila behar du izan eta Izadik, neska. Idurre Eskisabelen hitzak gogora ekarrira, "egunerokotasunean, emakumeak eta gizonak sortzen dituzte izendegiek", eta hortxe jarraitzen dugu, binarismoaren sinpletasunean kateatuta, guraso-gaiei "neska ala mutila?" galdetzen.

Izenak izana dakar eta izenik ezak, aldarria.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Uda minaren aurkako ezpalak

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ez dut ezer egiteko gogorik. Urte eta erdi oso gogorra daramagu eta hau bukatzea eta atsedean hartzea geroz eta beharrezkoagoa egiten ari da. Pandemia hasi zenetik gauzak asko zaildu zaizkigu. Termino berri bat ere sortu da, neke pandemikoa. Batzuek beldurrari 18 hilabetez ezin eutsi diotelako eta beste batzuk asper-asper eginda gaudelako, baina esanen nuke, jadanik, guztiok nabaritzen hasiak garaela..

Oporraldi beharra ugaritu da. Ezin dugu gehiago,

gogaituak gaude, akituak. Eta honen ildora, behar berri bat sortu da: gauza berri gehiago ez gertatzearen beharra, gertatu denaren liseriketa egin ahal izateko. Nola? Produktibitatearen erritmoa eten eta izarrei begira geratu. Holandarrek izena jarri omen diote, *niksen*, eta, nola ez, joera kontsumigarri bat asmatu dute.

Aitari azaltzen saiatu naiz gaur. Denbora galtzea onuragarria izan daitezkeela esan diot, beharrezkoa, eta ezin gara 24 orduz lanean ibili. Eguzkiak gogor jotzen zuen eta etxabea sartu ginen. Hitz egiten nuen bitartean, aizkora txiki bat eskuan hartuta, mugimendu

mekaniko eta errepikakorrek, ezpalak egiten zituen mintzatzen ginen bitartean: *fxiu, fxiiu, fxiii, fxiiii*... Mantra bat bezala. Bata bestearen atzetik, hamaika orduz ariketa bera egiten duenaren trebeziak eta segurtasunaz.

Uda min egunetan ezpala txikiak moztu, eguzkia joan denean artoa zuritu, lekak kordatu, potxak zuritu edo Erronkariko egudiartxoetako jarduerak... Agian, hau izan da euskaldunok gure bizitzarekin birkonektatzeko garatu dugun bide zuzena, kontsumo-gai bihurtu ez badugu ere, hortxe dugu Eusko Labela duen ezer ez egiteko metodoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Txakur orekatu batek ez dio pertsona bati eraso egiten"

MALEN GURRUTXAGA TXAKUR HEZITZAILEA ETA ALBAITARIA

Eneko Azurmendi BERGARA

Azken urteetan albitari lanetan ari den arren, txakur hezitzaile titulua du bergararrak eta ANPECEC elkarteko kide ere bada.

Eskoriatzako postariaren kasua ezagun egin da. Zer uste duzu?

Irakurri dut elkarrizketa eta oso gogorra iruditzen zait. Noizean behin gertatzen dira halakoak, batez ere baserrietako txakurrak, normalean katearekin lotuta egoten direnak, katerik gabe daudenean.

Zergatik izan daiteke eraso?

Halako jarrerak, normalean, estresaren ondorio izaten dira. Baina gauza asko eduki behar dira kontuan. Txakur horren bizimodua nolakoa den, txikitatik nola bizi izan den eta ze arazo dituen. Izan ere, horrelako gauza bat egiten duen txakur batek arazo bat edo gehiago ditu. Txakur orekatu batek ez dio pertsona bati eraso egiten. Jarrera arazoak hasi daitezke bere ama haurdun geratzen



Malen Gurrutxaga. ANE AZKARATE

den unean. Ama oso urduria bada edo estresatuta badago, txakurra segurtasun-gabezia batekin jaio daiteke, edo estres maila altuarekin. Gero, bizitzako hasierako urteetan ez baditu bere beharrak

asetzen, arazoak etor daitezke. Gestionatzen jakin behar da hori, informatu eta ondo hezi. **Txakur bat ondo hezteko gakoa zein da?** Hezkuntza tradizionalak egin izan duena da adabaki bat

jarri gustatzen ez zaigun jokaerei. Baina ez du kontuan hartzen txakurrak zergatik daukan jarrera hori, eta zergati hori ez baduzu ondo lantzen, zu ez zaudenean jarrera larria eduki dezake. Beraz, txakurraren inguruko eta hezkuntzari buruzko informazioa oso garrantzitsuak dira, eta pazientzia eta errespetua, ezinbestekoak.

Katea bai edo ez?

Kateak segurtasun-gabezia handia sortzen du, txakurra ezin baita defendatu, lotuta dagoelako. Nire ustez, kateak debekatuta egon beharko lirarteke. Txakurra aske egon beharko litzateke baserrian eta arazoren bat baldin badauka, leku batean hesituta, baina katerik ez.

Eskoriatzakoaren moduko kasu baten ostean, zer egin beharko litzateke txakurrekin?

Hor burokrazia sartzen da. Baina halakoetan, normalean, zauritutako pertsona ospitalera joaten da eta ospitaleak parte bat ematen du. Parte bat ematen den momentutik salaketa bat dago eta, gutxienez, koarentenara bidaltzen da txakurra; hau da, albitaritzaren kontrolak egin behar zaizkio, bereziki, amorrua ez daukala ziurtatzeko, eta ondoren,

txosten bat egin. Eraso oso bortitza baldin bada, kasu honetan moduan, zuzenean Diputaziora bideratzen dute eta hango albitari batek baloratzen du txakurra. Eraso gogorra denean, arriskutsua izan daitekeen txakurtzat har dezakete. Hala bada, bi urtez heziketa klaseak jasotzen ditu, une oro lotuta eta mozalarekin. Ondoren, berriz baloratzen dute arazoa gainditu duen ala ez. Muturreko kasuetan, txakurra hil dezakete.

Txakur ezezagun bat solte badago, nola jokatu behar dugu?

Mugimendu askorik eta zaratarik ez egitea funtsezkoa da. Ez egin korrika, txakur asko mugimenduari aktibatzen dira eta. Bestalde, inportantea da ez ukitzea, dugun ohitura txar bat baita hori. Seguruena, zein zaren aztertzea etorriko zaizu, baina txakur askori ez zaie gustatzen ezezagun batek haiek ukitzea.

ANPECEC elkarte zer da?

Txakurren hezitzaileen elkarte da, baina errespetuarekin heztea helburu duena, orain arte egin ez den modura. Nik bere garaian hezitzaile titulua atera nuen, baina irakatsi zidatenaren ia ezerekin ez nator bat.

ITURRI ONETIK

Yllana taldearen 'Maestrissimo' Arrasaten

Kulturaren alorrean mamitsua izan ohi da iraila Arrasaten. Ohiko zinema, musika edo bestelako ikuskizunet gain, orduan izaten da Kulturate Akustikoa. Hala, Arrasateko Udala dagoeneko lanean ari da iraileko eta udazkeneko kultura eskaintza prestatzen, eta nabarmentzekoa da Yllana antzerki taldearen – aurtun 30 urte bete ditu– *Maestrissimo* obra Amaia antzokian izango dela irailaren 25ean. Goi mailako artistak udazkenari ondoetorria egiteko.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-07-25

Olandixoko tunela zabalik, bi urteko lanen ostean

Arrasateko mendebaldeko saihesbidea –bi kilometro luze– Olandixoko tunelarekin –800 metro– inauguratu eta ireki zuten 2010eko uztailaren 26an. Bezperan, asteburuan, herritarrei aukera eman zitzaion oinez zein bizikletaz aritzeko saihesbide eta tunel berriaren barrena. Jende dezente hurbildu zen jakingura ase eta jaiegunean paseatzeko aitzakiarekin. Bi urteko lana eta 41,3 milioi euroko inbertsioa izan zituen proiektuak.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Oñatiko 'Izan marika' pintaketa berbagai

Oñatin agertu diren 'Izan marika' pintaketaren inguruan zalaparta piztu da Twitterren:

@psico_feminista: "Oñatin 'izan marika' jartzen duten pintaketak daude. Gaur, Izanez akordatu naiz, zenbait nardagarriengatik herri txiki baten jasan behar duenan" (itzulita).

@garrozigor: "Ez dago Izan izena duen haurrik, 'izan' ez delako izena baiziki eta aditza. 'Ser' aditza hain zuzen eren".

@ideiazabaldub: "Kordobako jendea Oñatiko Izan batez arduratuta oraindik ez direlako jabetu euren ez den hizkuntza gehiago daudela".



lako programan parte hartu zuen lokal huts bat. Hor martxan jarri daitekeen negozio erudia ikus daiteke erakuslehoan. E.A.

Lokal hutsei balioa eman eta herriko kaleak bizitu

Jarraipena izango du lokal hutsak dinamizatzeko programak, ekintzailtza sustatzeaz gain, kaleak biziberritzea helburu duenak, Udal Gobernuak aditzera eman duenez; parte hartzeko "ezinbestekoa" izango da erakusleioa duen lokal baten jabe izatea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Herriko merkataritza ehuna babesteko apustuan, Arrasateko Udalak jarraipena emango dio lokal hutsetan negozio berriak sustatzeko martxan jarritako programari. "Horri jarraiki, herriko lokal hutsetan merkataritza edota zerbitzu negozio eredu berriak irudikatuko dira, modu horretara lokal horretan garatu daitezkeen negozio ereduak bistaratu eta ekintzaillek lokalaren balioa aintzat har dezaten, saltoki berriak abian jarri ahal izateko", azaldu du Udal Gobernuak.

Proiektua hamabi lokaletan garatzeko aurrekontua jaso du Udalak aurten: guztira, 15.000 euro. Horrenbestez, lokalaren erakuslehoan hainbat elementu jarriko dituzte: merkataritza proiektuaren argazkiak, lokalaren planoak eta lokalaren ezauzgarriak biltzen dituen panel bat. Horrez gain, erakusleioa apaindu egingo dute, "itxura erakar-garria" izan dezan.

Bi helburu ditu ekimenak

Ekimenak bi helburu nagusi ditu: "Herriko lokaletan ekintzailtza proiektuak garatzeko alternatibak mahai gainean ipintzea, batetik, eta lokal hutsei balioa ematea, bestetik; modu horretara, kaleak biziberritu, merkataritza sustatu eta udalerriaren kalitatezko komertzio eta zerbitzu eskaintza zabalaz izateko aukera piztuko da".

Izen-ematea, irailaren 6ra arte

Programan parte hartzeko "ezinbestekoa" izango da "ostalartzakoa ez den lokal huts bat" jabetzan izatea eta lokalak erakusleioa izatea. Izena emateko epea irekita egongo da irailaren 6ra arte eta hiru bide egongo

IRAILAREN 6RA ARTE EMAN AHALKO DA IZENA, BAZ-EN, UDAL WEBGUNEAN EDO UDALETXERA DEITUTA

dira horretarako: BAZen, *Arrasate.eus* webgunean edo *merkataritza@arrasate.eus* helbidean. Informazio gehiagorako, 943 25 20 17 zenbakira deitu daiteke.

Behin eskaerak jasota, ezarritako irizpideen arabera aukeratu dituzte lokalak: "Kokalekua, auzoa, eremuaren beharrak, lokalaren aukerak, eta abar". Lokalen aukeraketa irailean egingo dute eta urrira bitartean landuko dituzte proiektuak. Erakusleiohen muntaiak, azkenik, abenduan egingo dituzte.

2020an, hamaika proiektu

Lehen edizioan hamasei lokal jabeek eman zuten izena, baina, azkenean, hamaikak hartu zuten parte. Hamaika lokal horietatik bostek jaso dituzte kontsultak informazioa eskatzeko, baina, oraingoz, ez da negoziarik martxan jarri lokal hutsetan. Erakusleioetan daude zehaztuta lokalaren ezauzgarriak eta Udalarekin harremanetan jartzeko bideak.



Langileak eraikinaren atariko zorua konpontzen, atzo, eguena. E.A.

Urtea bukatu baino lehen, Elma eraikinean egongo da Lanbide

Beheko solairuan jarriko dute bulego berria, hemeretzi langilerekin; hamaika Lanbidekoak eta zortzi SEPEkoak

E.A. ARRASATE

Egoitza berria martxan egongo da 2021eko azken hiruhilekorako. Hala aurreikusten du, behintzat, Lanbidek. 603 metro karra-tuko bulegoa izango da eta hemeretzi langile ariko dira.

Gaur egun Lanbideren bulegoa denari ez diote ikusi "hazkunderako aukerarik" eta bi solairu izateak ere "zaildu" egiten du lanaren antolaketa, Lanbideko ordezkariak azaldu dutenez. Hori dela-eta dator lekualdaketa. "Elma eraikinean zerbitzu guztiak solairu bakarrean eskaini ahal izango ditugu, beheko solairuan,

gainera, eta langile guztiak elkarrekin egon ahal izango dira, bai Lanbidekoak eta baita SEPEkoak ere (Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa)".

Goian, udal zerbitzuak

Beheko solairuan sarrera bat egokitzen ari dira, goiko solairuetarako sarbidea ahalbidetzeko. Gogoratu behar da 2019ko udal hauteskundeetan EAJren proiektuetako bat izan zela Elma erabiltzea "herritarren tramitazioak errazteko gune" gisa, eta Udal Gobernuak azaldu du horretarako lanean ari dela.



ARRASATEKO EAJ

"Erasoa" gaitzetsi du EAJk

Pintaketak egin dituzte asteon Arrasateko batzokian, eta jeltzaleek "gogor" salatu dituzte ekintza horiek. "Horrelako ekintzak demokrazia eta askatasunetik baino, totalitarismotik eta faxismotik gertuago daude". EAJk "argi" du "elkarrizketa, elkarlana eta elkarrenganako errespetua" dela bidea, eta bide horretan ez daukatela lekuri horrelako ekintzek.

Elkartasun martxa deitu dute irailaren 18rako

Arrasateko Sarek eta Elkartasun Eguna antolatzen duten kideek 31 kilometroko martxan parte hartzera deitu dituzte herritarrak, presoan, iheslarien eta deportatuen etxeratzea eskatzeko eta Unai Paroten salbuespenezko egoera amaitzeko

Hasier Larrea ARRASATE

Irailean Arrasaten antolatu ohi den Elkartasun Eguna elkartasun martxa bilakatuko da aurten. "Jai giroan antolatzen den aldarrikapen kutsua galdu gabe, presoak etxera ekartzeko aldarrikapena bultzatuko dugu, lekukoa eskuz esku pasatuz 31 kilometroak bete arte", adierazi du Premin Sanpedrok, Arrasateko Sareko kideak, asteon Monterron parkean egindako prentsaurrekoan.

31 kilometro, 31 urte

Martxan distantzia hori egitea ez dute besterik gabe erabaki: "Izan ere, une hauetan Arrasateko euskal preso bakarrak, Unai Parotek, 31 urte bete ditu kartzelan". Hura askatzea "lehenbailehen" egin beharreko kontua dela diote, "Espainiako Estatuan bete zitekeen zigorrak handiena" bete duela nabarmenduta. Bigarrenez epaitu zuten ETako kide izateagatik, eta hura da, Sareren arabera, kasu hori bizi izan duen euskal preso bakarra: "Legearen arabera, gauza beragatik ezin da inor berriz epaitu, baina Unairi beste 11 urteko espetxe zigorra jarri zioten, *Parot doktrina* deiturikoa atzera bota zutenean Estraburgon".

Arrazoi horregatik baliatuko dute Elkartasun martxa Paroten egoera salatzeko, baita bizi arteko zigorra "behingoz" amaitzea eskatzeko ere.

'Peixoto' eta 'Arbe' gogoan

Espetxean daudenak ez ezik, euskal iheslari eta deportatuei ere egingo diete keinua ekitaldian; bereziki, Jose Manuel Pagaoga *Peixoto* eta Eugenio Barrutia *Arbe* arrasatearrei: "Bata, frankismo garaitik, duela 53 urtetik, dago jaioterritik urrun, eta besteak 37 urte daramatza deportatuta, Frantziako eta Espainiako estatuek hala erabakita, zigor ikusezina ordaintzen".



Arrasateko Sareko eta Elkartasun eguneko kideak, Monterron parkean H.L.

ESPETXE POLITIKEN GAINEKO LEGEDIA BETETZEA, "BESTERIK EZ" DUTE ESKATZEN ANTOLATZAILEEK

Herriko eragileak bidelagun

Ekimena antolatu duten bi kolektiboen gonbidapenera herriko eragile ugari batu dira dagoeneko. "Euskaltzale, pentsiodun, kirolari, auzo elkarte, ostalari, dendari, feminista, zinegotzi eta alkate, sindikatukide, musikari, dantzari, dispertsioa zuzenean ezagututako presoan senide eta beste hamaika lagun eta erakundek emango digute babesa 31 kilometro horietan", zehaztu du Sanpedrok.

Presoen hurbilketei buruz

Espainiako Gobernuak azken asteetan hartutako erabaki politikoak "nahikoa ez" direla aipatu dute martxako antolatzaileek. Preso guztiak Madrildik gorako espetxeetara gerturatua "senideei bidaietako zama pixka bat arindu" bazaie ere, oraindik hainbat puntutan legea betetzen

ez dela azpimarratu dute. Legearen arabera, "euskal preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan eta gradu progresioa aplikatuz baimenekin ateratzeko aukerarekin" egon beharko luketela diote, eta etxean, berriz, "gaixo dauden presoak, 70 urteko gorakoak eta hiru laurdenak beteta dituztenak". Amaitzeko, uste dute "legedi arrunta, baldintzapeko askatasuna baimentzen duena", aplikatu beharko litzaiekeela salbuespenezko legekin epaitutakoei.

Horiek guztiak lortzeko argi daukate "gizartearen aktibazioa eta mobilizazioa" ezinbestekoak izango direla: "Elkarbizitza, konponbidea zein bakea erdiesateko behar-beharrezkoa da herri osoak parte hartzea ekintza honetan eta aurrerantzean antolatuko diren". Beraz, herritar orori dei egin diote irailaren 18an egingo den elkartasun martxan parte hartzeko, norberak nahi adina kilometro eginez.

"Preso, iheslari eta deportatuak etxera ekartzeko" bideari Biteri plazan ekingo diote, eguerdiko hamabietan. Irail hasieran beste agerraldi bat egiteko asmoa erakutsi dute antolatzaileek.



Ceprenor enpresako langileak, Iturripe atzeko errepedean pintura botatzen. H.L.

Hasi dira lurra margotzen, TAO sistema berria ezartzeko

Lanak hiru hilabeteko epean egitea aurreikusten dute, aparkatzeko neurri berriak urrian martxan jartzeko

H.L. ARRASATE

Uztailaren 5ean hasia zen Udalen asmoa, baina, eguraldiak lagundu ez zuenez, joan den astelehenean ekin zioten Ceprenor enpresako langileek TAO sistema berriaren errepedeko seinaleak egokitzeari. Urribarrin egin dituzte lehen interbentzioak.

Hiru hilabete inguru iraungo dute TAO sistema berriaren seinaleak jartzeko lanek. Erdiguneko errepedeak "ziurren etik abuztuan" hasiko dira margotzen, Ceprenor enpresako langileen arabera, "trafikoa murriztagoa izango delako".

Gelmako biribilgunetik hasi eta San Andreserainoko apartokalekuan ezarriko dute TAO sistema berria, ospitalean eta Zalduspe gunean izan ezik. Hala, Aldain, Txetaen eta Zerrajeran, esaterako, TAO jarriko dute. Era berean, herrigunetik kanpo dauden Musakola, Erguin, Obernerreka, Makatzena, Santa Marina eta Santa Teresa, besteak beste, salbuespen geratuko dira.

Maria Ubarretxena alkateak aurreratu du irailen komunikazio kanpaina egingo dutela sistema berriaren xehetasun guztiak azaltzeko.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Gora gazte olatua!

Eta ez naiz hitz egiten ari zorioneko COVIDaren hamaikagarren *olatuaz*, nahiz eta izenburu deigarria ipintzeko aukera eskaini didan. Oraingoan, gazteen berezko ekintzailetasunaz eta eraldaketarako gaitasunaz ari naiz. Baita, zelan ez, nire gai gogokoenaz ere: euskal politikaz. Nire ustez, nahiko ukazina da Euskal Herriko askapen mugimenduaren historia zikloka dagoela idatzirik, oso *grosso modo*: karlistadak, gerra aurreko eta gerrako PNV/ANVren aroa, ETaren aroa... Bakoitza hasi, loratu eta apaldu egin da, azkenean bere potentzialitate askatzaile, iraultzaile edo, besterik gabe, eraldatzailea galduz; gure herriaren historia sakon markatu eta aurreko aroa zorrotz kritikatu ostean, bakoitzak bere erara. Beraz, zer ari da gertatzen orain Euskal Herrian? Bada, ziklo berri batean ari garela sartzen berriz, ongizate estatuak eta kapitalismoaren etengabeko hazkundearen mitoak pixkanaka lurra joko duten aroan. Eta aro hau ezaugarritzeko, Euskal Herriko gazte sozialisten sareak ikusten ditut ezinbesteko ekimen, antolaketa eta indarrez hornituak. Bejondeiela, benetan!



Iñigo Prieto, 'Larre' txakurra eta Maddi Urizar, Tadjikistango Pamir mendietan. Urizarren esanetan, bidaia osotik, inguru horiek gustatu zitzaizkien bereziki. ARGAKIAK: MADDI URIZAR

Gurpilen gainean ere egin daiteke

Mundua ezagutzeko askotariko moduak daude eta horietako bat ondo ezagutzen dute Maddi Urizar arrasatearrak, Iñigo Prieto bikotekideak eta 'Larre' txakurrak; pandemia aurretik, 23.000 kilometroko bidaia egin zuten bizikletan, hoge herrialdetan barrena

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ia bi urte egon zen hirukotea etxetik kanpo, gurpilen gainean mundua ezagutzen. 2017ko apirilaren 21ean abiatu ziren Arrasateetik eta 2019ko otsailaren 27an eman zioten bukaera abenturari. 28 urte zituzten Urizarrek zein Prietok, eta *Larre*-k, berriz, urte eta erdi. "Iñigo lanean ez zegoen gustura eta ni Granadan bizi nintzen arren, hona etortzeko garaia iritsi zitzaidan, bizitza erosoagoa izateko. Dena den, bagenuen buruan beste zerbait egitea ere, eta bidaia hastea erabaki genuen. Beraz, *Larre*-ri karro bat prestatu genion bizikletan eta abenturara irten ginen", azaldu du Urizarrek.

Luzera begirako plan barik irten ziren Arrasateetik. "Hasieran, esan genuen bi hilabete bidaia bat egingo genuela bizikletan, txakurrarekin. Hasierako asmoa zen gure bizikleta zaharrak hondatzen zirenera arte irautea eta ondoren bueltatzea. Aurreikusitako gure Itsaso Beltz ingururaino iritsiko zirela, baina ez gehiago, bizikleta zaharrak zirelako. Hala ere, modu batera edo bestera, aurrera egitea lortu genuen eta Arra-

sateraino iritsi ginen bizikletan". *Modu batera edo bestera* dio; izan ere, Georgian zeudela, bizikleta aldatu zuen. "Araoak ematen hasi zen nire bizikleta zaharra, eta hango mutil batek oparitu egin zidan berea. Beraz, nirea han utzi nuen eta harearekin jarraitu nuen bidaia, bukaerara arte".

23.000 kilometroko bidaia

Arrasateetik irten eta, Pirinioak zeharkatuz, Frantziako mendebaldeko kostaldea egin zuten lehenik, eta handik barrurantz egin zuten, Oihan Beltzetik pasa eta Eslovakiarantz. Gero, Danubio ibaiari jarraiki, Itsaso Beltzeraino joan ziren eta ferry batekin zeharkatu, Georgiara bidean. Turkiatik pasa ostean, Greziara ailegatu ziren. "Negua zenez, lau bat hilabete igaro genituen han. Alde batetik, gaizki sentitzen ginen,

URIZAR: "HASIERAN, BI HILABETEKO BIDAIA EGITEA ZEN ASMOA, BAINA IA BI URTEKOA IZAN ZEN AZKENEAN"

hilabeteak aurrera zihoazelako eta etxean esan genuelako bi hilabeterako irten ginela. Beraz, hausnarketa egiteko eta aurrera begira egin gura genuena erabakitze baliatu genuen geldialdia. Hango baserri batean olibak jasotzen egin genuen lan eta trukean ostua eta jana eskaini zizkiguten, ez genuen kobratzen. Era berean, hango gizonak kontaktu asko zituen. Greziako hegoaldean alemaniar asko bizi dira eta haien etxetako lan batzuk egin genituen; igerilekua garbitu, esaterako. Haiek ondo ordaintzen ziguten".

Greziatik ekialderantz joan ziren eta berriro Georgiatik Azerbaijanerantz. "Kaspiar itsaso ferryan zeharkatu ostean, Kazakhstan, Kirgizistan, Tadjikistan, Uzbekistan, Iran, Kurdistan eta Turkian egon ginen eta Europako hegoalde egin genuen buelta, eguraldi hobearren bila, negua zelako".

Txakurrarekin "oso ondo"

Txakurrarekin "oso ondo eta lasai" moldatu zirela nabarmendu du Urizarrek. "Batuetan, kilometro gutxiago egin behar izaten genituen beragatik, nahiz



Hirukotea, Uzbekistan ekialdean dagoen Samarkanda hirian.

eta leku askotan, mendi bideetan, esaterako, gu baino hobeto joaten zen. Nekatzen zenean, karrora igotzen genuen, eta, bestela, korrika joaten zen. Berak gu baino atseden gehiago hartzen zuen eta hostaletan lo egiten geratzen ginenean, buruz gora egoteko gura zuen denbora gutzia zeukan".


Txinako mugara iritsi zirenean, arazo batekin egin zuten topo; izan ere, han berrogeialdi bat egin behar izaten dute txakurrek. "Beraz, erabaki genuen Txinara ez sartzea, eta han buelta eman genuen. Gainontzeko herrialde guztietan inongo arazorik ez dugu eduki. Egia da Iranen, adibidez, txakurrak ez daudela onartuta lagun moduan, eta herrietan ez da txakurrik ikusten. Mugan ez ziguten sartzen utzi gura, baina esan genien enbaxadan esan zigutela arazo barik sar gintezkeela. Gainera, aurre-

ko urtean Turkian eman genion amorruaren aurkako txertoa, eta paper hori ikusi zuten, turkieraz idatzita. Ez dakit horri esker-edo, baina, azkenean, utzi ziguten sartzen eta baita irteten ere".

Urizarrek entzuna du zailena dela Europatik irten ostean gero berriz sartzea: "Batez ere, amorruagatik –gaixotasun infekzioso–. Baina irten aurretik albaitariarekin egin genizkion proba batzuk, ikusteko antigorputzak zituela, eta ziurtagiri horrekin inongo arazo barik zeharkatu ahal izan genituen muga guztiak".

Kanpin-denda, etxe bilakatuta

Normalean, kanpin-dendan egiten zuten lo, eta hasieran "asko" kosta zitzaien ohitzea. "Guretzako aurrerapauso handia izan zen gelditzen ginen lekuan eroso sentitu ahal izatea, etxean moduan. Hala ere, saia-



Austriako hiriburuan, Vienan, bizikleta konpontzen, tailer batean.



Grezian lanean aritu ziren lau hilabetez, neguan, olibak jasotzen.



'Larre' eta Urizar, Irango ipar-ekialdean dagoen Urmia ur gaziko aintziran.



Prieto, Uzbekistanen, euren etxeko atea ireki zizkieten familiako kideekin.

tzen ginen bi astetik behin hostal batean lo egiten, atsedean hartzeaz gain, ondo jateko, arropak garbitzeko eta herriak ezagutzeko".

"Bidaiatzeko era merkea da"

Aurreztuta zeukaten diru guztia xahutu zuten bidaian eta familien laguntza ere izan zuten. "Baina oso merkea da horrela bidaiatzea. Gure gastu bakarra janaria zen eta 200-300 euroekin egiten genuen hilabetea, nahiz eta bisak eta baimen berezi batzuk ordaindu behar izan geni-

tuen, eta bizikletaren matxurak ere bai", dio Urizarrek.

Askotariko harremanak

Mendebaldeko Europatik irten zirenean, Urizarrek aitortu duenez, konturatu ziren erraztasunak agortu zitzaizkiela. "Bidegorririk ez, kanpin-gunerik ez, eta abar. Baina, erosotasunak agortu ahalaz bat, jende esku-zabalagoa agertu zitzaigun, etxeko atea zabaltu eta jaten ematen ziguna. Beste mundu bat zen hura, askoz ere errazagoa". Hala, askotariko harremanak egin

dituzte. "Asko gure moduan bidaiatzen ari zirenak eta beste batzuk, tokian-tokian ezagututako jendea. Hizkuntza ez ulertu arren, harreman ona lortzen duzu askorekin". Egun, gainera, mantentzen dituzte harreman horietako batzuk. "Marcus izeneko alemaniar bat ezagutu genuen. Iranen neska-laguna aurkitu zuen eta orain ezkontuta daude. Horrekin, adibidez, harreman handia daukagu".

Hizkuntzari dagokionez, behin mendebaldeko Europatik aterata, "ingelesak ez du balio". Hori

dela eta, errusierako hitz batzuk ikasten hasi ziren. "Errusierarekin gu ibili ginen herrialde gehienetan moldatzen zara. Bestalde, herrialde bakoitzeko oinarritzko hiztegia ere ikasten saiatu ginen: *kaixo, eskerrik asko* eta *nondik joaten da hona* esaten jakiteko".

Beste bidaiarik aurrera begira?

Pandemiak bidaiatzeko era hau eten egin duela uste du Urizarrek, eta euren kasua ere hori dela. "Berriz irteteko gogoia geneukan berez, baina epe motzean ez gara irtengo. Halere, jendeak jarraitzen du bizikletan bidaiatzen. Agian, ez dira orain irten direnak, baina lehendik bidaiatzen ari diren askok jarraitzen dute bidean; mugak zeharkatzen, gainera. Dena den, ez da lehen bezain erraza izango jendeak etxeko atea irekitzea, eta hori pena da".

Aurrera begira, agian, astebeteko bidaiaren batzuk egingo dituztela dio, baina hilabeteetako bidaiarik, oraingoz, ez. "Dena den, buruan beti daude ideia berriak, eta, epe luzera, gustatuko litzaiguke bidaia potolo bat egitea, txakurra aldean hartuta".

Garbiketa indartuko dute Santa Barbaran eta Monterronen

Kale-zurruta egiten duten guneetako garbiketa zerbitzua indartu egingo du Arrasateko Udal Gobernuak, Cespa SA enpresarekin kontratua luzatuta. Hala, 12.443,45 euroko kostua izango du zerbitzu horrek udan, Victoriano Fuentes Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak Saileko zinegotziak azaldu duenez.

Tokiko Gobernu Batzarrean onartu da erabakia eta Monterron eta Santa Barbara parkeetan garbiketa zerbitzua hobetuko dute uztailean, abuztuan eta irailean. Gainera, Villa Amparoko ur-parkearen garbiketa ere egingo du Cespa enpresak. "Noizean behingo" zerbitzua hobetzeko eskaera egin zaio enpresari. "Beraz, Monterrongo eta Santa Barbarako garbiketa ostiral, larunbat eta igandeetan egingo dute, uztailean, abuztuko lehen eta azken asteetan eta irailean. Villa Amparoko ur-parkearen garbiketari dagokionez, uztailetik irailaren erdialdera arte egunero egingo dute".

Bisitak eta irteerak egiteko aukera dago uztail eta abuztuan

Askotariko bisita gidatuak eta mendi irteerak egiteko aukera eskainiko du Arrasateko Udalak uztailean, abuztuan eta baita irailean ere. Asteburu honetan, esaterako, Arrasateren historia ezagutzeko bisitak eta martxa nordikoa egin ahalgo dira. Izena emateko hiru bide daude: BAZen, *Arrasate.eus*-en eta 943 25 20 00 zenbakira deituta.

Aurten ere ez dituzte ospatuko Erguin auzoko jaiak

Auzo-alkate Andoni Altzelaik azaldu du jai batzordeak erabaki horixe hartu duela: "Erantzukizunagatik eta une honetan daukagun osasun egoera aldakorra dela-eta". Gaineratu du "erabaki mingarria" den arren bai nagusi eta baita gazteentzat ere, arduraz jokatzeko unea dela, lor dadin 2022an jaiak ospatu ahal izateko helburua.



Emakumezkoen taldea izango dute seniorretan

Ointxe!-k duela bederatzita urte inguru hasitako proiektua borobilduko du senior mailako taldearen aldeko apustua eginda; Bigarren Nazional Mailan jokatu dute. Izar Bediak eta Nerea Kabuek eman zuten albistearen berri 'Harmailatik' saioan

Xabier Urzelai ARRASATE

Aspaldiko ametsa errealitate bilakatuko da urrian ligak hasien dituztenean. Ointxe! saskibaloia klubak duela bederatzita urte emakumezkoekin kategoriatxikietan hasitako lanak fruituak eman ditu; izan ere, senior mailan taldea izango dute denboraldi berrian, eta, horrela, kategoriatxikietan ordezkari izatera pasako da talde arrasatearra.

Astelehenean, talde horretako elastikoa defendatuko duten Izar Bedia eta Nerea Kabue jokalariek izan ziren *Harmailatik* saioan, eta apustuaren berri eman zuten. "Egia esan, ez dakit lehenengo denboraldian taldeari zer eska diezaiogekun. Izan ere, ez da epe motzerako apustua izango, epe luzerako proiektu bat da hau eta pausoak poliki-poliki ematen joan behar dugu. Taldea egitea eta lehiakorraz izatea da gura duguna, baina emaitzekin itsutu barik. Baina ea posible

den urte gutxi batzuetan maila oneko taldea egitea, harrobian oso maila politeko jokalariek daude-eta", adierazi zuen Gasteizko Araski taldea utzi eta etxerako bidea hartu duen Bediak. Hain zuzen, Gasteizen saskibaloia maila gorena zer den ezagutzen duen jokalariek –Bediak 2018ko martxoan egin zuen Emakumezkoen Ligan debuta– sekulako ekarpena egin dezake talde morean. "Egia esan, nik ere aldaketa behar nuen. Gasteizko azken urtea nekagarria izan da, lehenengo taldearekin entrenatzen ibili naiz eta bigarren taldearekin ibili naiz jokatzeko. Hala, lehenengo taldearekin jardun ahal izateko PCR probak izan ditugu etengabe, segurtasun neurriak asko zorrotz behar izan ditut... Burbuila batean pasa dut urtea, eta ez da izan erraza. Hala, proiektu honen berri izan dudanean baiezkota eman dut, etapa berri bati eki-

teko gogoz nago, eta nahiz eta txipa aldatzea tokatzen den, kirol mailan, orain arteko errendimendu maila emateko prest nago, hori barruan eramaten den zerbait da".

Kabue, harrobikoa

Bediak bere egunean Gasteizetarako bidea hartu behar izan zuen maila goreneko saskibaloian jokatzeko, eta Nerea Kabueren kasua bestelakoa da: taldeko beste zenbait jokalariek moduan, Arrasateko harrobiko koska guztiak gainditu ditu lehenengo taldera iritsi den arte: "Geroago eta gehiago gara harrobiko talde guztietatik pasatzen ari garen neskak, eta Ointxe!-k apustu

LEHENENGOZ IZANGO DITU OINTXE!-K EMAKUMEZKOEN KATEGORIA GUZTIAN TALDEAK



Izar Bedia eta Nerea Kabue, astelehenean, telebistako platoon. X.U.

hau egin izan ez balu kanpora joan beharko ginateke saskibaloian jokatzeko jarraituz. Horregatik da apustu polita guretzeko, eta Izar moduko jokalariek bat ondoan izatea sekulakoa da; bere ondoan asko ikasiko dugu, seguru!".

Ogara izango da entrenatzailea

Emakumezkoen senior mailako taldearen ardura Iñaki Ogarak izango du: "Gizonezkoetan Ointxe!-k aspalditik izan ditu kategoriatxikietan taldeak, eta senior mailako taldea EBAn egotea garrantzitsua da; bereziki, gazteek talde erreferente bat daukatelako. Hori falta izan zaigu emakumezkoekin, eta apustu honekin hutsune hori bete gura

dugu. Hala, duela 8-9 urte klubean emakumezkoen aldeko apustua egin zenean helburua bazen lehenago edo geroago kategoriatxikietan ordezkari izatea, eskailera osoa osatzea, eta duela urte eta erdi inguru hasi ginen aukera hori modu serioan balaratzen. Baina iaz, pandemia tarteko, ez zen une egokia halako apustu bat egiteko, eta erabaki dugu orain dela momentua". Hain zuzen, Kabueri eta konpainiari egokitu zaie urte hauetan bidea egitea: "Infantiletan geundenean, kadeteetan ez geneukan inor; kadete ginean, gazte mailan ez zegoen inor. Izan ere, guri egokitu zaigu bide hori egitea, eta senior mailan gaude dagoeneko".

"Badakit galtzen, eta ikasgai ona izan daiteke, gainera"

HAIZEA TORNAY XAKELARIA

Arrasatekoa Espainiako txapelketarako sailkatu da

Mireia Bikuña. ARRASATE

18 urtez azpiko mailan Euskadiko txapeldun izan berri da, eta horrek Espainiako Txapelketan egoteko txartela eman dio. Granadan izango du hitzordua, uztailaren 26tik 31ra.

Urte zaila izan da kirolari askorendako.

Nire kasuan, pandemia egoerak ez dit xakean jokatzeko eragotzi, beste batzuei gertatu zaien moduan. Etxean praktikatu daitekeen kirol jarduerak da, eta, horri esker, inoiz baino denbora gehiago eskaini diot xakeari.

Emaitza politikak lortu dituzu.

Bai. Gipuzkoako txapeldun izan nintzen eta Alemaniako txapelketa baterako sailkatu eta torneo polita egin nuen han. Orain, Euskadiko 18 urtez azpiko txapelketa irabazi dut eta horrek Espainiakoa jokatzeko aukera emango dit. Gozatzen nabil, bai.

Gazte hasi zinen xakean.

Aita ikusi izan dut beti xakean jokatzeko, eta horrek eragina izango zuen, seguru. 7 urterekin hasi nintzen mugimenduak ikasten, baina 9rekin hasi nintzen xakean jokatzeko ikasten.



Haizea Tornay. MIREIA BIKUÑA

Eta zer behar da xakean ondo jokatzeko?

Edonork joka dezake xakean, ez da matematikaria izan behar. Askok praktikatu behar da, eta pazientzia izan.

Zelakoa zara xakelari moduan?

Oso galtzaile ona naiz, eta pazientzia handia dut, gainera. Ez naiz partida galdu eta haserretzen diren horietakoa, saiatzen naiz porrot bakoitzean ikasgai bilakatzen. Hori da hobetzeko bidea.

Baduzu erreferenterik xakean?

Judit Polgar. Xakean munduko txapeldunak menderatzea lortu duen lehen emakumea izan da. *Gambito de dama* telesailko pertsonaia harengan dago oinarrituta.

Zer iruditu zaizu telesaila?

Asko gustatu zait.

Identifikatuta sentitu zara?

Bueno, momentu batzuetan bai. Baina nik ez dut hark bezain ondo jokatzeko [Barre].

Portzieto, zer da 'gambito' bat?

Irekiera mota bat, non peoi bat sakrifikatzen den trukean zentroa bereganatzeko.

Kirol arloan urte ona izan da ARTrendako; ekonomikoan, zaila

"Ezohikoa eta zailtasunez beterikoa". Halaxe definitu zuten atzoko batzar orokorrean 2020-2021 denboraldia, COVID-19aren pandemiak dena baldintzatu duelako. Txikiak izan badira ere, arlo ekonomikoan galerekin amaitu du ekitaldia Arrasate Rugby Taldeak -1.000 euro baino zertxobait gehiagoko diru-galerekin-. Izan ere, Garagardo Azoka egin ez izanak zeresan handia izan du.

Kirol arloan, berriz, urte ona izan da ARTkoendako, pandemia tarteko txapelketetan lehiatzen jarraitu dutelako. Hain zuzen ere, Ordiziarekin hitzarmena sinatu izana garrantzitsua izan da kasu horretan.

Blues munduaren mapan tokia egin du Arrasatek

"Erabateko arrakasta" izan da Arrasate Bluesen hirugarren aldia, orain arteko luzeena; horrekin konforme ez, eta beste hiru emanaldi antolatu dituzte Ibai-artek eta Udalak, Musakolan zapaturako eta Herriko Plazan domekarako eta martitzenerako

Hasier Larrea ARRASATE

Herriari "beste dimentsio bat" emateko lan egiten du, besteak beste, Ibai-artek. Hori dio merkatarik elkarteko lehendakariak, Jon Apraizek: "Gure baliabideekin, ez beste inongoekin, gauza eder askoak egin daitezkeela sinisten dugu". Pentsamendu hori "bete-betea" gauzatu dela deritzo Arrasate Bluesen kasuan. Udalarekin elkarlanean, blues estiloko emanaldi sorta zabala ekarri zuten joan den asteburuan Arrasatera, tokiko taldeei eta emakumeei, bereziki, oholtzara igotzeko aukera eskainiz.

Pandemia garaian halako erronkari aurre egiteko "guztia kontrolatuta" eduki behar izan dute, ikusleentzako mahaia eta aukerak jarritz, besteak beste. Jendeak "primeran" erantzun duela dio Apraizek, eta, adibidez, bezala, zapatuan Mississippi Queen & The Wet Dogs taldeak Herriko Plazan jotako kontzertua aipatu du: "Emanaldia



Noa & The Helldrinks-ekoak, Ferrerías kalean, joan den zapatuan. IMANOL SORIANO

20:30ean hasten bazen ere, 19:00etarako beteta zeuden jarleku guztiak".

Sorpresek ondo funtzionatu dutela nabarmendu du, eta Gokobalu korua "berme bat" dela eta Arrasate Musikaleko ikas-

leengatik jendeak "oso kritika onak" partekatu dituela zehaztu.

Lau egun, "laburtxo"

Kartelean iragarritako taldeei bakarrik ez, banda gehiagori ere egin nahi izan diete tokia

jaialdian, baina ezin izan zuten joan den astebururako programatu. Horregatik atera dute beste egitarau bat: "Txikiagoa, baina kalitate altukoa baita ere".

Hala, *Arrasate Blues Plus* izena jarri diote bihartik martitzenera arte iraungo duen egitarauari, eta nobedade bezala Musakolako Elkano plaza izango da lehen emanaldiaren agertokia. Horren harira, Apraizek argudiatu du Ibai-arteren asmoa dela "erdiguneko baina gehiago, herriko osoko jaia" izatea festibala; gauzak horrela, Señor No taldeko Xabi Garre eta Arima Beltza taldeko Jon Gurrutxaga batera igoko dira zapatuan Musakolako agertokira, 19:00etan.

Domekan, 'Sustrajazz'

Jokin Vitoria batera jole arrasatearrak goi mailako musika ikasketen amaieran sortutako proiektu berria da *Sustrajazz*. Bertan, konposizio propioak eta euskal kanta herrikoiak jazzera eramanez, eta errepertorio propio eta berezia sortu. Esaterako, *Maritxu nora zoaz* eta *Errementari dantza* moldatu ditu.

Formazioari dagokionez, bere gertuko lagunekin osatutako laukotea da, denak eskarmentu handiko musikari profesionalak. "Beraiek gabe, hau ez litzateke aurrera irtengo", azpimarratu du Vitoriak. Abestietan "jazzaren ezaugarri handienari eta politenari ere, hau da, inprobisazioari", eskainiko diote tartea.

Nola moldatzen diren ikusi nahi duenak Herriko Plazan edukiko du aukera etzi, 20:00etan.

'Iluntze akustikoa'

Eta kartela borobiltzeko, Arrasateko beste hiru musikaririk, Garazi Barrenak, Asier Salak eta Leire Etchezarretak, Huntza taldeko Aitor Huizi biolin-jolearekin batera alaituko dute martitzen arratsaldea Herriko Plazan, 19:00etan hasita. Kajoi taberna ere inplikatu da ekitaldi horren antolakuntzan, eta, Ibai-artekoek azaldu dutenez, "amaiera intimoa" emango dio laukoteak aurtengo Arrasate Bluesi. Lau musikariak proiektu paralelotan murgilduta dauden arren, elkarrekin "lau bertso interpretatzen harago" joan nahi izan dutela adierazi du Salak, "zerbait serioagoa" egin nahian. Inguruak eraginari balioa eman nahi izan dio gitarra-joleak, "aurretik ere pare bat tokitan jotzeko" komentatu dietelako.

Horixe izango da merkatarik elkarrekin musikaz betetako uztaileari agur esateko modua: "Abuztuaren pilak kargatu eta Hauspo egunarekin itzuliko gara iraileko bigarren asteburuan".

'ARRASATE BLUES PLUS' ESKAINIZ AGURTUKO DU IBAI-ARTEK MUSIKAZ BETETAKO UZTAILA

Udazabal, diziplina artistikoen erakusleia, azken txanpan

Gaur zortzi amaituko da Udalaren uztaileko egitaraua; lau ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da bitartean

H.L. ARRASATE

Artistek euren dohainak kale-ratzeko helburuarekin, musika, antzerki, zirku eta dantza saioak ekartzen ditu uztailetan Udaleko Kultura Sailak. Karmelo Alberdi teknikariaren esanetan, "aspalditik" dabilta eginkizun horretan, eta "duela hamahiru urte inguru" jarri zioten Udazabal izena egitasmoari. Aurten, oraingoan, sei hitzordu atera dira aurrera; izan ere, Julen Alonsorena eta *Trigger*-ena bertan behera gelditu dira eta Olatz Salvadorrena eta Garazi Barre-

narena Monterrondik Amaia antzokira lekualdatu behar izan dituzte. Hala ere, "ondo" erantzun du publikoak, "seguru" sentitu dira emanaldietan, eta datozen ekitaldietarako "segurtasun protokoloa mantentzeko gai izatea" espero du Kultura Sailak.

Izan ere, Udazabalek azeleragailua sakatuz, zortzi egunetan lau saio eskainiz, osatu nahi du hilabetea. Eguaztenerako lehen aldiz Santa Teresan kontzertua antolatu ostean, Seber Altube plazan programatu dute gaur bertan hurrengo zita, Gag Street

Boys-en *Yes, we art* antzezlan dibertigarriarekin. Etzim Zaldibarko frontoia dantza garai-kidearen agertoki bilakatuko dute, Node, Amaia Elizaran eta Eva Guerreroren ikuskizuna medio (Ikus 42. orrialdea).

Datorren astean, gehiago

Hurrengo eguaztenean, hilak 28, musikaz gehiago busti nahi duenak aukera polita izango du San Andresko Cordoba y Oro plazan, arratsaldeko zazpitan. *Screamers & Sinners* izango da tokiko talde gonbidatua. Laukotearen psychobilly estiloko erritmoei Unidat Alavesak gehituko dizkie folk eta rock kutsuko doinu itsaskorrak.

Udazabali bukaera emateaz arduratuko direnak Barsanti antzerki taldeko Aritz Rodríguez eta Juanjo Otero aktoreak izan-



The Potesekoak Santa Teresan, Ibil Bedi taldearen osteko kontzertua jotzen. H.L.

go dira, baina ez dirudi egiteko serioegi hartuko dutenik, aurkeztuko duten *Legea gu gara* obrak umoretik deskribatzen duelako gaurkotasun soziala. Antzezlanarekin barrez leherzteko hitzordua Seber Altuben

izango da, datorren barikuan, 19:00etan hasita.

Musika emanaldietarako sarrerak agortuta dauden arren, oraindik dantza eta antzerkia ikusteko eserleku batzuk gelditzen dira arrasate.eus webgunean.

Eguneko zentroaren lana goraipatu du Diputazioak

'Gizarte zerbitzuetan jardunbide egokiak Araban 2021' aitorpenak eman ditu Foru Diputazioak. 16 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik lauk jaso dute aitortza. Aramaioko eguneko zentroaren proiektua COVID garaian egindako lana izan da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko eguneko zentroak COVID garaian egindako lana goraipatu du Arabako Diputazioak. *2021eko jardunbide egokiak Araban* ekitaldia egin zuten ekain amaieran; 16 erakunde goraipatu zituzten. Tartean, Aramaioko eguneko zentroa.

Aldundiak urtero egiten du jardunbide egokien lehiaketa. "Orain arte, Foru Aldundiko erakundeek bakarrik zuten lehiaketara aurkezteko aukera, eta aurten, gainerako elkarteek edo entitate lokalek ere izan dugu aukera", azaldu du Leire Espinosa, Aramaioko Udaleko gizarte laguntzaileak.

COVID garaiko funtzionamendua Aramaioko Udalak aurkeztu zuen proiektua izan zen COVID garaiko itxialdian eguneko zentroan izan zuten funtzionamendua. "2020ko martxoan eguneko zentroa itxi egin genuen, baina jarraitu genuen arreta eskaintzen", dio Espinosak.

Besteak beste, ia egunero telefono deiak egiten zizkieten, nola zeuden jakiteko, familiekin Whatsapp bidezko komunikazioa mantendu zuten, astean behin ariketak bidaltzen zitzaizkien nagusiei eta kalera irteteko aukera egon zenean kalean elkar-

tzen ziren. "Diputazioak nabarmendu du COVID garaian zerbait berezia egin izana eta egoera larri baten aurrean erantzun ezberdina emateko izan genuen prestutasuna", azaldu du Espinosa gizarte laguntzaileak.

EGOERA LARRI BATEN AURREAN EMANDAKO ERANTZUNA DA GORAIPATU DUTENA

Lau proiektu sarituak

2021eko ekitaldira 16 proiektu aurkeztu dituzte. Horietatik lauk jaso dute aitortza: Oiongo Nuestra Señora de las Viñas foru egoitzak saria jaso du egoitzan menu testurizatuak ezartzeagatik; prebentzio komunitarioko foru zerbitzua saritu dute *Alkoholaren banaketa arduratsua Arabako landa eremuan* proiektuagatik; Murgiako egoitzako *Esperientzia eta oztupoak gainditzeko* proiektuak jaso du saria; eta Ikiriki Elkartearen tailer psikoedukatiak.



Ekitaldian eskainitako bideoan, Leire Espinosa gizarte hezitzailea. ARAMAIOKO UDALA

2011 ezker martxan dago zentroa

Aramaioko eguneko zentroa 2011n jarri zuten martxan. Pertsona autonomoak edo lehenengo graduako dependentsia dutenak dira erabiltzaileak. Gaur egun, zortzi lagunendako tokia dago.

Bakardadearen aurkako borroka bakarrik ez, dependentsiaren aurka ere egiten dute; nolabait, dependentsia hori atzeratuz.



Eguneko zentroaren inaugurazio ekitaldia. LEIRE KORTABARRIA

Kanpaldi batekin amaituko dituzte gazte udalekuak

Astelehenean hasi zituzten kirol eta ekintza udalekuak 18 gaztek. Hainbat jarduera egin dituzte astean zehar

A.E.G. ARAMAIO

Amaitzear dira udaleku irekiak eta gazte udalekuak. Udaleku irekiei dagokienez, gaur egingo dute azken festa. 101 ume ibili dira udaleku irekietan, uztailearen 7a ezkerro.

Bestalde, ekintza eta kirol udalekuak izan dituzte 12 eta 16 urte bitartekoek. Eguraldi ona lagun, hainbat ekintza egiteko aukera izan dute: *konkis* ginkana, parrillada, Zarauzko hondartzan izan dira, eta gaur kanpaldia egingo dute. 17 gaztek eman dute izena udalekuetan.



Udalekuetan, esku lanekin. A.E.G.


Kanpaldia, bihar arte

17:30ean elkartuko dira udaletxe azpian, eta lo-zakuak hartuta gaua pasako dute Albina inguruan. Bihar, azken jaia egin ondoren etxera bueltatuko dira. Nabarmendu behar da gazteekin eurekin erabaki zela udalekue-

tako egitaraua: ekainean bilera irekia egin zuten udalekuetan parte hartzeko interesa zutenekin, elkarren artean programa definitzeko. Oihana Amezkua zinegotziak dio "bizitasun eta alaitasun handia" egon dela egunotan herrian.

Informazioa eman eta sariak banatu dituzte puntu berdean

Hileko hirugarren martitzenean izaten da puntu berde mugikorra Ibarra. Oraingoan, bilketa egiteaz gain, informazioa eta sariak ere banatu dituzte: kafe kapsulekin egindako giltzakoak eta CDak, zehazki. Puntu berde mugikorra abuztuan izango da berriro ere Ibarra: abuztuaren 17an, hain zuzen, 11:00etatik 13:00etara.



Puntu berde mugikorra. IGONE OSINAGA

Datorren astean goizez zabalduko dute udal liburutegia

Udal liburutegiak ordutegi berezia izango du uztaileko azkeneko astean. Uztailearen 30era arte zabalik egongo da, baina ondoko ordutegian: uztailearen 26tik 30erako astean, 10:30etik 13:00etara bitartean. Gaur, barikua, arratsaldean egongo da zabalik, 17:00etatik 19:30era bitartean. Abuztuan itxi egingo dute liburutegia.

Kontratazio publikoak egingo dituzte baso aprobetxamendurako

Baso aprobetxamendurako kontratazio publikoak egingo ditu Udalak. Lurgorri inguruan izango da bat: kontratuaren aurrekontua, BEZik gabe, 49.960,6 euro izango da. Lizitazioa egiteko epea uztailearen 31 da. Bestalde, Eguzkierripa eta Arriola-Arrikoiti auzoetako bideak konpondu eta asfaltatzeko eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 8a da.

"Kostatu egiten zait erritmo aldaketei eustea"

EDURNE ORMAETXEA ARRIARAN TXIRRINDULARIA

Bergarako Lokatza elkartearen dihardu Ormaetxeak aurtengo denboraldian. Tropelean ondo moldatzen da aramaioarra. Bihar, Euskadiko txapelketa jokatu du, Amurrión

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Txirrindularitza eta hockeya, biak ditu gustuko; eta, gaur-gaurkoz, biak praktikatzeko ditu aramaioarrak. Txirrindularitzaren kasuan, Bergarako Lokatza elkartearen dihardu aurtengo denboraldian.

Nola gerturatu zinen txirrindularitza?

Beti gustatu izan zait ziklismoa. Iaz hasi nintzen, Arrasateko taldean, baina pandemia egoera zela-eta ez genuen lasterketarik jokatu. Gainera, entrenatzaile barik geratu ginen eta Lokatza-ara etortzeko eskaintza jaso genuen.

Zeintzuek osatzen duzue taldea?

Hainbat kategoriatan dihardugun lau neska elkartu gara, eta Iker Sanchez eta Iñigo Larrañaga dira entrenatzaileak. Talde giro polita dugu eta gustura gabiltza. Gainera, lasterketetan parte hartzeko aukera daukat aurtengo denboraldian. Hala ere, nabarmendu behar da entrenamendu asko nire kasa egiten ditudala.



Edurne Ormaetxea txirrindularia. A.E.G.

Nola doa denboraldia?

Martxo inguruan hasi genuen denboraldia eta ordutik lasterketa mordoak jokatu ditugu; ez aste bukaera guztietan, baina bai askotan. Mutilekin egiten ditugun lasterketak Gipuzkoa

aldean izaten dira gehienak; baina emakumezkoenak, Euskal Herri osoan... Eta kanpoan ere izan gara. Esan daiteke oraindik lasterketetara moldatzen ari naizela. Proba batzuetan aurrean ibili naiz, beste batzuetan ez

hain aurrean... Sopelan zortzigarren izan nintzen.

Tropelean non jarri, inguruko bizikletak... Zaila egiten zaizu hori?

Ez, niri hori ez zait kostatu. Tropelean ondo moldatzen naiz. Gehiago kostatzen zait ihesaldiren bat dagoenean edo erritmo aldaketaren bat dagoenean horri eustea.

Txirrindulari moduan, zeintzuk dira zure indarguneak eta ahulguneak? Batez ere, lautadetan eta aldapa motzetan ondo ibiltzen naiz, esprintean ere bai; aldiz, igoera luzeak direnean, kosta egiten zait erritmoari eustea.

Astean zehar zenbat saio egiten dituzu eta zelakoak izaten dira?

Lau edo bost entrenamendu egiten ditut, eta, normalean, aitarekin joaten naiz entrenatzera. Hala ere, taldekideekin elkartzen naiz, eta baita Nahia Garcia aramaioarrarekin ere. Aramaion non entrenatu bada: errepede lasaiak ditugu, baina baita aldapak ere.

Entrenatzeko, zeintzuk dira zure toki gustukoak?

Kruzeta gustatzen zait, baina, egia esan, ez naiz askorik joaten. Etiket irten eta berehala portua igotzea gogorra da; hala ere, behin igotakoan, goian gustura ibiltzen naiz.

Ziklismoan baduzu erreferenterik?

Ez, erreferenterik ez. Hala ere, Ane Santesteban oreretarra jarraitzen dut.

Emakumezkoen txirrindularitzan Ane Santesteban bidea egiten da-

bil. Orain arte, zaila zen emakumezkoak jarraitzea?

Egia esan, nik, iaz arte, ideiarik ere ez nuen. Ez baldin baduzu begiratzen... zaila da emakumezkoen ibilbidea jarraitzea. Orain arte, gizonezkoak izan dira erreferente.

Euskadiko errepedeko txapelketa duzu asteburuan. Ze helburrekin joango zara?

Gaur, barikua, Bergarako San Martzial lasterketa jokatu dugu, eta bihar, zapatua, Amurrión Euskadiko txapelketa. Tropelean joatea da nire helburu nagusia, eta bertan ahalik eta gehien aguantatzea. Erdialdean geratzea ez legoke gaizki. **Txirrindularitza eta hockeya egiten dituzu; nola moldatzen zara biak egiteko?**

Oraingoz, biak egiten ditut: txirrindularitza eta hockeya. Ondo moldatzen naiz, ze bizikletarekin entrenatzera irteten naiz nik nahi dudanean. Hockeyko entrenamenduak izaten ditugu eguazteten eta eguenean. Burdinola elkartearen nabil. Lasterketa eta partidua egun berean izaten direnean, erabaki egin behar izaten dut zer egin, garrantziaren arabera.

"TROPELEAN JOAN ETA AHALIK ETA GEHIEN AGUANTATZEA DA NIRE HELBURU NAGUSIA"



JULEN OLAIZOLA

Txapel barik itzuli dira pilotariak

Julen Olaizolak gazte mailako finala 22-13 galdu zuen Arkaitz Eskuza laudiarraren aurka. Partidu zaila zuen aramaioarrak; izan ere, aurrean maila handiko pilotaria zuen. Hala ere, Olaizola irabazten hasi zen, eta ondo jokatu zuen, gainera -6-13-.

22 urtez azpikoaren kategorian, Asier del Campok 22-19 galdu zuen Eneko Gonzalez amurriarraren aurka. Partidu parekatua izan zen, eta aramaioarra gustura geratu zen egindako lanarekin. Uztailaren 29an Gasteizko jaietako binakakoan parte hartuko du.



ARAMAIOKO UDALA

Selekzioarekin lehiatu da

Nahia Garcia Bidaburu -kasko zuria duena- txirrindulari gazteak eskolarteko eta gazte mailako Espainiako txapelketan parte hartu zuen aurreko aste bukaeran, Madril. Aramaioarra Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen, infantil mailan. Lan ona eginda, hamabigarren postua eskuratu zuen Garciak. 36 txirrindulari joan ziren selekzioarekin; horietatik lau, infantil mailakoak.

Andramaixen ordez, hainbat kultur ekitaldi

Kontzertuak, magia, jolas tradizionalak eta txirrindularitza lasterketa egitea erabaki du Udalak, abuztuaren 14tik 16ra bitartean, andramaixak ospatuko ez direnez, herriari bizitasuna emateko; gazte mugimenduak Basaben karpa bat jartzea proposatu du

Hasier Larrea ARETXABALETA

Bigarren urtez jarraian, andramaixarik ez da izango Aretxabaletan; bai, ordea, Abuztu Kulturalean, Udalak aste honetan aditza eman duenez. Unai Elkoro alkateak, Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak, Inma Miguel teknikariak eta UDAko ordezkari Gorka Etxabek eman dute egitarauaren berri, eta, ezeren gainera, edozein unetan eta egoeratan "arduraz, zentzuz eta zuhurtziaz" jokatzeko mezua zabaldu dute.

Hori esanda, musikari tarte zabala eskainiko dio aurtengo kartelak, Herriko Plazako oholtzara igoko baitira Habana Vieja taldea, bluesa eta rocka jotzen duen Donostiako Noa & The Hell Drinkers taldea, Golden Apple Quartet laukote ezaguna, Arantza eta Pantxo eta Milagroko udal musika banda.

Bestalde, familia giroan ikusteko magia ikuskizunez ere gozatzeko aukera egongo da Kurtzebarri eskolako kantxan: Erre



Inma Miguel, Unai Elkoro, Ainhoa Cabero eta Gorka Etxabe, kartelarekin. GOIENA

Produkzioak konpainiak *MAGIklown* ikuskizuna eta Eriz magoak aho zabalik uzteko moduko saioa eskainiko dute.

Azkenik, haurrei eta nerabeei zuzendutako bi ekintza programatu dituzte: batetik, dantza

URTE OSOAN BEZALA, ABUZTUAN ERE "ERANTZUN ONA" ESPERO DUTE HERRITARRENGANDIK

–breakdancea, hip-hop– eta musika –rapa– uztartuko dituen *Kalea bizi* izeneko ikuskizuna; eta, bestetik, jolas tradizionalak eta herri kirolak nahastu dituen joko sorta, *Kulki* izenpean.

Lasterketa, Araba ibilbidetik

Aurtengo egitarauaren berrikuntza nagusia txirrindulari lasterketa izango da, iaz ezin izan baitzuten antolatatu. Hori horrela, Leintz bailarako 82. txirrindulari lasterketa antolatuko du UDAk abuztuaren 16rako. Ziklistek 43,3 kilometroko ibilbidea beteko dute; berezitasun bezala, lasterketaren hasiera eta helmuga Araba ibilbidean jarriko dute kirol elkarteok.

Txosnak, ez; karpa, "agian, bai"

Herriko musika talde eta eragileei euren plaza eskaini nahi die Aretxabaleako gazte mugimenduak. Udalean karpa-gunea jartzeko proposamena aurkeztu zuen eguaztenean, eta gaur aztertuko dute aukera hori Udaleko ordezkariak, Aitor Ruiz de Austri gazte mugimenduko ki-deak azaldu duenez. "Oraindik egitaraua airean" dutela dio, baina aurreratu du karpa jartzen bada, ekitaldietarako bakarrik egongo dela irekita.

Jaiak, "oraindik ez"

Andramaixak normaltasunez ospatzeko "berme nahikorik" ez dagoela-eta, administrazio gisa "arduraz jokatzeko eta herritar

Egitarauaren ordutegia

Abuztuak 14

- Habana Vieja, Herriko Plazan, 13:00etan.
- Noa & The Hell Drinkers, Herriko Plazan, 20:00etan.
- 'MAGIklown', Kurtzebarri eskolan, 18:00etan.
- 'Kalea bizi', Arlutzeko kantxan, 18:30ean.

Abuztuak 15

- Milagroko banda, Herriko Plazan, 13:00etan.
- Golden Apple Quartet, Herriko Plazan, 20:00etan.
- Eriz Magoa, Kurtzebarri eskolan, 18:00etan.

Abuztuak 16

- Arantza eta Pantxoaren kontzertua, Herriko Plazan, 20:00etan.
- 'Kulki', Arlutzeko kantxan, 18:00etan.

guztien osasuna babestea" dagoela adierazi du Unai Elkoro alkateak. Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak aipatu du "orain arte bezala, abuztuaren herri-tarren erantzuna ona izatea" espero duela.

Zentzuz jokatzeko deia, azken bi asteetako ezbeharrak direla eta

Udalak gaitzetsi egin du Errekabarren kalean eta Markole auzoan bederatzi edukiontzi erre izana

H.L. ARETXABALETA

Uztailaren 11ko arratsaldean, Markole auzoan, hasiera batean, bi edukiontzik su hartu zuten, eta suhiltzaileak ahal bezain laster gerturatu ziren Oñatitik sugarrak itzaltzera. 16:10ean jaso zuten abisua, eta 17:30erako amatatu zuten sua; ordurako, bost edukiontzi zeuden guztiz kiskalita. Unai Elkoro alkatearen hitzetan, "norbaitek botatako petardo batek" eragin zuen ezbeharrak: "Eztanda bat entzun zen edukiontzien su hartu aurretik".



Markoleko edukiontziak, erreta. GOIENA

Joan den zapatatik domekarako gauean, berriz, beste lau edukiontzi erre zituzten, eta Oñatitik suhiltzaileak iritsi zirenerako kiskalita zeuden guztiak; inguruko bi zuhaitz ere kaltetu zituen suak. Ertzaintzak ez zuen gertaera hura zergatik jazo zen argitu.

"Denok ordaintzen dugu"

Bi sute horien harira, Elkorok haxe adierazi du: "Egunen batean desgraziaren bat gertatu eta orduan kezkatuko gara". Edozein modutan, edukiontzi berriak Mankomunitateak, "hau da, debagoiendarrak guztiok" eta sugarrek inguruan eragindako kalteak, berriz, Aretxabaleako Udalak ordaintzen dituela gogoratu du. Alkateak herritarrei ergelkeriarik ez egiteko eta zentzuz jokatzeko dei egin die.



IDOIA ELEXPURU

Ixadabalde: bigarren eguna gaur

Atzo ekin zioten Ixadabalde azokari bederatzi merkatarik –Asensio, Kilima, Titare, Tak, Haurrak, Amaia, Kiloka, Belar Meta eta Hankabeltz– eta gaur bukaera emango diote. Saltokien aurrealdean dituzte postuak –10:00-13:00 eta 16:30-20:00–, eta merkatutako jeneroa eskaintzen dabilta. Bukatu aurretik hainbat opari zozketatuko dituzte bezeroen artean.

Tubos-eko orubean 63 auto aparkatzeko lekua

Behin-behineko aparkalekua egokitu du Udalak herriaren serreran, Tubos lantegi zaharraren aurrealdean, eta gaurtik zabalik dago; Santa Kurtz kaleko saneamendu eta hornidura sarea berritzeko lanengatik kenduko direnak ordezkatzeko dituzte

Mirari Altube ARETXABAETA

Tubos lantegia zegoen orubean aldi baterako aparkalekua egokitze lanak egin ditu Udalak azken bi asteetan. Ortuzal enpresa da lursailaren jabea eta Udalari utzi dio 63 ibilgailurendako aparkalekua kokatzeko. Eta gaurtik aparka daiteke bertan.

Udalak bere gain hartu du egokitze-lanen kostua, eta Excavaciones Arrasate enpresari esleitu zizkion 42.000 euroren truke -BEZa barne-. Sastrakak kendu dituzte eta lursaila garbitu, eta ondoren geruza oso batekin bete. Aurrerago galibo-kontrol bat jarriko dutela adierazi du Udalak, autokarabanak sartzea eta aparkalekua egunetan okupatzea saihesteko; horrela, ibilgailuak txandakatzaren joan daitezten. Horrez gain, gauzez argiztatze fokuak jarriko dituzte.

Santa Kurtz kaleko eta haren inguruetakoa ur hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanen barruan dago aparkalekuaren egokitzapena. Hainbat aparkaleku kenduko dira lanok egin bitartean inguru horretan, eta galera hori konpentsatu gura dute Tuboseko orubean jarritakoarekin. Lan horiek udazkera arte ez dira hasiko, baina



Tubos lantegi zaharraren orubea, aparkaleku izateko gertatzen. MIRARI ALTUBE

Udalak erabaki du aparkaleku berria dagoeneko zabaltzea.

Kurtzebarriko lanak, hasita

Bestetik, hasi dituzte Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako guneak eraberritzeko lanak. Goitu Eraikuntzak enpresari eman dio horien ardura Udalak, 232.397 eurotan -proiektuak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasoko du-.

1 eta 2 urteko ikasleen langetako irisgarritasuna hobetzeko eskailerak eraitsiko dituzte, eta arrapala bat jarri. Gela

horiek zoru erradiatzailea izango dute. Bestalde, 3 eta 4 urte bitarteko ikasleen hiru gelak eta psikomotrizitate gela ere eraberrituko dituzte, baita bi komun berri egokitu ere. Horiez gain, leiho guztiak berrituko dituzte isolamendu termikoa hobetzeko, baita ateak, instalazio elektrikoak eta berokuntza sistema ere.

Hiru hilabete beharko dituzte lanok bukatzeko; hortaz, ikasturte berriko lehen hilabeteetan ikasle batzuk Arkupera joango dira eskolak jasotzera.



Gaztetxo talde bat kamiseta margotu berriekin. LORATU

Udaleku irekiei agur esango diete gaur, jai giroa sortuta

Loratuko kideak pozik daude hiru asteotako jardunarekin, eta hezitzaileek egindako "lan ona" nabarmendu dute

M.A. ARETXABAETA

Hiru asteotako jardunari bukaera emango diote gaur udaleku irekietako kideek. Ekintza mordoa egin dituztela eta aparteko giroa sortu dela adierazi dute koordinatzaileek, Loratuko kideek, eta hori borobilduko dute gaur: Haur Hezkuntzakoek antzezlan motzak eta dantzak egingo dituzte eta Lehen Hezkuntzakoek musikarekin jolasean jardungo dute, Jon Ander Alberdi DJak lagun eginda.

Lan "ona, baina gogorra"

Loratuko kideak pozik daude udalekuetan egin den lanarekin, baina "oso gogorra" izan dela onartu dute. Lehen bi asteetan eguraldiak ez zien "askorik lagundu"; hala ere, asmatu zuten horri aurre egiten, Julen Peralesek eta Maialen Mendietak diotenez: "Aterpeak topatu genituen kiroldegian, udaletxe zaha-

rrean eta gaztelekuan, esaterako, eta espazio itxietara egokitu genituen ekintzak, prebentzio neurriak zainduta beti". Gainerakoan, ginkanak, olinpiadak eta bestelako jarduerak asko egin dituzte: "Ekintza politak izan dira eta umeak pozik ibili dira".

Azken astean hainbat positibo izan dira begiraleen artean eta horrek antolakuntza lanak zaildu dizkiete: "Talde batzuk hankamotz geratu dira eta koordinatzaileok ibili gara hezitzaile lanetan, hutsuneak betetzeko". Eta gaineratu dute: "Hezitzaileen lana nabarmendu gura dugu, hamaikakoa izan da. Egoerara moldatzen asmatu dute, eta bikain erantzun. Umeek ez dituzte igarri izan ditugun gorabeheratxoak". Hala, hezitzaile horiei guztiei zein gurasoei eskerrak eman gura izan dizkiete Peralesek eta Mendietak: "Gugan izan duten konfiantzagatik".

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Asteheneratik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55



Karmele Uribarri eta Javier Mar, osasun etxe berria izango den eraikinaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

Egungo osasun etxea agurtu eta berria abiarazi

40 urte beteko ditu datorren urteko abenduan osasun etxeak, eta bere ibilbideari agur esatear egongo da orduan. Haren lehen pausoak ezagutu zituen Javier Mar medikuak, eta orain, berria abian jartzeko lanetan dihardu

Mirari Altube ARETXABALETA

Osasun etxe berria oraingotik metro gutxi batzuetara egongo da, Errekabarren kalean bertan –Urats Gain adinekoen egoitza zaharrean–. Udalaren eraikina izanik, Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko prozeduraren lehen pausoak eman ditu, udalbatzak aho batez onartuta, eta, ondo bidean, irailean haren eskuetan utziko dute lanak has daitezten. Horiek hasi bitartean, beste zeregina batzuetan murgilduta daude Debagoieneko ESiko zein Udaleko kideak; horien artean, Karmele Uribarri eta Javier Mar zinegotziak. Azken hori, hain zuzen ere, gaur egungo osasun etxe lehen mediku etako bat izan zen.

Mediku gaztea koordinatzaile

1982aren aurretik anbulatorioa zegoen Aretxabaletan, Herriko Plazan kokatutako udaletxearen beheko partean, hain zuzen ere. Kontsultategi txiki bat zen eta goiko partean medikuaren bizi-

tokia zegoen, Luis Orruñorena azken urteetan. Osasun etxea Errekabarren kaleko etxebizitzan aterpean zabaldu zuten, 1982ko abenduan, eta zabaltearekin batera iritsi zen Javier Mar durangarra, 1983eko urtarrilean. "Gasteizen egin nuen familia medikuntza erresidentzia eta Aretxabaletako plaza sortu zenean bertara aurkeztu nintzen, herria ezagutu ere egin barik".

Debagoieneko Ospitalean dihardu azken 25 urteetan eta erretiroa hartzeko urte eta erdi inguru geratzen zaio. Baina ondo gogoan ditu lehen urteak: "27 urte nituen, oso gaztea nintzen, eta koordinatzaile ardura eman zidaten; pentsa, ni baino nagusiagoak koordinatu behar!". Hala ere, lantalde bat sortu izana gustura hartu zutela uste du: "Osasun etxea sortu aurretik ez zegoen lantalderik, bakoitzak bere kasa egiten zuen lan: praktikanteak, batetik; medikuak, bestetik... Eta eskertu egin zuten talde bat sortu izana".

Aretxabaleta eta Eskoriatza artean lau mediku eta lau erizain zeuden sasoi hartan; erizain horietako bi emaginak ziren. "Eskoriatzan pasatzen nuen nik kontsulta, hango medikuari lagun eginaz, baina larrialdiak eta txandak bi herrietan egiten nituen. Lanean hasi nintzen lehen astean, Aratusteen bueltan, izugarritzko elurtea egin zuen; nik ez dut gogoan beste halakorik! Baserrietatik Land Roverrarekin jaitsi behar izan zuten hainbat egunetan nire bila". Sasoi hartan, etxetara asko joaten ziren gaitxoak artatzera, eta kale guztien izenak ikasi behar izaten ziren: "Ez zegoen oraingo GPSrik eta eskuko telefonorik... *Buska* bat izaten genuen eta han abisua

1982KO ABENDUAN IREKI ZUTEN OSASUN ETXEA ETA JAVIER MAR URTARRILEAN IRITSI ZEN

jasotakoan ospitalera deitzen genuen, nora joan jakiteko. Orduantxe ikasi nuen zer zen benetako lehen arreta".

Pertsonentzako zerbitzuak

Aretxabaletako biztanleria hazten joan da 40 urtean, eta Osakidetza eskaintzen dituen zerbitzuak ere bai; eraikina, ostera, txiki geratu da eta hainbat zerbitzu herriko beste lokal batzuetan eman beharrean izan dira. Emaginaren haurdunaldi saioak, esaterako. "Profesionalek ondo lan egin dezaten behar diren bitartekoetan inbertitzea merezi du, zerbitzurik onena eskaintzeko gero herritarrei", dio Marrek, eta, penaz agurtuko badu ere eraikin zaharra, berria ikusteko "gogotsu" dago.

Iazko uztailean deitu zuen proiektua idazteko lehiaketa Jaurlaritzak eta han zehaztu zituen eraikinaren ezaugarriak: 1.700 metro koadro lau solairutan banatuta, horietatik 1.250 metro koadro erabilgarri honako hauek hartzeko: medikuntza orokorreko bost kontsulta, beste horrenbeste erizain gela eta pediatraren kontsulta; odola ateratzeko, sendaketak egiteko eta beste proba batzuetarako gunea, baita larrialdietako ere; eta ginekologia gunea. Teilatuean, ostera, Udaleko Gizarte Zerbitzuei egingo diete lekua.

Proiektua, baina, ez da eraikin berrira mugatzen, Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarri dioen legez: "Pertsonen bideratutako zerbitzu guztiak eraikin berean egongo dira eta arreta integrala ematea da helburua; proiektu aitzindaria izango da". Dagoeneko hasita daude elkarlan hori lantzen Debagoieneko ESiko langileekin: "Ez da samurra izango. Zerbitzu bat Jaurlaritzarena da, bestea Udalarena, eta hor trabak sortuko dira, baina kontu txikietatik abiatuta lortuko dugu. Eta izan daiteke eredu beste zentro soziosanitario batzuetarako". Elkarlanean jarduteko hiru multzo zehaztu dituzte: mendekotasun egoeran daudenak, pertsona zaurgarriak eta kanpaina komunitarioak –substantzien kontsumoa prebenitzeko...–.

Eraikin berriaren irekiera datarik ez dute aurreratu gura izan, baina ordurako elkarlan protokolo bat zehaztuta izan gurako lukete, lanari buru-belarri ekiteko.

Malas Compañías zirkuko taldeak 'Prozak' lana eskainiko du

Uztaileko kale antzerki sortari amaiera ematera etorriko da 12 urtetik gorako ibilbidea duen Malas Compañías talde ezaguna eguaztenean, hilaren 28an, Kurtezbarri eskolako kantxara.

Tristurari eta arazoei aurre egiteko barrea eta emozioa proposatuko dituzte erremedio, eta batere ohikoa ez den familia baten parte izatera gonbidatu dituzte ikusleak. Bazterketaren eta estigmatizazioaren kontrako begirada proposatuko dute, ikusle bera ere ezberdin eta zoro sentiarazteko. Publiko ororendako ikuskizuna da eta zirkuko akrobaziek, objektuen manipulazioek eta beste hainbat jokok bat egingo dute umorearekin.

OHARRAK

Kiroldegia abuztuan

Abuztuaren 9tik 22ra itxita egongo da. Gainerako egunetako ordutegia: astelehenetik zapatuetara, 10:00-13:30 eta 16:30-20:00; eta domeketan, 09:00-14:00.

Liburutegia abuztuan

Abuztuaren 7tik 22ra itxita egongo da. Gainontzeko egunetako ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00.

KZgunea irailean

Goizez (09:00-13:00) egongo da irekita irailean, baina hitzordua hartu behar da: 943 02 36 14. Hainbat ikastaro daude; horiek kontsultatzeko: www.kzgunea.eus.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Gogoan dituzte urtegian hondoratu zirenak

1958ko uztailaren 25ean zortzi pertsona hil ziren, itota, Uribarri Ganboako urtegian. Horietatik sei eskoriatzarrak ziren, eta kolpe latza izan zen herriarentzat. Ezbehar hura gogoan, oroigarria berezia eta Eskoriatzako Udalak jarritako plaka dago Landan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Domekan, uztailaren 25ean, 63 urte beteko dira Uribarri Ganboako urtegian izandako tragedia handienetik. Izan ere, 1958ko uztailaren 25ean gazte talde bat zendu zen bertan, eta, guztira, zortzi gazte hil ziren, sei eskoriatzar eta bi eibartar. Bakarra irten zen bizirik.

Uribarri Ganboako urtegia 1958ko abuztuaren 25ean inauguratu zen ofizialki, nahiz eta aurretik martxan jarria izan Urrunaga edo Santa Engrazia urtegiaren ondoan. Hala, Santiago egunean, *Dorletako Ama* izena zuen txalupa batean zenbait lagun zeuden, eta eguraldia kaskartu egin zen; ontzia irauli, eta gazteak, uretara erori ondoren, itota hil ziren guztiak, bat izan ezik. Gazteak oso ezagunak ziren herrian, eta ezbeharra kolpe handia izan zen Eskoriatzarentzat, eta hemendik kanpo ere izan zuen oihartzuna.

Ezbeharraren gertakizuna

Uribarriko urtegian hildakoak, beste hainbat pertsona bezala, igeriketako erakustaldira joan ziren ezbeharra gertatu zen egunean. Zuhatzako irlan egon ostean, arratsaldean, bazkaldu ondoren, txaluparekin irten ziren buelta bat ematera, eta,



Hildakoen omenezko monumentua, Landan. GOIENA

'Eskoriatza bizirik' bonuak, abuztuaren 31ra arte erabilgarri

Kolore moreko bonuak gastatzeko epeak kontuan hartzeko eskaera egin du Eskoriatzako Udalak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza bizirik ekimenaren baitan Eskoriatzako Udalak COVID-19aren pandemiak eragindako kalte ekonomikoetara aurre egiteko tokiko kontsumoa sustatzeko ateratako bonuak –ko-

lore morea dutenak– abuztuaren 31ra arte erabili daitezke.

Aurten, *Eskoriatza bizirik* kanpainak bi bonu mota izan ditu: batetik, *Eskoriatza bizirik* bonuak –moreak–, osasun eta estetika zentroetan, merkatarit-

tzan eta ostalaritzan erabiltzeko bonuak –iazko bonuak bezalakoak–; eta, bestetik, *Ostalaritzako bonuak* –zuriak–, eskusiboki ostalaritzan erabiltzekoak. Bigarren hauek, *Ostalaritzako bonuak*, abuztuaren 31ra arte erabili daitezke; hau da, urtea amaitu arte. Baina *Eskoriatza bizirik* bonuak abuztuaren 31n iraungiko dira; beraz, bonu horiek dituztenei adi egoteko eskatu die Eskoriatzako Udalak, eta egun hori baino lehenago gastatzeko.

Kanpainako establezimenduak hauek dira: Erai osteopatia eta Gahir fisioterapia, Apaindu, Edurne, Ixkur, Kimu, King Marga, Kiribil, Kuttuna, Pauxa, Villar estetika zentroak; Adam eta Aloña fruta-dendak, Coviran, eta Altuna eta Pagalday harategiak; Carmen mertzeria, Dorleta liburu-denda, Hada Multiprecio, Namaste eta Oreka. Ostalariak: Akeita, Benta Motz, Compostela, Goxo txiki, Ilargi, Inkernu, Maulanda, Mirentxu, Naira, Txalaparta eta Urrestilla.



Istripuan hildako gazteen hileta-oroigarria. ESKORIATZAKO ARTXIBOA

Istripuan hildako gazteak

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Antoni Uribetxebarria, Maria Luisa Zubizarreta, Carmen Iregi eta Eduardo Iregi. Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Maritxu Badiola, Maria Luisa Viteri, Nieves Lazpiur eta Julita Etxebarria.

seiak aldera, ekaitz bortitza hasi zen, tximistekin eta trumoiekin batera. Hala, irauli egin zen txalupa, eta Jose Maria Etxebarria izan zen bizirik irten zen bakarra. Historia ahaztezina da; Gasteiz eta Landa arteko errepidean dagoen harrizko itsasontzi baten gainean dagoen monolito batek tragedia eta hil zirenen izenak gogoratzen ditu.

Ohitura handia dago Eskoriatzatik eta bailarako beste zenbait herritatik Landara, Uribarrira eta Garaioara joateko, batez ere, uda garaian, bainua hartzera. Horrekin batera, ur-kirolak egiteko leku aproposak dira, baina kontu handia izan behar da. Izan ere, Uribarri Ganboan hirurogeita hamar pertsona baino gehiago ito dira sei hamarkadatan; gehienak, bainulariak eta egun-pasa joandako nabigatzaileak.

Urtegiaren inaugurazioa

Urtegiaren eraikuntzari dago-kionez, Francoren irudiarekin lotu izan da, baina ez zen hala izan. Nahiz eta diktadoreak 1958ko abuztuaren 25ean inauguratu zuen presa, zazpi minutu eskaseko ekitaldi batean. Urtegia egiteko ideia hogeita hamar urte lehenago sortu zen, 1926an. Manuel Uribe-Etxebarria bilbotar ingeniariak, Bizkaiko industria gero eta handiagoa zenez, eta elektrizitate gabeziari erantzuteko, Uribarri Ganboako orografia eta hidrografia bikainari erreparatu zion.

URIBARRIN GERTATUTAKO EZBEHARRA KOLPE HANDIA IZAN ZEN HERRIARENTZAT

OHARRAK

Kontzertu barik

The Clayton taldearen gaurko kontzertua bertan behera geratu da.

Udalekuak, bukatuta

Gaur eman diote amaiera Eskoriatzako udaleku irekiei.

Udaero programa

Gaur amaitu dute nerabeentzako aisialdi programa.



Conrado Encina, Eskoriatza-Alcanadre klasikoko zenbait unetan. GOIENA



Eskoriatza-Alcanadre klasikoa, oroimenean

Conrado Encinaren heriotzak samina eragin die herritar askori. Martitzenean egin zen hileta-elizkizuna, eta hunkigarria izan zen. Eskoriatza-Alcanadre klasikoaren zutabe garrantzitsuena bera izan zen, eta askok izango dituzte gogoan orduko istorioak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Astelehenean hil zen Conrado Encina eskoriatzarra, 79 urtekin. Herrian ardoa banatzea-gatik zen ezaguna, eta lagunartean hasi eta oso popular bihurtu zen Eskoriatza-Alcanadre klasikoaren sortzailea izan zen. Bere izaeragatik igarriko dute askok haren falta, baina txirrindularitza proba horren edizio guztietan gertatu ziren istorioengatik eta egindako egun-pasa ederrengatik ere izango da oroitua beste zenbaitengandik. Oso maitatua zela ere argi geratu zen martitzeneko hileta-elizkizunean.

Urte luzez egin zen Eskoriatzatik irtenda Alcanadrerainoko (Errioxa) proba. Bizikletan joaten ziren zenbait lagun, eta bere anaien upategian egiten zen bazkaria lehen urteetan. "Edizio jendetsuenetan, baina, herriko taberna batek eramaten zuen zinema aretoan egiten genuen bazkaria. Hasieran, lagunarteko zerbaitekin, hamar lagun

inguru joaten ziren, eta gero, klasikoa hamar urtez-edo egin zen. Ondoren, Eskoriatzako eta Oñatiko lagun gutxi batzuekin egiten genuen, orduko kuadrillakoekin. Gogoan dut edizio batean 49 lagun joan ginela bizikletan eta beste 50 lagun inguru autoz. Parte-hartzaile guztientzat sariak lortzen saiatzen zen Conrado, eta Guardia Zibilak bidegurutzeak zaintzen zituen Alcanadren. Sekulakoa izaten zen, Espainiako Bira ematen zuen...", dio Goio Uribek, Conrado Encinaren lagunak.

Erakusketan protagonista

2018an, *Eskoriatza eta txirrindularitza* izeneko erakusketa jarri zuten Ibarraundi museoa,

ESKORIATZA-ALCANADRE KLASIKOAREN SORTZAILEA IZAN ZEN CONRADO ENCINA

eta garai batean txirrindularitzan ibilitako eskoriatzarren argazkiak izan ziren ikusgai. Eskoriatza-Alcanadre klasikoko unek ere izan zuen bere lekua. Benito Belokiren argazki batekin hasten zen erakusketa, 1896. urtean egurrezko bizikleta egin baitzuen, aldapan behera jais-teko bakarrik balio zuena. 80ko hamarkadako argazki mordoxka ere jarri zituzten, Eskoriatza-Alcanadre klasikoaren hainbat ediziotakoak. Txirrindularitzan nabarmendu diren gizon eta emakume eskoriatzarrei protagonismoa ere eman zitzaizen erakusketan, eta erakusketa ez zen argazkietara soilik mugatu, garai bateko eta gaur egungo maillotak edota bizikleta benetan ikusgarriak ere jarri zituzten. Erakusketaren argazki batean Conrado Encina bete-betean agertzen zen Eskoriatza-Alcanadre klasikoko proba batean, eta bertan egiten zituzten bazkarietako erretratuak ere jarri zituzten paneletan.

Luis Ezeiza herri eskolako teilatuko lanak ari dira egiten

Joan den astean hasi ziren lanekin, eta ikasturte berria hasi aurretik amaituta izatea aurreikusten dute

I.B. ESKORIATZA

Martxoko osoko bilkuran udalbatzako kideek onartu zuten moduan, Luis Ezeiza herri eskolako lanak egiten hasi dira. Eskolako teilatua isolamendu arazoak ditu, eta euria egiten duenean ur filtrazioak izaten dira goiko solairuan. Hori horrela, lanak hasi zituzten joan den astean, eta, uztaila eta abuztua bitartean, ikasturte berria hasi aurretik lanak amaituta izatea aurreikusten dute. Aldamioa eta segurtasuna bermatzeko sarea jarrita dute bertan ari diren langileek.

Zebra-bide berria

Aurrera begira, eskolatik irten eta Gorosarri plazako autobus geltokira doazenen haurrentzat, batez ere, zebra-bidea jarri nahi du Eskoriatzako Udalak, horien segurtasuna bermatzeko. Irisgarritasun planean jasota dagoen proiektu honek, gainera, ez die bakarrik eskolako haurrei eragingo. Kulunka haurtzaindegi-koentzat, Joseba Iñurrategi pilotalekuko erabiltzaileentzat eta Santa Ana auzoko bizilagunentzat ere segurtasuna bermatze aldera egingo diren lanak izango dira.



Herri eskolako eraikinean aldamia eta segurtasuna bermatzeko sarea jarrita. I.B.

Errekan Gora: kontzertuen egunak eta lekuak, zehaztuta

Irailaren 17ko, 18ko eta 19ko asteburuan egingo dira kontzertuak herriko hainbat txokotan

I.B. ESKORIATZA

Uztaileko asteburuetan egin beharrean asteburu bakarrera mugatuko du Atxorrotx Kultur Elkarteak aurtengo Errekan Gora jaialdia. Hain zuzen ere, iraileko hirugarren asteburuan izango dira kontzertuak. Antolatzaileek, batez ere, blues eta rock estiloak uztartzen dituzten taldeen aldeko apustua egin dute hamahirugarren edizio honetan.

Antolatzaileek zein talde egongo diren ez dute aurreratu nahi izan, baina honako leku eta ordutegi hauetan izango direla

jakinarazi dute: irailaren 17an, egubakoitzean, kontzertu bakarra izango da, Herriko Plazan, 22:30ean. Irailaren 18an, zapatuan, berriz, hiru emanaldi izango dira: 13:00etan, herriko plazan; 19:00etan, herriko kaleetan zehar arituko da talde bat, eta 22:30ean, Gernika plazan izango da emanaldi bat. Irailaren 18an, domekan, aldiz, herrigunetik kanpo, zehaztu barik duten leku batean eskainiko dute kontzertu bat, 13:00etan, eta 19:00etan izango da azken emanaldia, Herriko Plazan.



Atxorrotx mendian gora, eta urrunera Gurutze Santuaren ermita. IMANOL BELOKI

Mendi ibilaldiak, udarako proposamenen artean

Eskoriatzan, bisita gidatu formatuan, Zubiate labera bisita da aukera bakarra aurtengo udako oporraldian, eta, horretarako, izena eman beharko da, museoan. Gatzagan, aldiz, Dorleta Santutegira eta Gatz Museora bisitak dira dauden aukerak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Uztailean eta abuztuan turismo eskaintza zabala izango da Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan. Ohiko mendi ibilaldiak eta Zubiate labera bisita dira azpimarragarrienak Eskoriatzan, eta Gatz Museora eta Dorleta Santutegira bisitak, berriz, Gatzagan.

Eskoriatzan, betiko mendi bideez gain, Zubiate labera bisita egiteko aukera dago, baina, horretarako, alde aurretik izena eman beharko da, 943 71 54 53 telefono zenbakira deituta edo Ibarraundi@eskoriatza.eus helbidera idatzita. Horrekin batera, aurtengo oporraldian ez da egongo Mankomunitatetik bideratutako Ezkutuko Altxorrek deritzon programako bisitarik, eta ezta Ibarraundi museo bera ere bisitatzerik. Gatzagan, museoan eta Dorleta Santutegian bisita gidatuak egingo dituzte uztailean eta abuztuan. Eguaztenetik domekara arteko egunetan, biak barne, egongo da aukera bisita egiteko: 12:00etan eta

13:00etan. Bisita gidatua egiteko, interesdunek alde aurretik erreserbak egin beharko dituzte. Horretarako, 943 71 47 92 telefono zenbakira deitu daiteke edo mezu bat bidali reservas@gatzmuseoa.com helbidera.

Obrak udaletxean

Eskoriatzako udaletxeko harreagunean zerbitzu guztiak batzeko lanak egingo dituzte uztail amaieran. Lanak astelehenean hasteko asmoa dute; beraz, uztailaren 26tik aurrera, Eskoriatzako udal zerbitzuak Ibarraundi museoan emango dira udal txeko ohiko ordutegian: 09:00etatik 14:30era uztailean eta 09:30etik 13:00etara abuztuan.

IBARRAUNDI MUSEOAN EZ DA BISITA GIDATURIK EGINGO AURTENGO OPORRALDIAN

Mendi ibilaldi proposamenak

Eskolore, betiko bideak izenpean ere hainbat proposamen egin ditu Eskoriatzako Udalak, nahi duenak egiteko. *Latabide, Mandobide* eta *Trenbide* izenpean, Eskoriatzako zenbait elizateetan egin daitezkeen ibilbideak daude, eta horietan ikusi daitezkeen eraikinak edo istorioak batzen dituzten triptikoak jarri dituzte udal webgunean. Kasu honetan, proposamen hauek nork bere kabuz egiteko dira, baina, taldea osatuz gero eta Ibarraundi museoarekin adostuta, bisita gidatu moduan egin daitezkeela ere jakinarazi dute.

Hiru proposamen hauez gain, *Enekoren gazteluko ibilbidea* ere bada Eskoriatzako turismo eskaintzaren barruan dagoen beste aukera bat. Eskoriatza, Atxorrotx eta Gatzaga zeharkatuz 7,5 kilometroko bidea da, hain zuzen, eta kasu honetan ere triptikoa dago udal webgunean, ibilbideaz batera informazio historikoa duena.



ErNE taldearen kontzertua Areantzan. ENEKO AZURMENDI

Larru Beltzak eta ErNE taldeak ikusteko sarrerak geratzen dira

'Hemen gaz!' jaialdiaren barruko emanaldiak 19:00etan izango dira bihar, zapatua, Leintz Gatzagako plazan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Biharko, zapatua, *Hemen gaz!* izeneko jaialdia antolatu dute Leintz Gatzagan. Eguerdiko poteo musikatuaz batera 19:00etan, bi kontzertu izango dira. Sarrera doakoa da, baina izena eman beharko du nahi duenak. Horretarako, Doodle plataforma erabili da, eta *Goiena.eus* webguneako agendan dagoen estekaren bitartez ere eman daiteke izena. Antolatzaileen esanetan, edukiera 100 pertsonatara mugatu dute, eta, hain zuzen ere, oraindik lekua dagoela jakinarazi dute.

Punk-rocka nagusi

Sospechosos, Golpe de Estado, Banda Municipal, Papalagi, Antihumano eta CC627 taldeetan ibili izan diren musikariak 2019an batu, eta hala sortu zuten Oñatiko Larru Beltzak taldea. Horiek izango dira Gatzagako oholtza gainean, punk-rock ukituko kantua eskaintzen. Eurekin batera ErNE taldekoek ere eskainiko dute kontzertua. Besteak beste, Jose Ayudarte gitarra-jole eta Ibai Agirreurreta baxu-jole gatzagarrek osatzen dute taldea, eta etxean jotzeko gogoz daude.



LEIRE LEZETA

Gatzagan egun-pasa

Eskoriatzako Udaero aisialdi programako nerabeek Gatz Bidea egin zuten joan den egunean, eta Leintz Gatzagan pasa zuten eguna. Herrian zehar jolasean aritu ziren gazteak, eta argazkian ikusten den moduan, pilotalekuko boulder-gunean ere aritu ziren eskalatzen. Disfrutatu ostean, iluntzean Eskoriatzara jaitsi ziren.



Angiozar Tokiko Entitate Txiki izendatzeko prozesuko talde eragileko Ramon Loiti, Ainhoa Larranaga eta Unai Asurmendi. J. BEREZIARTUA

Angiozar burujabeagoa nahi bada, bizilagunen inplikazioa beharko dute

Tokiko Entitate Txiki izendapena jaso eta autogestiorako ahalmen handiagoa lortzeko asmoz lanean diharduen talde eragileak partaidetza prozesua abiatu du, Angiozarko bizilagunen "benetako iritzia" zein den jakiteko; oraingoz, espero baino inkesta gutxiago jaso dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

2020ko uztailean jarri zuen martxan Angiozar Bailarako Batzarrrak Tokiko Entitate Txiki izendapena jasotzeko prozesua. Estatus juridiko berri horrek "autogestiorako ahalmen handiagoa" emango lioke Angiozarri, baina ez luke udalerrri baten eskumen berberak izatea ekarriko: "Ez da udalerrri bihurtzea, baina entitate juridiko publiko bilakatu eta guk geuk gutxieneko eskuduntza batzuk Bergarako Udaletik deszentralizatzea ekarriko liguke".

Hori bai, bizilagunen "benetako iritzia" jaso nahi dute prozesua gidatzen ari diren talde eragileko kide Ainhoa Larrañagak, Garbiñe Elortzak, Ramon Loitik eta Unai Asurmendik, eta, horregatik, besteak beste, Siadeco enpresaren bitartez inkesta bat abiatu zuten angiozartarren

artean. Gaur, uztailek 23, amaitzen zaie epea bizilagunei inkestok betetzeko.

Bereziki, hiru abantaila

"Bailara berpiztea" da prozesuaren azken helburua, orain arte egin diren lanketek emaitza emankorrik eman ez dutela irizita, eta honela azaldu dute zer lortuko lukeen Angiozarrek izendapen hori jasoko balu. "Lehendabiziko abantaila eta inportanteena, burujabetza. Gai izango ginatke Eusko Jaurlaritzara, Gipuzkoako Foru Aldundira edota Udalera gure

URRIAN JARRAITU NAHI DUTE FORU ARAUA ALDATZEKO EZINBESTEKO PROZESUAREKIN

kabuz aurkezteko. Adibide bat: AHTaren obrak direla-eta gonbidatu moduan joan behar izaten dugu orain arte, eta nahi duguna da entitate moduan aurkeztea. Bigarren abantaila oso garrantzitsu bat seigarren kapitulua da; hau da, dirua. Inbertsioak egiteko eta eskatzeko aukera emango liguke. Eta, hirugarrenik, zerbitzuen deszentralizazioa ahalbidetuko luke Tokiko Entitate Txiki izateak, eta uste dugu egoera hori gaur egungo zentralizazioa baino egokiagoa litzatekeela", adierazi du talde eragileko kide Unai Asurmendik.

Foru araua aldatu beharra
Helburua lortzeko oztopo nagusia da Gipuzkoako 2/2003 foru araua. Arau horrek herrigune izateko gutxieneko 500 biztanleko kopurua ezartzen du, eta Angiozarren 300 pertsona daude

Inkestekin, "zapora gazi-goza"

Siadeco enpresaren bidez parte hartze prozesu bat abiatu dute, bizilagunen "benetako iritzia" jasotzeko. Prozesuaren barruan "bide eta urratsak egiten ari diren" hainbat eztabaida talde eta elkarrizketa egiten hasiak dira eta galdetegi bat ere prestatu dute, gaur arte bete daitekeena. "Prozesua abiatzea oso interesgarria izan da alderdi politikoen borondatea ezagutzeko, baina bereziki inportantea da benetan jakin ahal izango dugulako angiozartarrok benetan nahi dugun autogestio maila handiagoa lortzeko borrokan jarraitzea". Inkestak gaur arte bete daitezke, eta, beraz, emaitzen azken daturik ezin da jakin oraindik. Hala ere, talde eragileko Ainhoa Larrañagak eguazten arratsaldean egindako azken kontaketa arabera, 90 inkesta inguru jaso dituzte. "Ez dakigu azken kopurua zein izango den, baina zapora gazi-goza geratzen zaigu. Siadecok 270 inkesta jasotzea lagin esanguratsua lortzea izango zela esan zigun, baina aitortu digute 16 urtetik gorakoendako inkestak izanik lagin esanguratsu hori txikiagoa izango dela. Halere, zapora gazi-goza geratu zaigu", adierazi du Larrañagak. Inkestak "mamitsuak" izanik, hainbat bizilagunen artean zalantzak sortu direla uste dute. Irailean espero dute "indarberrituta" itzuli eta angiozartarren benetako nahia zein den jakiteko beste saiakera bat egitea.

errolatuta. Lanketa horrek urrian jarraituko du Batzar Nagusietan, Asurmendiren arabera. "Prozesuak bi azpiprozesu ditu: batetik, eztabaida politikoa dago; burujabetzarako bide horretan tokiko entitate izendapena jasotzen ez badugu ere, deszentralizatorako beste aukera batzuk eman ahal dizkiguten figurak ere ari gara arakaten, eta, horretarako, abokatu batekin gabilta. Gaur egun, gaia Batzar Nagusietan dago, foru arauaren aldaketa proposamena egin genuenetik; lanketa horrek urrian jarraituko du. Beste azpiprozesua da Angiozarren abiatu dugun partaidetza-prozesua".

"Borrokatzuz gero, lortuko dugu"

Talde eragileko kideak sinistuta daude izendapena jasotzea ona litzatekeela Angiozarrentzat, baina baita Bergararentzat ere. Harago joanda, Gipuzkoan antzeko egoeran dauden beste herriguneekin "mugimendu bat" sortu nahi dute. "Igeldorekin, Itziarrekin, Ereñotzurrekin, Ezkio-Itsasorekin... Antzeko izaera eta demanda dutenekin mugimendu bat sortu behar dugu, aldarrikapena ez dadin Angiozarrerera mugatu", uste du Ainhoa

BIZILAGUNEK GAUR ARTE BETE AHALKO DITUZTE SIADeco ENPRESAK PRESTATU DITUEN INKESTAK

Larrañagak. Euren aldarrikapenei etorkizunik ikusten dioten galdetuta, honako hau dio Larrañagak: "Uste dut borrokatzen jarraitzen badugu lortuko dugula, badut esperantza".

Ezin dute gehiago itxaron

Gaur egungo Bergarako Udal Gobernuarekin harremana "oso ona" izan arren, ez dute nahi zain egon: "Uste dut ulertzen gaituztela. Baina hitzak eta ekin-tza ez dira gauza bera eta horregatik erabaki dugu gehiago ez itxarotea. Juridikoki ondo argudiatua dagoen partaidetza prozesuak eta abokatuarekin landu dugun txosten teknikoak, juridikoa eta ekonomikoa onak dira Angiozarrentzat eta Bergararentzat", uste du Asurmendik.

Udal Gobernuak adierazi du beste administrazio baten tramitazioaren arabera abiatuko dutela ekinbidea, Angiozarrek bere kabuz egin beharreko bide bat dela ulertuta; Gipuzkoako 2/2003 foru araua aldatzea lortzen bada berba egingo dutela.

Itziar eta Ereñotzu adibide

Angiozarrek duela urtebete abiatutako prozesuaren helburua lortu eta Tokiko Entitate Txiki izendapena lortuko balu, Gipuzkoako 89 udalerrien artean atzetik hasita hamabigarrena litzateke, biztanleriari erreparatuta. Gaur-gaurkoz, Itziar eta Ereñotzu dira, Gipuzkoan, Angiozarrek nahi duen estatus juridikoa duten bakarrak.



Asteleheneko osoko bilkuraren une bat. ANDER MONEDERO

Eraldaketa sozialerako bideari ekin nahi diote

"Bergarako herri proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko" hitzarmena onartu du Udalak, MUrekin, Debagoiena 2030 ekimenarekin, Lankirekin eta Olatukoop-ekin elkarlanean eta Aldundiaren dirulaguntzarekin; EAJk prozedura arazoak salatu zituen, beste behin

Jokin Bereziartua BERGARA

"Bergarako herri proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko" elkarlan hitzarmena onartu zuen udalbatzak astelehenean. Bergarako erronkei "eraldaketa sozialetik eta garapen jasangarritik" erantzuteko helburu orokorra du akordioak. Udalaren, Mondragon Unibertsitatearen, Debagoiena 2030 ekimenaren, Lanki ikertegiaren eta Olatukoop ekonomia sozial eta eraldatzailea sustatzeko sarearen artean adostutako akordioa da. "Eraldaketa sozialarekin eta garapen jasangarriarekin lotutako ekimena da, herriko erronkei ikuspegi horretatik erantzun nahi diena. Debagoiena 2030 ekimenaren markoan kokatzen dugu", adierazi zuen EH Bilduren Udal Gobernuako bozeramaile Nagore Iñurrategik.

Aurkezpen publikoa, irailean

Irailean egingo dute proiektuaren xehetasunen berri emateko aurkezpen publikoa, baina, asteleheneko bilkuran aurreratu zuten, ekimen pilotu moduan abiatu nahi dute Bergaran. Baina zergatik Bergaran? Honela azaldu du testuingurua Iñurrategik: "Une baten gurutzatu egin direlako hainbat aldagai. Badaude herritik sortu diren hainbat proiektu txiki eraldaketa soziala helburu dutenak eta, era berean, sortu da nahi bat Udaltetik Debagoiena 2030 sarearen

barruan ere bagaudelako. Borondatea dugu etorkizun jasangarriago batera begirako urratsak egiteko; horregatik, uste dugu berri oso ona dela Bergararendako, urrats garrantzitsuak egin daitezkeela uste dugu eta. Gainera, badugu babes, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektua izango delako". Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna eraikiz* programaren barruan kokatuko litzateke proiektua.

EAJ eta PSE-EE, abstenitu

Iñurrategik aipatzen duen babes hori, baina, ez zen udalbatzan islatu. Izan ere, EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin ziren; jeltzaleek hitza hartu zuten euren botoaren norabidea azaltzeko, eta, beste behin, prozedura arazoak salatu zituzten. Jeltzaleek salatu zuten EH Bilduren Udal Gobernuak ez diela hitzarmenean ekarpenik egiteko aukerarik eman. "Hitzarmena lantzeko ez dugu denborarik izan; gai guztiekin gertatzen da. Prozedura ez dute zaintzen; batzordeak jakinarazteko baliatzen dituzte, ez lanketarako. Gogo-

'ETORKIZUNA ERAIKIZ' PROGRAMAREN BIDEZ LAGUNDUKO DU EKIMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK

ratu behar dugu 80.000 euroko inbertsioa ekarriko duen hitzarmena dela, hamasei hilabete banatuko direnak. Ez dugu esaten proiektuaren alde edo kontra gaudela, baizik eta ez digutela lanketarako aukerarik eman. Ze kostu erreal dauka proiektu hau garatzeak? Aldundiaren laguntzarik gabe garatzeko aukera dagoela jasotzen da hitzarmenean; hortaz, Aldundiak laguntza bideratuko balu, norako izango litzateke diru hori?", galdegin zuen EAJko eledun Maite Agirrek. EH Bilduk EAJ-ri erantzun zion esanez benetan lanerako borondatea dutenekin lan egiteko gertu daudela.

Aranberriren dedikazioa

Beste erabaki batzuen barruan, udalbatzak onartu zuen Ekaitz Aranberri zinegotziaren dedikazioa %35eko jardunetik %60ra pasatzea irailean 1etik aurrera, eta urteko soldata gordina 24.085 eurokoa izatea hamalau pagatan ordaintzeko. EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin ziren.

Beste bi gai zerrendaz kanpo

Beste bi gai ere landu zituzten ordu erdi inguru iraun zuen bilkuran: "Oso inportantea" den etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko eskumena alkateari eskuordetzea –oposizioa abstenitu egin zen– eta mendekotasunen prebentziorako plana onartzea –aho batez onartu zen–.

Emakumeak protagonista Kirol Argazkien 31. Lehiaketan

Udalak eta Arizondo elkarteak antolatzen duten sariketa ezagunerako lanak aurkezteko azken eguna: azaroak 10

J.B. BERGARA

Azaroaren 10era arte dago Udalak Arizondo argazkizale elkarrearen laguntzarekin antolatutako Kirol Argazkien 31. Lehiaketan parte hartzeko. Emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko asmoz, aurten lehiaketara aurkeztu diren argazkien gaia emakumeak kirola egiten izango da. EAEn bizi den edozein afizionatuk parte har dezake eta, horretarako, 40x50 zentimetroko argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo koloretan, laborategiko edozein teknika edo

prozedura erabilia. Aurkeztutako argazkien artean aukeratutakoak Aroztegi aretoan egongo dira ikusgai, 2021eko azaroaren 19tik 28ra bitartean. Sari banaketa azaroaren 19an egingo da, Aroztegi aretoan (20:00).

Bi kategoriatan sari berdinak emango dira: lehen saria, 210 euro eta garaikurra; bigarrena, 180 euro eta garaikurra; hirugarrena, 150 euro eta garaikurra; lehen emakumearentzat 120 euro eta garaikurra eta herriko argazkilari onenarentzat 120 euro eta garaikurra.

Ordutegi berezia abuztuaren Udaleko zerbitzu gehienetan

Biztanleen Arreta Zerbitzua zabalik egongo da abuztu osoan, asteleheneetik egubakoitzera, 07:30etik 14:30era. Laboratorium eta Turismo Bulegoa egunero egongo dira zabalik; asteleheneetik zapatara 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00etara. Artxiboa egunero egongo da zabalik, 08:30etik 15:00etara, eta baita Agorrosin ere, 09:00etatik 20:55era; Labegaraieta, berriz, itxita egongo da abuztuaren 5etik 18ra eta gainerako egunetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:30era arteko ordutegia izango du. Liburutegia abuztuaren 2tik 6ra eta 23tik 27ra egongo da zabalik, 08:30etik 13:30era.

Guatemalako Cristina Chiquin argazkilariaren lanak, Aroztegin ikusgai

Abuztuaren 8ra bitartean, *Askotariko emakumeen eguneroko borroka* izenburu duen erakusketa bisitatzeko aukera dago Aroztegi aretoan. Cristina Chiquin argazkilariaren lanak daude ikusgai; Guatemalako bokaziozko fotokazetari eta fotodokumentalista independentea da Chiquin, eta bere argazkietan justizia-prozesuak, giza eskubiak eta emakumeen borroka islatzen ditu, besteak beste.

Erakusketa bisitatu ahal izateko ordutegia honako hau da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Enpresa legezkoa: 1100/025

Pandemiaren nekeari aurre egiteko udalekuak

Ekainaren 28an hasitako udaleku irekiak gaur amaitu dituzte lau astekoak aukeratu dituztenek, eta, bigarren urtez jarraian, pandemiak baldintzatutakoak izan dira; Jarduneko arduradunek adierazi dute umek udalekuon beharra zutela; bereziki, emozionalki

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak baldintzatuta baina ezusteko aipagarrikerik eragiteke, gaur amaitu dira Jardunek kudeatzen dituen udaleku irekiak. "Bizitzaren ari garen egoera honetan, umek eta gaztetxoek ere emozionalki udalekuen beharra izan dutela igarri dugu, eta behar hori asebetetzean eta euskarari jarri dugu indarra", adierazi du udaleku irekion arduradun Saioa Garitanok. 375 umek eta 50 begirale hartu dute parte aurten, hiru edo lau astez.

Kutsatzei dagokienez ez da ezusteko aipagarrikerik izan, baina COVID-19ak baldintzatutako udalekuak izan dira aurtengoak ere: "Egoera kontuan hartuta, unean eskatzen zena betetzen saiatu gara. Hezitzaile bakoitza bere ume taldearekin bakarrik egonda eta ume kopuru txikiak izanda, ekintza batzuk oso mugatuta geratzen dira".

Mugatuta izanda ere, pozik

2019ra arte egin izan ziren ekintza bateraturik, esaterako, ezin izan dute gauzatu: "Apar festa, azken jaiak... Halako ekintzak egin gabe jarraitzen dugu. Gainera, lo egitera egiten genituen irteerak eta egun-pasak, beste herri batzuetara, aurten ez egitea erabaki da". Ekintza asko mu-



Udaleku irekietako burbuila taldeetako bat Agorrosingo ur jolasez gozatzen. JARDUN

50 BEGIRALE ETA 375 UME IZAN DIRA; HEZITZAILE BAKOITZA UME KOPURU TXIKI BATEKIN ARITU DA

gatuta egon dira, baina beste asko ere egin dituzte: "Ekintza arrakastatsuenak zeintzuk diren zehaztea ez da erraza. Izan ere, 375 haur eta gaztetxoentzako ekintza guztiakin asmatzea zaila izaten da, baina esango nuke

harrera onena izan dutenak izan direla ur jolasak, igerilekura irteera, San Martzialera irteerak edota pista jolasa". Igerilekura egindako irteera batzuetan ez zuten eguraldia lagun izan, baina horrek ez zien umeei uraz gozatzeko nahia zapuztu.

Garitanok dio "gauzak martxoan" joan direla, pandemiak eragindako buruhausteeke mezezi izan duten seinale: "Pandemiarekin gora eta behera aritu gara, baina aurtengo uztailean ere aisialdi euskaldunaz gozatzeko aukera izan dugu!".

NIRE USTEZ



AINHOA PARDINA

Oporraldiaren inbidia

Mallorca, Eivissa, Formentera... Zenbat argazki liluragarri ikus daitezkeen egunotan sare sozialetan. Zenbat txoko ezagutu ditudan, ni bertan inoiz ez egon arren. Nire bizilekua balitz bezala sartu ditut buruan irudi lasaigarri horiek. Beroa, itsasoaren mugimenduaren hots leuna... lasaitasuna. Hurrengo argazkia ez da, ordea, kanpoko paradisu horietako batean ateratakoa, ez, hau Euskal Herrikoa da: Lizarrakoa. Brigade Loco herrikideek kontzertua eman dute bertan eta herritik 130 pertsona joan omen dira bertara, kontzertuaz gozatzera. Musika, giro ona, alaitasuna, dibertsioa. Noiztik ez ote naiz joan ni kontzertu batera?

Pentsatzen gelditu naiz, inbidia jola. Ikusitako argazkiek inbidia sortu didate plan ezin hobekak direlako ala oporrak, jaiegunak, behar ditudalako? Beroak eragindako insomnioak, ikasketek eta lanak eragindako nekea albo batera uztearen ezina ote inbidia sorrarazlea? Tira, guztiak uda aprobetxatzen ari direla ikusteaz pozteko eta inbidia alde batera uzteko ordua da, jantokia itxita dagoen fakultatera joan behar naiz eta, azkenaldian hutsik dagoen eraikinean lan egitera, lankide batekin batera.

San Martin: irailaren 11ko ferian postua jartzeko eskaerak

Domekarako, uztaileak 25, egin behar da eskaera irailaren 11n egingo den San Martin ferian postua jartzeko. Aurten, Ibargarai kalean jarriko dituzte postuak, 09:30etik 14:30era. Dokumentazio hau aurkeztu behar da izena emateko, ferixabergara@gmail.com helbidera bidalita: udal webguneko eskuorria beteta; eskaera egiten duenaren

identifikazio-agiria; enpresaren IFK, egindako eskaeraren produktuen salmentari dagokiona; Jarduera Ekonomikoen Zergaren alta; gizarte-segurantzaren eta ogasunean egunean daudela ziurtatzen duen agiria; osasuneko erregistro-zenbakia edo osasuneko baimena -giza kontsumorako elikagaien kasuan-; elikagaiak manipulatzeko txartela edo balioidea, ontziratutako gabeko produktuen kasuan; eta nekazaritzarako ustiategiaren txartela, hala badagokio.

OHARRAK

'Kotoiaren emakumeak' erakusketarako bisitak

Urriaren 10era arte Laboratoriumen ikusgai dagoen erakusketarako bisita gidatuak egingo dira uztailearen 28an, abuztuaren 4an, 25ean eta irailaren 1ean. Izena emateko, 943 76 90 03 telefono zenbakira deitu edo laboratorium@bergara.eus helbide elektronikora idatzi behar da.

Oxirondoko eguztenetako azoka

Uztailearen 28an eta abuztuaren 4an, 11n, 18an eta 25ean ere eguztenetako azokak ez du hutsik egingo. Baserritarren bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera egongo da, 18:00etan.

2022ko udal egutegirako argazkien lehiaketa

Irailaren 25era arte bidali ahalko dira argazkiak; Bergararekin lotutako dozein alderdi agertzen duten argazkiak aurkeztu ahal izango dira: paisaiak, eraikinak, pertsonak, jaiak, lanak, abereak... Argibide gehiago: euskara@bergara.eus.

Zaborraren, uraren eta estolderiaren tasa

Irailaren 10era arteko epea dago 2021eko tasen bigarren hiruhileko agiriak ordaintzeko. Argibide gehiagorako Bergararren Arreta Zerbitzura jotzeko aukera dago.

Brontzearen unibertsoa ezagutzen

Udaleku irekiez gain, Agorrosingo kirol eskaintza, Laboratoriumeko jarduerak eta Usondo parkean liburutegiarekin gozatzeko aukera izan da uztailean zehar. Museoan, esaterako, harrera ona izan zuten brontzearen unibertsoa ezagutzeko jarduerak: "Amek eta umek lan fina egin zuten. Gero, gainera, euren eskuekin egindako brontzezko pieza harro-harro erakutsi zuten. Zorionak!".



Brontzea nola sortu ikasi zuten, besteak beste, ikastaroan. LABORATORIUM

Zuzendaritza talde berria dute denboraldi berrirako

BKEko saskibaloia sailak aldaketa esanguratsuekin abiatuko du hurrengo denboraldia, 2007tik Marian Mellado presidente izan duen zuzendaritza taldeak ez du-eta jarraituko; Ion Beistegi buru duen taldeak hartuko dio erreleboa Melladoren taldeari

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Kirol Elkarteko saskibaloia sailak aldaketa esanguratsuekin ekingo dio 2021-2022 denboraldiari. 2007a ezkerreko Marian Mellado buru zuen taldeak erreleboa emango dio Ion Beistegi buru izango duen taldeari. Beistegirekin batera zuzendaritzako kide izango dira Borja Elkoroberezibar, Xabat Irazola eta Aitor Esnaola. Hori bai, zuzendaritza berriak, orain arte moduan, ezinbestekoa den gurasoen laguntza jasoko du.

Saskibaloia herrian errotzea

Mellado presidente izendatu eta gutxira hasi ziren antolatzen gerora herrian errotu den hiruko saskibaloia txapelketa. "Taldea berri batek haize freskoa ekarri ohi du eta testuinguru horretan hasi ginen saskibaloia bueltan ezberdina bezain erakargarria izan zitekeen zerbait antolatu nahian". Udan eta Gabonetan -infantil mailako txapelketa ere antolatzen hasi ziren Gabonetan- antolatu izan dituzte hiruko txapelketak, San Martin plazan, udal pilotalekuan eta Labegaraietan. Horrez gain, Gabonetako infantil mailako txapelketa ere antolatzen hasi ziren eta Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 bete zituela gogora ekartzeko ekitaldien barruan antolatu izan diren Bergara Hiria saskibaloia txapelketaren barruan, Melladoren taldeak emakumei garrantzia ematea erabaki zuen. Goi mailako saskibaloia taldeak izan dira Labegaraietan.

Melladoren taldearen beste bereizgarrietako bat izan da saskibaloia sailak egiten duen lana ezagutzera emateko egin duten ahalegina, eta horren adibide dira San Martin plazan egin izan diren denboraldi hasierako aurkezpenak. Pozik doa Mellado: "Eskerrik asko denoi, oso aberasgarria izan da".



Senior taldeak azken denboraldian jokatutako partidu bat, Labegaraietan. GOIENA

"Amaitu da nire zikloa, baina lasai noa, badagoelako erreleboa"

MARIAN MELLADO BKE-KO SASKIBALOI SAILEKO ARDURADUN OHIA

14 urte presidente. Pozik egindakoarekin?

Bai, pozik noa. Denetarik egon da, baina, oro har, esperientzia ona izan da. Lau urtez aritu nintzen Gipuzkoako Federazioko zuzendaritzan eta horrek esperientzia hartzen laguntzen du. Beti saiatu izan naiz nuen onena ematen: batzuetan, ondo irten dira gauzak; beste batzuetan, ez. **Zergatik dator aldaketa?** Sinistuta nagoelako nire zikloa amaitu dela BKEn. Ez dago bestelako motiborik, eta, erreleboa hartuko digun beste talde bat dagoenez, lasai utziko dut ardura. Klub barruko harremana beti izan da ona.

Atzera eginda, zergatik sartu zinen presidente?

Arrazoi nagusia izan zen semea hasi zela saskibaloian. Une hartan zuzendaritzan zeudenean laguntza eskatu



J.B.

zuten eta talde berri bat sartu ginen. Hori bai, semeak saskibaloia laga ostean ere presidente jarraitu dut beste urte batzuek ere.

Asko aldatu da egoera sartu zinenetik?

Ez dut gogoratzen duela hamalau urte zahazki zenbat talde genituen, adibidez. Baina bai, asko aldatu dira gauzak. Ez dut esan nahi gure aurrekoek baino hobeto egin ditugunik gauzak, baizik eta egoera aldatu egin dela.

Espainiako onenekin lehiatuko da aste bukaeran Telmo Ayerbe

Zazpi erkidegoren arteko belaontzi txikien lehia izango da, Optimist kategorian, Uribarri Ganboako urtegian

J.B. BERGARA

Erkidego autonomoen arteko Espainiako estropaden txapelketa jokatuko da asteburuan Gasteizko Klub Nautikoan, Uribarri Ganboako urtegian, Optimist deritzon kategorian. Zazpi erkidegotako 14-15 urtera arteko lehiakideek hartuko dute parte: Kantabria, Kanariar uharteak, Valentzia, Balearrak, Galizia, Katalunia eta Euskadi.

Estropadak gaur, bihar eta etzi

Erkidego bakoitzeko bi taldek eta talde bakoitzeko lau belaontzi hartuko dute parte eta Euskadiko Federazioak hautatu dituen zortzi partaideen artean 12 urteko Telmo Ayerbe bergararra egongo da; Gasteizko Klub Nautikoko ordezkari arituko da Ayerbe. Atzo egin zituzten presetaketa saioak eta gaur, bihar eta etzi izango dira estropadak.



Ayerbe, Optimist ontzi baten. CARMEN GARCIA

Antolakuntza lanetan diharduen Luis Laskurainen arabera, estres handiko egunak izango dira: "Egin ditugun kalkuluen arabera, aurreikusten dugu 80 bat irteera emango ditugula eta egingo ditugula uretan bospasei ordu egunean".

Erlojuaren eta San Martzialeko aldapa gogorren kontra egitera

Bergara Hiria emakumeen txirrindularitza saria jokatuko dute gaur, Oxirondo azoka ondotik irtenda, 18:30ean

J.B. BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolaren eskutik eta Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren eta Euskal Herriko Txirrindularitza Federazioaren eskutik, San Martzialeko erlojupeko igoera izango da gaur, hilak 23, 18:30ean. Kadete, junior, 23 urteko azpiko eta elite mailako emakumezko ziklistak batuko ditu Oxirondo azokaren ondoan, San Martzialeko errepidearen hasieran.

Aldapa oso gogorrak

Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete zirela gogoratzeke ekimenen barruan jaio zen proba -hortik Bergara Hiria izena izatearena- eta urtez urte hazten doa, gero eta maila handiagoa duten txirrindulariak elkartzen dira eta. Zalantza barik, erlojupeko proba honetatik nabarmen-



Ziklista bat, 2019ko proban. GOIENA

du beharreak bere gogortasuna da, ziklistek hasi eta berehala sekulako aldapei egin behar dietelako aurre; horregatik, funtsezkoa da ziklistendako proba hasi aurretik arrabilean egin beharreko lanak ondo baino hobeto neurtzea.



Azkaiter Pelox, seikote formatuarekin. AZKAITER PELOX

Fitxaketa batekin dator Azkaiter Pelox taldea

Uztaileko kultur programazioak hitzordu interesgarriak utziko ditu datozen egunetan. Zapatuan, Indai eta Azkaiter Pelox bergararrek kontzertu berezia egingo dute San Juan auzoan, eta eguenean, Willis Drummond taldeak Usondo parkean joko du

Xabi Gorostidi BERGARA

Uztailaren 23a gorritz markatuta dauka egutegian Unai Azkarate musikari bergararrak. Azkenaldian, "nahi baino kontzertu gutxiago" jotzen dabilta egoera pandemikoa medio, eta zapatuan San Juan auzoan joko dutena mimoz prestatzen dihardu. "Azken formazioa osatu genuenean, argi genuen gauza

bat: kontzertu gutxiago jo nahi genituela, baina kalitate handiagoak. Eta, alde horretatik, Bergarako Udalak eskaini digun aukera hau da uda partean dugun hitzordu garrantzitsuenetako bat".

Kontzertua prestatzeko azken egunetan, ordea, azken orduko ezuste bat izan dute taldekide batekin. "Azkenaldian, folk doi-

nuak lantzen ari gara, Shane Curley irlandarra taldean dugula baliatuz. Baina duela egun gutxi, familia bisitatzeko aukera zabaldu zaio, Boris Johnsonek eta konpainiak bisitarietako neurriak malgutu ostean, eta Irlandara joateko erabakia hartu du". Taldearen "ukitu exotikoak" azken orduan kale egin izanak urduritasun pixka bat

eragin dio Azkarateri, baina burua dantzan jarri eta segituan aurkitu du "hutsune exotikoa" betetzeko konponbidea.

"Uda partean asko mugitzen naiz Getaria inguruan, eta bertan hainbat musikari ezagutzen ditut. Eta horien artean dago Low Riders taldeko Michael Kapoun gitarrak-jole eta luthier txekoslovakiarra. *Lap-steel* gitarra jotzen du berak, surf musika estiloan asko erabiltzen den gitarra mota, eta lagun handia dut. Aurretik kolaborazio bat edo beste egin izan dugu elkarrekin, eta segituan gogoratu nintzen harekin. Ea gurekin jotzen animatuko litzatekeen galdetu nion, eta baietz erantzun zidan. Eskarmentu handiko musikaria da, eta ez du arazorik izan gure erreperitorioa barneratzeko".

Irlandako doinuak

Aipatutako azken fitxaketaz gain, honako lagun hauek izango ditu oholtzan Unai Azkaratek: Aitor Aranburu, baterian; John Prieto, biolan; eta Aitzol Mujika, baxuan. Zein abesti mota joko dituzten galdetuta, hona Azkaiterren erantzuna: "Azkenaldian, oso gustura gaude folk doinu irlandarrak jotzen. John Prieto sekulako biolin-jolea da, eta hura da melodikoki taldearen arima. Saint Patrick eguneko abesti sorta antzerakoa taularatuko dugu, baina aldaketaren bat edo beste egingo dugu. Michael Kapoun gure artean izango dugula ikusita, Low Riders taldearen estilora hurbilduko gara, eta rhythm and blues eta surf ukutuko piezaren bat edo beste sartuko dugu, gure gonbidatuak *lap-steel* gitarra horrekin zertarako gai den erakuts diezagun".

Bergarako Indai taldearekin partekatuko dute San Juan auzoko oholtza. Hala, Yune Nogueiras, Leire Moñux, Nerea Aginagalde eta Leire Ugarte taldekideek herritarren aurrean abesteko beste aukera bat izango dute, iaz Usondon egin bezala. Herriko musikarien trebeziak gozatzeko hitzordua, beraz: zapatuan, 18:30ean, San Juan auzoan.

Willis Drummond, Usondon

Euskal rock eszenan sasoi beteetan dagoen taldeetako bat da Willis Drummond, eta berezkoa duten zuzeneko indartsua taularatuko dute Usondon, eguenean, 22:00etan. Gaur iluntzean, Berumuga zirkloaren barruan, Josh Joyer & Soul Colossal taldeak joko du Espoioan, 22:00etan (Ikus 41. orria).

Abuztuko hitzorduak

Uztaileko hitzorduek jarraipena izango dute abuztuan ere.

Ikuskizunak

- **Abuztuak 5** Iralan, 20:00etan, Zirkugintza taldearen 'Zirkoteke' emanaldia.

Antzerkiak

- **Abuztuak 26** Osintxun, 19:00etan, Trakamatraka taldearen 'Matraka ma non tropo' antzerkia.
- **Abuztuak 29** Osintxun, 12:00etan, Tio teronen Semeak taldearen 'Festamendua' antzerkia.

Gorlako kantuan zuzeneko musikaz gozatzeko hitzorduak

Gaur, egubakoitza, K-PO eta HRT herriko rap musikariek kontzertua egingo dute, DJ Anomaliarekin batera

X. G. BERGARA

Gorlako kantinako kudeatzaileak auzoa kultura emanaldiz betetzeko gogoz daude, eta hainbat hitzordu lotu dituzte jada. Horietako lehena, gaur iluntzerako antolatuta dute rap kontzertua.

K-PO eta HRT rap abeslari bergararrak izango dira protagonistak, eta euren ostean DJ Anomaliak doinu dantzagarriak jarriko ditu. "Herriko rap abeslari gazte batzuk dira eta duela gutxi hasi dira kontzertuak egi-

ten. Tabernara etortzen zirelako ezagutu nituen, eta, zer-nolako abestiak egiten zituzten ikusita, hemen jotzea proposatu nien", dio Unai Barrena antolatzaileak.

Aurrera begira ere, lotu dute beste pare bat hitzordu: "Hilaren 29an Perlata taldeak jo behar zuen. Ezbehar bat medio ezin izango dute jo, eta, ziurrenik, Rebel Noise taldea arituko da euren partez. Abuztuaren 1erako, ordea, *Berpiztu Gorla* erromeria eguna antolatuko dugu: trikitilarietako eta bertsolarietako".


Kartzela zaharrean kontzertuak gaur eta bihar iluntzean

Gaurko, egubakoitza, hiruko emanaldi bat antolatu dute. Tatzers eta Atturri musika taldeek eta DJ Alfil-ek osatzen dute 19:00etan hasiko den egitaraua, eta sarrerak 5 euroren truke eskuratu ahaliko dira.

Iruñeko Tatzers hirukoteak urtarrilean kaleratu zuen lau kantuz osatutako azken lana, *Hiruzpalau amets larri* izena

duena, eta horiek aurkezteko gogoz datoz Bergarara. Atturri taldea oi! eta punk-rock doinuen eraginpean sortu zen, 2018an, eta *Ipparaldea ordainetan* izeneko kanta argitaratu zuten *Kaosa Euskal Herrian* bilduman.

Bihar, zapatua, berriz, Añube talde sortu berriaren txanda izango da. Bergarako eta Arrasateko musikariz osatutako taldeak bere ibilbideko bigarren kontzertua egingo du; folk doinu akustikoak jorratzen ditu. Hitzordua 20:00etan da.



17. UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA egin klik!




LABENNE | Argazkia: Saioa Ugarteburu



TXIMISTARRI | Argazkia: Maika Gallastegi



MARBOREKO LAKUAN | Argazkia: Julen Axpe



IZARREI BEGIRA | Argazkia: Hodel Gomez de Balujera



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien Lehiaketa abian da! Bidali zure argazkiak hiru kategoria hauetarako: **Nazioartean**, **Protagonistak** eta **Euskal Herrian**.

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 16tik irailaren 20ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:

Nazioartean: Arrasateko Halcon Bidaiei esker, Toñanesko La Estela Cantabra ostatuan bi pertsonarendako bi gau eta gosaria.

Protagonistak: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, LG K 51S smartphonea.

Euskal Herrian: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratakoa den.
 - Argazkia zein kategoriatarako bidali den.
- Argazkia zein kategoriatarako bidali den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 16tik irailaren 20ra arte (biak barne).
- Hiru kategoria egongo dira:
 - Protagonistak: pertsonak lehen planoan erakusten dituzten argazkiak, lekua baino garrantzi handiagoa dutenean pertsonak.
 - Euskal Herrian: Euskal Herriko paisaiak, eraikinak edo txokoak izango dira elementu nagusia, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
 - Nazioartean: Euskal Herrikan kanpoko txokoak, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
- Argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Kategoria bakoitzeko saritu bana aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 24tik 29ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean emango da jakitera, Goiena aldizkarian.
- Saria jasotzeko irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: Goiena.eus atarian, Goiena aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarri eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak-lehiaketa2021>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

GU Travel
Halcon Bidaiek
Arrasate

BERGARA
EREIN DA JAN



Josune Martinez, udalbatza atzean daukala, osoko bilkuren aretoan. MAIDER ARREGI

Josune Martinezek zinegotzi kargua utzi du

Agintaldi erdia, bi urte, egin ditu Josune Martinezek Kultura eta Berdintasun zinegotzi, eta arrazoi pertsonalengatik karguari uko egin dio. Egindako lana eskertu eta Antzuolako bandera eman dio udalbatzak. Alazne Jauregik ordezkatu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Josune Martinezek Berdintasun eta Kultura zinegotzi karguari uko egin dio, arrazoi pertsonalengatik; eta asteon egin duten uztailako ohiko osoko bilkuran eskaera horren berri eman du. Haren lekua Alazne Jauregik hartuko du irailetik aurrera. Izan ere, Jauregi da EH Bilduren hauteskunde zerrendan hurrengoa; zortzigarrena, alegia.

Josune Martinezek agintaldiaren erdia bete du, bi urte egon da karguan; pandemia urtea bizi izan badu ere, balorazio positiboa egin du: "Agintaldia gogotsu hartu nuen eta gauza asko egiteko gogoz bai Ongizate batzordean eta baita Kultura batzordean ere. Balorazioa pandemiarekin batera nahitaez egin behar dut, eta, hori kontuan izanda, nahiko balorazio ona egiten dut."

Herrigintzak eman dion esperientziak uhalgintzarako balio izan diola aitortu du Martinezek: "Herrigintzatik nentorren eta

udalgintzarako eman dizkit tresnak. Adibidez, Berdintasun Diagnostika parte-hartze bidez egin nahi izan da, eta, zaila izan den arren, ahal den heinean herritarrekin egin dugu eta emaitza positiboa da".

Izan ere, Emagin elkarteak Antzuolako Berdintasun Diagnostikaren emaitzak irailan egingo ditu publiko. Udalaren asmoa da, baina, berdintasun politikak indartzea eta datorren urteko aurrekontuetan diru partida bat bideratzea.

Inklusibe programa pilotua ere talde-lanean ari da garatzen –pandemiak ahalbideratzen duen heinean–. "Etorkinen inguruko lanketa egin gura da, eta aurrera irtetea espero dut".

"HERRIGINTZAK UDALGINTZAN LAN EGITEKO TRESNAK EMAN DIZKIT; BALORAZIOA ONA DA"

Kulturarendako urte zaila

Kulturarendako oso urte zaila izan dela adierazi du. Ekitaldi gutxi izan dira, baina Antzuolan egin dituztenak osasun neurriekin zorrotz egin direla eta ondo egitea lortu dutela nabarmendu du: "Hasieratik, zer egin, zer ez egin... Ezjakintasun handia zegoen; baina neurriekin kultura ekintzak egin egin zitezkeela ikusi genuenean martxa polita hartu genuen".

Udal Gobernu taldearekin izandako harreman ona baloratu gura izan du Josune Martinezek: "Taldearekin oso gustura jardun dut lanean. Politika egiteko modua bakoitzak berea izan du, eta, batzuetan, gustatuko litzaidake denok herriagatik eta herriarendako egotea hor. Ni herria aldatzeko gogoz sartu nintzen, eta osoko bilkuretan izan diren zenbait eztabaida ez dut uste beharrezkoak izan direnik". Amaieran, egindako lana eskertzeko, Antzuolako bandera jaso zuen Martinezek.



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ HISTORIALARIA

Publikoa ala pribatua

Publikoa ala pribatua eztabaida eta matraka ez da gaur goizekoa; hautsak harrotzeko gaia da esparru askotan. Uzarragako ustekabeko salmentaren inguruan ere berehala etorri zait kezka: Antzuolako sorlekua eta ondarea den Uzarraga, herriarentzat ala esku pribatuarentzat? Badirudi Antzuolaren historiako piezarik garrantzitsuenetako bat ezin izan dugula eskuratu. Ez dut ulertzen –egon bada– Udalaren eta Elizbarrutiaren artean akordio batera iristeko ezintasuna eta, ondorioz, Uzarragako gunea esku pribatuaren bukatzea. Pentsatzen dut inguruak baduela interes historiko, kolektibo eta sentimentala administrazio publikoak interesa jartzeko, egoera aztertzeko eta akordioetara iristeko. Baina, ustez, berandu gabiltza, guztia eginda dago; beraz, ezin diogu erosleari besterik opa: munduko zortzerik onena bere proiektuan. Herritarro, berriz, Uzarragarekin agian izan ez dugun sentsibilitatea ez diezagula herriko beste ondare adierazpenekin gertatu. Kultura ondare baten jabe gara, gure herri identitatearen ezaugarria; zain dezagun, beste inor ez da etorriko gurea dena zaintzera eta.



MAIDER ARREGI

Ikasturte berriaren zain

Eskolaren eraikin berriaren obra, atzerapenarekin bada ere, bukatzeaz dago. Ikasturte berrirako gertu egongo dela aurreratu du ikastetxeko zuzendari Silvia Ezpeletak: "Azken ukituak geratzen dira; barruko obra osoa eginda dago. Kanpoaldean txaparen bat jartzea falta da soilik. Gainera, gela berrien banaketa antolatuta daukagu; oso pozik gaude".

Autokontsumoa eta komunitate energetikoa aztergai

Ekainean Goiener Kooperatibak eskainitako autokontsumo eta komunitate energetikoaren gaineko hitzaldiek interesa piztu zuten. Horregatik, Udaleko Baliabide Naturalen lantaldeak, herritarren jakin-mina ikusita, irailan bilera bat egitea erabaki du, eta bertan parte hartzeko dei egin die antzuolarrei. Helburua da zalantzak eta interesak

ezagutaraztea eta aukerak aztertzea. Interesa duen edonork bidaldi dezake posta elektronikoa udala@antzuola.eus helbidera, eta irailan zehar bilera eguna eta ordua zehaztuko dituzte. "Azkenengo lege aldaketak interesa sortu du. Horregatik, asmoa da komunitate energetikoaren aukera aztertzea, dituen abantailak azalerratzuz: ekonomikoak, zein energia sorkuntza duen, lokala edota komunitatearen esperientzia eta indarra zein den azalduta".

Herriko jai nagusirik ez, baina bai gozamenerako eta dibertsiorako uneak

Osasun arauak mantentzeko moduko ekintza sorta programatu du Antzuolako Udalak, eta balorazio positiboa egin du alkateak: "Egia da Udalak ez duela baliabiderik, baina jendeari zentzuz jokatzeko dei egin genion, eta uste dugu erantzuna ona izan dela"

Maidar Arregi ANTZUOLA

Oro har, giro ederrean joan dira herriko jai nagusien ordez Udalak eta Jai Batzordeak antolatuta zituzten kultura ekintzak asteburuan. Balorazio ona egin du Beñardo Kortabarria alkateak: "Ekintza dezente egon da, eta kultura egitaraua denon gustukoa izan zedin saiatu gara. Guztiak ondo joan dira, beharrezko osasun neurriak zorrotz beteta. Gainera, esango nuke antolatutako kontzertuetan jende gutxi egon dela. Maila handiko emaldiak izan dira, eta nahi baino jende gutxiago gerturatu da. Sarrerak ere ez dira agortu".

Alkateak nabarmendu du zuzenekoak gazte jendeari begira antolatutakoak: "Urtean zehar gazteek ez dute eskaintza handirik izan, eta, bereziki, haiendako antolatuta zeuden kontzertuak". Hala ere, jendea ibili,

ibili da herrian, eta lagun arteko bazkariak eta afariak izan dira. "Egubakoitzean jende ugari ibili zen; zapatua, aldiz, nahiko lasaia izan zen; eta domekan apenas izan zen herritarrik kalean zehar. Jendeari zentzuz jokatzeko dei egin genion, eta uste dugu erantzuna ona izan dela", nabarmendu du alkateak.

Gaueko giroari dagokionez, ez dela aparteko istilurik izan azaldu du Ertzaintzak; isunik ere ez dute jarri. Plazan eta errekarren atzealdean kale-edian pilatu diren gazteak sakanatu dituzte: "Prebentzioa

BIHAR, ERREKA GARBITUKO DUTE; ONDARREN, ALDIZ, MURAL FEMINISTA MARGOTUKO DUTE

izan dugu helburu; egoeraren berri eman, eta ondo ulertu dute".

Giro lasaia

Joan den egunean, 2019ko jaioberriei eta herriko nagusienei harrera egin zieten Antzuolako udal ordezkariak. Herriko neska-mutikoei, gainera, egubakoitzean puzgarriekin eta askotariko jolasekin gozatzeko aukera izan zuten, Sagastin. Zapatuan, aldiz, Mairuaren Alardeari keinu eginda, kanoiak sutu zituzten eta Bergarako Udal Musika Bandaren doinuak kalejiran izan ziren protagonista, giro lasaian.

Biharko, 10:00etan, erreka auzolanean garbitzeko dei egin dute, eta Ondarren mural feminista margotuko dute. Domekan, lore lehiaketako erakusketa egingo da, eta botatzeko aukera izango dute herritarrek, 11:00etik 18:00etara.



Neska-mutiko antzuolarrak Sagastiko puzgarrietan. IMANOL SORIANO

Kultura ekintzak



Eguenean egindako ongietorria. AINHOA ARANA

ONGIETORRIA laz ez zuten ekitaldirik egin, baina aurtun, aurreko urtean jaiotako haurrei aurtengoekin batera egin diete ongietorria. Herriko nagusienei ere jarri diete zapia: 95 urteko Murtxe Lizundiari eta 94ko Jose Mari Kortabarriari.



Sonakay taldeak patioan eskainitako zuzenekoak. IMANOL SORIANO

SONAKAY Flamenkoa euskaraz egiten duen Donostiako taldeak 'Sonakay zuekin' diskoa aurkeztu du Antzuolan. Taldea ezagun egin duen Mikel Laboaren 'Txoria txori' abestiaren bertsiok ere ez zuten hutsik egin, zaleen gozamenerako.



Domeka arratsaldean jokaturako bingo saioa plazan. IMANOL SORIANO

KINA-BINGOA Arrakasta itzela izan zuen Anelkarrek antolatutako kina-bingo saioak. Bi orduz jardun zuten herritarrek bingoa kantatzen. "Parte hartzaileek serio hartu zuten jokoa, oso pozik gaude; 910 euro batu ditugu. Eskerrik asko!", dio Jabi Etxanizek.

"Argi daukat merezi duela Jaungoikoa bilatzea"

MARIA EGIZABAL BARRACHINA MOJA-POSTULATZAILEA

Ez du ukatzen: faltan sumatuko ditu Elgeta, Ojanguren baserria eta etxeokak, baina moja izateko bideari ekitea erabaki du, eta Madrilgo egoitza batean sartuko da laster



Maria Egizabal Barrachina, martitzenean, Elgetako Andra Mari plazan. L.Z.L.

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Ekainean bete zituen 18 urte Maria Egizabal Barrachinak (Elgeta, 2003). Gaur egungo gazteen artean oso ohikoa ez den bidea hartzea erabaki du, batxilergoa amaitu berritan. Moja-postulatzaile sartuko da Jesusen Bihotzeko Santa Mariaren Alabak kongregazioak Madrilen duen egoitzan. Abuztuaren 14an egingo du sarrera-ekitaldia.

Nolakoa da moja-postulatzaile baten sarrera-ekitaldia?

Elizkizun bat da, eta Madrilen izango da; sartzekoa naizen egoitzan. Postulatzaile-jantzia emanango didate, eta horrela jantziko naiz bi urtez. Galdetuko didate zer eskatzen dudana, eta erantzungo diet bizitza erlijiosoa esperimendatu nahi dudala, eta eskatuko diet epai dezatela nire jarrera. Komentuko bizimodua ezagutzeko eta erabaki zuzena hartu izana ziurtatzeko etapa da postulatua. Ez dizu inork esaten: "Sartu zara eta orain hemen gelditu behar duzu betirako". Bikote harreman bat bezala da; hasi egiten duzu, eta, ikusten baduzu ez daramala inora, eten egin dezakezu.

Gero dator nobiziatua, ezta?

Bai; beste bi urte dira. Moja-jantzia janzten da, nahiz eta beloa desberdina izan, eta nobiziatuko bi urteak egin ostean erabakitzen da moja sartzeko lehen botoak egin edo ez. Bien bitartean, formakuntza jasoko dut: kristo-

logia, mariologia, biblia, kongregazioaren historia...

Ze berezitasun ditu aukeratu duzun kongregazioak?

Jesusen Bihotzeko Santa Mariaren Alabak irakaskuntzan aritzen dira. Bost urtez ikasi dut haien zentro batean, eta bertan joan naiz ikusten Jaungoikoak horretara deitzen nauela. Gustatuko litzaidake irakaslea izatea. Ez dakit oraindik haur txikiekin edo nagusiagoekin, baina ilusioa egingo lidake.

Orain arteko ikasketak non egin dituzu?

Elgetako Herri Eskolan ikasitakoa naiz, eta Ipintza institutuaren egin zuen DBH-1. Hurrengo ikasturtean hasi nintzen Jesusen Bihotzeko Santa Mariaren Alabek Kantabriako Solares herrian duten Torreanaz ikastetxean.

Ikastetxe handia da; eskola, barnetegia eta heziketa espiritua-lago batera bideratutako egoitza bat dauzka. Pare bat hilabete egin nituen barnetegian, baina laster egin nuen bokazio-bereizketarako den egoitza horretan bizi zen ikaskide baten ezagutza. Harreman oso estua garatu genuen, eta asteburu-pasa gonbidatu ninduen. Txundituta gelditu nintzen zer-nolako giroa zuten. Pozik eta alai bizi ziren; atentzioa emateraino. Etxean bezala sentitu nintzen, eta laster erabaki nuen nik ere egoitza horretan bizi nahi nuela. Hogei bat neskaendako egoitza da.

Gauza bat da moja-ikastetxe batean ikastea eta beste bat moja joatea. Zerk bultzatu zaitu bide horretara?

Jaungoikoak. Erantzun oso abstraktua izan daiteke, baina ho-

rrela da. Jaungoikoa ezagutzen joan naiz eta ikusi dut nirekiko eta gainerako guztiekiko duen maitasun mugagabea. Jaungoiko zigortzailea irudikatzen dugu batzuetan, baina guztiz kontrakoa da. Aldentzen bazara, zuregana dator. Nik ere nire gorabeherak izan ditut. Ez dut moja joatea beti buruan izan. Orain gutxi hartutako erabakia da. Iazkoa. Baina egia da ez dudala Jaungoikoa orain besteko gertu sentitu inoiz, eta erabaki dut gerturatzea eta hobeto ezagutzea. **Uko batzuk egin beharko dituzu, dena den.**

Jaungoikoak ez du inoiz norberaren askatasuna bortxatzen. Pixkanaka-pixkanaka joan da nirekiko duen maitasuna erakusten, eta otoitzaren eta berarekiko tratua bitartez nire

alde egin duen guztia ikusi ahal izan dut. Gauzak galdetzen joan naiz eta erantzunak bidali dizkit. Ez zait agertu. Ez dut berarekin hitz egin, baina seinaleak bidali dizkit. Eta bakea, bake handia. Jaungoikoarengandik badator, bakea dakar.

Erabakia hartzeko jaso duzu inoren gomendiorik?

Argi ikusi nuenean Jaungoikoak zer nahi zuen niretzat apaiz bati kontatu nion, eta oso gogoan dut hark emandako gomendioa. Seinalea jaso banuen aurrera egiteko bidean, eta jarraitzeko zuzen beste seinale bat jaso bitartean, behintzat. Askok akordatzen naiz berarekin.

Zer da, gaur-gaurkoz, moja izatea?

Kongregazioaren nolokotasunak zerikusi handia du horretan. Nik dakidana da nik ezagutzen ditudan mojak ez direla pelikula gehienetan agertzen diren modukoak. Ez dira gaiztoak eta mingotsak. Nire kongregazioko moja gehienak gazteak dira. Bizipoz eta indar handia dute, eta eskuzabaltasun handikoak dira. Hori da gehien erakartzen nauena. Pozik bizi dira. Nagusiagoak direnak ere bai. Noski errezetatzen dutela. Bizitza ematen dizun horrekin betetzen ez bazara, ezingo diezu besteei eman, baina mojek irakatsi egiten dute, ikasi egiten dute...

Ikaskide asko dituzu zuk bezala moja-postulatzaile sartzearabaki dutenak?

Gotzaina Elgetan izan zen domekan

Gotzainak ematen du sendotzaren sakramentua, eta Maria Egizabalen anaietako bik—Martin eta Pablo—hartu zuten domekan. Hori dela-eta izan zen Elgetan Gipuzkoako elizbarrutiko gotzain Jose Ignacio Munilla. Herriko parroko Juan Cruz Juaristik laguntzaile lanak egin zituen. Anaiarik txikienak, Mikel Josek, jaunartzea egin zuen.



Egizabal-Barrachina sendia gotzainarekin eta parrokoarekin. L.Z.L.

Lagun oso handia dudan ikas-kide bat aurreko urtean sartu zen, eta beste bat ekainean. Gu, esaterako, hiru laguneko taldea gara eta hirutik bi sartuko gara moja-postulatzaile. Hirugarrenak beste bide bat aukeratu du. Erabaki du Jaungoikoak beste zerbait nahi duela berarentzat; unibertsitatean ikastea, familia bat osatzea... Erabaki pertsonala eta askea da, guztiz.

Badituzu bi izeba moja. Zer moduz daude eta nola hartu dute zure erabakia?

Oso ondo daude, eta oso pozik hartu dute nire erabakiaren berri. Izeba Alaitz Donostian dago moja, eta Gabonetan eman nion nire erabakiaren berri. Askok poztu zen. Animoak eman zizkidan eta esan zidan otoitz egingo zuela nire alde. Izeba Itsaso moja karmeldarra da Avilán, eta idatziz jakinarazi nion. Oso pozik erantzun zidan hark ere. Pozten zela eta aurrera egiteko esan zidan. Hurrengo asteburuan joango gara bisitan.

Eta nola irudikatzen duzu zeure burua hemendik urte batzuetara?

Ez dut ideiarik ere! Unean uneko bizi dut. Hemen eta orain bizi naiz, orainaldian. Bide bat hasi dut, eta izango da Jaunak nahi duena.

Erabakiaren berri eman ostean azalpen asko eman behar izan dituzu?

Ez pentsa. Nik badakit erabaki guztiz ezohikoa dela. Zein burutan sartzen da ikasketak amaitu berri dituen 18 urteko neska batek erabakitzea leku batean bakartu nahi duela? Ulertzen dut jendeak ez ulertzea. Fedean oinarritzen ez den begirada batetik ez du zentzurik, baina kristautasunetik gertu dagoen jendeak poztasuna ahalzten du. Gainerakoek, batez ere, ezustea edo sorpresa. Inork esan dit ea

"BIDE BAT HASI DUT, ETA IZANGO DA JAUNAK NAHI DUENA"

"NIRE GORABEHERAK IZAN DITUT; IAZKOA DA ERABAKIA"

"JAUNARENGANDIK BADATOR, BAKEA DAKAR"

zergatik ez ditudan lehenengo ikasketak egiten eta gero utzi postulatua, baina zergatik eman-godiot Jaungoikoari sobran dudana? Gero karrera bat egin nahi dudala, ba aintza Jaungoikoari!

Eta etxean nola hartu dute albistea?

Gabonetan jakin zuten gurasoek, eta oso ondo hartu zuten. Oso oso pozik daude. Aitak baditu moja diren bi arreba eta badaki zer den. Oso babestuta sentitzen naiz. Anai-arrebei Aste Santuko oporretan esan nien. Pozik daude haiek ere. Egia da ahizpetako batek negar pixka bat egin zuela. Faltan sumatuko nauela esan zidan, baina normala da. Nik ere asko sumatuko ditut faltan guztiak, baina bisitan etortzeko aukera izango dute, eta hilean behin elkar ikusteko aukera izango dugu.

Gainerakoan, nola ikusten duzu gaur egungo gizartea?

Gizartea oso kaltetuta dago. Jendea ez da gaiztoa, ez dut hori uste. Jendeak gabezia handiak ditu. Ez soilik Jaungoikoarekiko loturari dagokionez, baita ere giza tratua dela eta. Oztupo, aurreiritzi eta beldur handiak daude. Mina ikusten dut, eta maitasun falta ere bai. Indibidualismoa nagusitu da. Eskuzabala den jendea ere ikusten dut, baina indibidualismoa gailendu da eta jendeak zauri handiak ditu. Zorionsuak izatera deituak gara, baina ez gara zorionsuak. Gauza asko ditugu zorionsu izateko, baina, aldi berean, ez dugu ezer.

Gaurkotasanarekin lotuta etorri dira abortuaren legea, eutanasiaren legea... Zer iritzi duzu?

Ni neuk uste dut ezin dugula erabaki noiz amaitu pertsona baten bizitza. Pertsona bat asko sufritzen ari bada, ahalik eta gehien lagundu behar diogu. Lege hau zama bat gainetik kentzea bezala da. Ezagutu ditut eutanasiaren alde egon eta gero -etxean senitarteko bati tokatu zaionean- pausoa eman ez dutenak. Sufritzen dagoenari gure maitasun guztia eman behar diogu. Une horretan hor egon behar da. Abortuarekin gauza bera gertatzen da. Kontzepzioaren momentutik bizitza bat da. Ulertzen dut bortxatua izan den emakumearentzat -beti jartzen dute kasu bera- oso zaila izango litzatekeela haurra izatea. Baina umeak ez du errurik. Emakumeak ere ez, noski.

Karabietan aparkalekuak egokituko dituzte

Jabe berriak ditu arau urbanistikoetan erabilera komunitarioko izaera duen lursailak, eta, ostalaritza zerbitzurik zabalteko asmorik ez dutenez, irtenbide hori adostu du Udalak. Oposizioak ados ez dagoela adierazi zuen osoko bilkuran

L.Z.L. ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzenean egin zuen uztaileko ohiko osoko bilkura, eta udal ordezkariak hainbat gai izan zituzten mahai gainean; tartean, Karabietako txabolarekin lotutakoa.

Ez zen adostasunik egon Karabietako parajeko erabilera komunitariorako lursaila uzteko hitzarmena onartzerakoan. Alkateak gogorarazi zuen urte luzez paraje horretako partzelari ostalaritza erabilera eman zitzaiola. "Utzita egon da denbora mordoxka batean, baina orain jabe berriak dauzka, eta jabe berri horrek moldaketa-lan batzuk egin ditu bere baimen guztiekin".

Arau urbanistikoaren arabera, ordea, lursail horrek zerbitzu publikoa emateko betekizuna du. "Lehenagoko jabeekin hori garbi gelditu zen, baina salerosketa egin dute, eta jabe berriek ez zuten horren berririk (...) Aukeretak bat zen lehen moduan merendero moduko bat jartzea, baina ez zen oraingo jabeen intentzioa, eta aztertzen egon gara ze onura publiko eman Elgetari. Pare bat bilera egin eta gero adostutako aukera bat izan da terenoan bidearen kontra muga egiten duen espazioan lautada bat egokitzea autoak aparkatzeko", azaldu zuen alkateak. Paseatzerakoan joaten den jendeak autoak bide bazterrean nahiko gaizki aparkatuta uzten dituela esan zuen Lazkanok. "Arazo horri konponbide bat emateko modua izango litzateke aparkalekua".

Oposizioak ez zuen proposamenarekin bat egin, eta bere desadostasuna azaldu zuen. Ez dute begi onez ikusten txabolaren jabetza izaera pribatukoa izatera pasatzea eta trukean aparkaleku bat egitea. Erantzuna izan zen arauak ez dutela jasotzen zer-nolako erabilera publikoa eman behar duen tereno horrek. EAJko ordezkariak



Uztaileko udal osoko bilkura, martitzenean. L.Z.L.

KOLUNBARIOEN ORDENANTZA ETA HIRI-ALTZARIEN MANTENU LANAK ERE HIZPIDE IZAN ZIREN

gaia hobeto aztertzeke premia zegoela esan zuten. Proposamenak, ordea, aurrera egin zuen, euren kontrako botoekin.

Kolunbarioen ordenantza

2020ko martxoan eman zion hasierako onarpena indarrean den ordenantzari jardunean den udalbatzak. "Oraintxe puntuak okupatu da lehenengo kolunbarioa, eta, beti gertatzen den bezala, erabilerak zalantza batzuk sortarazten ditu", azaldu zuen Iraitz Lazkanok alkateak.

Horrenbestez, bi dira aho batez onartu diren aldaketa nagusiak: alde batetik, eta nahikoa espazio dagoela ikusita, kolunbario bakoitzeko bi errauts-kutxa sartzeko aukera egongo da aurrerantzean. "Bat sartzeko diseinatu zen, baina ikusi dugu bi ondo sartzen direla. Eskaera egon da, eta uste dugu espazioa

edukita ez daukala inongo gorabeherarik".

Bigarren aldaketak erabilpen epealdiarekin du zerikusia. "Harrespil enpresarekin egiten dugu hilerriko kudeaketa, eta azaldu digute hasiera batean jarrita daukagun hamar urteko emakida oso laburra dela. Proposamena da hogeitaz urterako izatea, eskaera eginez gero beste hamar luzatzeko aukerarekin". Esan bezala, aldaketok aho batez onartu ziren.

Hiri-altzarien mantentze-lanak

Amaieran, hiri-altzarien mantentze-lanen inguruan galdetu zuen oposizioko bozeramaile Aintzane Oiarbidek. "8.000 euroko partida handitzeko eta erabiltzeko eskatu genuen maitatzean", esan zuen. Alkateak erantzun zion partida hori handitu egin zela eta udal brigadako langileak hasita zeudela barandak margotzen, baina hirutik bi konfinatuta daudela eta lanak, oraingoz, etenda daudela. Erantzunak ez zuen Oiarbide asebate. Bankuen egoeraren gainean ere galdetu zuen, eta esan zioten lanak egiteke zeudela. Eskatu zuen lehen-tasuna emateko.

Udaleku gozagarriak, pandemia-neurriekin

Gaur izango dira kirol kanpainako azken ekintzak eta udaleku irekien azken eguna ere gaur da. 800 umek baino gehiagok hartu dute parte kirol ekintzetan eta 400 izan dira udaleku irekietan. Gustura ibili direla aitortu dute erabiltzaileek zein begiraleek

Oihana Elortza OÑATI

"Oso ondo. Inolako arazo handirik barik eta prestatutakoa eginda". Horrelaxe bukatu dituzte Oñatin udaleku irekiak zein kirol kanpaina.

Uretako ekintzen gose

Eguraldia izan dute oztoporik handiena udaleku irekietan, hileko erdiko bi asteetan, batez ere. "Ura, adibidez, asko gustatzen zaie umeei eta aurten ezin izan dugu gura beste ur jolasik egin, eguraldiagatik. Eguraldi onarekin askoz gauza gehiago egin daitezke, kanpoko edozein espaziok aukera ematen du horretarako. Aurten aterpe bila ibili gara egun baten baino gehiagotan, eta hor egiteko moduko jolasak prestatu ditugu. Baina, egia esan, umeak oso ondo portatu dira", dio koordinatzaile lanetan ibili den Iulene Urrutiak. Irteerak egitea ere bazegoen euren plangintzan, eta horiek, aldiz, egin dituzte: "Arropa egokia ekartzeko oharra bidali diegu etxekoei, eta, autobusa erabiliz, Arantzasuko Olabarrietako, Araotzeko edo Zubillagako aterpeetan ere egin dute jolas umeek. Eta oinez ere egin dituzte ibilbideak auzo horietan".

Gaur, egubakoitza, dute azken eguna, eta eurek aukeratutako ekintzak egingo dituzte. Txikien artean ur jolasak egitea izan da proposamen orokorra eta nagusienetan, berriz, *holly* festa, koloretako hautsak eta musika erabilita.

Eskola-kirola eredu

Kirol kanpainako ekintzetan ere ez da etenik edo aldaketarik izan. "Hauek antolatzea, agian, errazagoa da, non egingo diren jakina delako eta iraupen aldetik ere laburragoak direlako eguneko ekintzak. Baina 1.200 ekintza baino gehiago eskaini ditugu eta 800 umetik gora ibili dira. Kopuru altuak dira eta



Hainbat ume eskulanak egiten aurtengo udaleku irekietan. O.E.

dena joan da ondo, bai. Ikasturtean zehar eskola-kirolean egindakoa esperientzia izan da, eta berdin jokatu dugu", azaldu du uda kanpainako koordinatzaile Rosa Lasagabasterrek. Datorren urteko eskola-kirola ere, orain

goz, aurtengoa bezala presatuko dutela eta izango dela aurreikusuten dute.


Kirol kanpainen bi edo lau asteko eskaintzak egon dira, eta gaur bukatuko dituzte. Aurtengo abuztuan ez dago ekintzarik.

Zer moduz ibili zara?



LIDE FERNANDEZ UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALEA

"Lehen aldiz izan naiz begirale Oñatiko udalekuan, eta oso gustura ibili naiz, bai. Umeak oso ondo moldatu dira egoerara eta baita eguraldiagatik egindako plan aldaketetara ere. Gauza asko egin ditugu: killkien maskarak, ur jolasak, orri-aurkitzaileak, 'slime'-a, liburutegira bisita...".



UNAX ALTUBE KIROL KANPAINAKO ERABILTZAILEA

"Laugarren edo bosgarren urtez aukeratu dut tenisa. Lau asteko txandan eman nuen izena eta ondo ibili naiz, gustura. Urtean zehar futbolearen eta bizikletan ibiltzen naiz, adibidez, eta udan tenisa aukeratzen dut. Askok ikasi dut. Usakora ere joaten naiz udan lagunekin".

GORA ETA BEHERA



Paseora irten eta kakarekin topo egin



"Egun eguzkitsu batean paseora irten beharrean *mina-biltzaile* izatera irten garela dirudi. Espero dut jabeek etxe barruan egitea", dio argazkia bidali duen herritarrek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Abuztuan ezohiko ordutegia izango dute udal zerbitzuek

Datorren hilabetearen, abuztuan, ezohiko ordutegia izango dute udal zerbitzuek. Kiroldegia, esaterako, itxita egongo da domeketan, eta gainerako egunetan 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Udal liburutegia, 09:30etik 13:30era aste barruan eta itxita arratsaldeetan. Bezeroen Arreta Zerbitzuaren ordutegiak ere aldatetak izan ditzake.

Datorren hilabetearen itxita egongo da elkartasun biltegia

Abuztuan itxita egongo da Kale Zaharrean dagoen elkartasun biltegia. Eta irailetik aurrera, astelehenetan bakarrik zabalduko dute. Jose Antonio Urteagak kudeatu du biltegi hori urteetan; erreleboa eskatu zuen duela urtebete, eta inor ez da prest aurkeztu. Orain arte lanean ibili diren taldeekin aurretik txanda hartuta lan egingo dute.



NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

Hitzak eta corpusak

Euskaltzaindiak hiztegia eguneratu du sarean (Plazabarri, 2021eko uztailearen 9a). Azken sei hilabeteetan, 592 forma berri jaso ditu (427 sarrera, 165 azpisarrera), eta 975 moldatu (875 sarrera, 100 azpisarrera). Erabilera da irizpidea corpusa berritzeko; maiztasun handiko eta eremu zabaleko hitza izatea. Hala, pandemian sarri esan behar izan ditugun hitzak sartu ditu hiztegian: *deskofinamendu*, *eguneraketa*, *gubernantza*, *larrialdi(-)egoera*, *monitorizazio*, *teleguntza*... Sarrera berrien artean dago oñatiarrontzat ohikoa den *txantxiku* ere, baina *Europar eta Afrikako iparraldean bizi den tamaina txikiko zapoa* adiera du. Miriam Urkia hiztegi arduradunak dio oñatiarrei deituko adierak oso-oso dokumentazio gutxi duela eta, oraingoz, ez dela jaso. (Goiena, 21/07/16).

Ondo legoke sareko Euskaltzaindiaren Hiztegiaren begiratzeko, hitza corpusean dagoen edo nola idatzi behar den ziurtatzeko: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntzabaliabideak/Online>

Txanda elkarteak: poltsak opari, eta diru zozketak

'Tokikozale' izeneko kanpaina jarri du martxan Txanda elkarteak, eta kideek kotoizko poltsa bana ematen diete erosketa herriko dendetan egiten dituztenei. Poltsa horrekin argazkia atera eta sare sozialetara igoz, 50 euroko saria irabaz daiteke



Irizar estankoko Amaia Igartua bezero bati poltsa ematen. O.E.

Oihana Elortza OÑATI

Erosketak herrian egiteko beste sentsibilizazio kanpaina bat jarri du martxan Txanda dendarien elkarteak. Eta horretarako, ohitura hori dutenak izan ditu gogoan, "tokikozaleak" direnak, alegia. Herrian, Oñatin, erosten duten herritarrak, kotoi organikoak poltsa batekin sarituko ditu Txandak, eta 50 euroko sei sari ere banatuko ditu.

rriari bizitza ematen diona", diote Txandako ordezkariak. Hala, *Tokikoa* batean eta *Tokikoa* bestean dioten kartelak jarri dituzte herriko hainbat komertzioetako atarietan.

Herritar guztiei zuzendutako kanpaina da, baina, batez ere, jende gazteari begira egindakoa da, gazteak ere herriko komertzioetan kontsumitzera ohitu daitezten.

Gazteendako, batez ere

Hitz joko bat erabiliz abiatu berri du Txanda elkarteak sentsibilizazio kanpaina: tokikoak egunerokoan duen garrantzia, eta ez Tokiokoak. "Hori dela eta, Oñatiko merkatariok inoiz baino gehiago tokikozalearen figura aldarrikatzen dugu. *Tokikozalea* hitzak Oñatiko dendetan erosten zalea den pertsona deskribatzen du, bizi garen herri honetan erosketak egiteko joera duena, zero kilometroko gaiak kontsumitzen dituen eta he-

Poltsak eta diru sariak

Herriko dendetan erosten dutenek *Tokikozale* jartzen duen kotoi organikoak poltsa bat hartuko dute opari, egunerokoan erabiltzeko. Oporretan argazkia ateraz gero poltsa horrekin eta sare sozialetan zabaldu, *#NiTokikozale* traola erabiliz, Txandako Instagram zozketan parte hartuko du herritarrak eta Oñatiko dendetan erosteko 50 euroko sei sariren zozketan parte hartu zuzenean. Irailean jakinaraziko dituzte irabazleak.

Zazpi plan baino gehiago Oñatiko turismo eskaintzan

Herrigunea zein inguruneak ikusteko bisitak prest daude, eta ostalariak ere gertu oporrei erantzuteko

O.E. OÑATI

Oñatin, gutxienez, egin daitezkeen zazpi plan ari da eskaintzen Udala bisitariendako zein bertakoendako. Eta orain, baita zortzigarren bat ere: Euskal Gozogleak elkarteko 40 bat lagunek egindako txokolatetzko *Gernika* dago ikusgai Santa Anan, abuztuaren 8ra arte.

Beste zazpiak, ohikoagoak, hiru gunetan banatu dituzte: herriko erdigune historikoan, Arrikruz-Oñatiko kobetan eta Arantzazuko eta Aizkorriko parke naturalean. Erdigune his-

torikoan, Turismo Bulegoa eta San Migel errota ikusi ahal izango dira, baita Txokolateixia ere. Arrikruz-Oñatiko kobetan eta natura-gunean, kobak ikustez gain, Gomiztegi baserria eta euskal zaldia ezagutzeko Pottokalekua proposatu dituzte. Eta azkenik, Arantzazu eta Aizkorriko parke naturalean, Arantzazuko santutegia eta parketxea.

Aurten ere bisitari asko familiar etorriko direla da aurreikuspena, eta, hori kontuan hartuta, euren bisita bereziak antolatuko dituzte.



Jabi Agirre, Javier Azpiazu eta Joseba Irizar, Aloña Mendiko futbol sailaren urteko batzar orokorrean. ALOÑA MENDI

Datorrena "hobea" izango den ilusioarekin

Aloña Mendiko futbol sailak 2020/2021 denboraldiko kirol balantzea eta ekonomikoa egin ditu batzar orokorrean. Adierazi dute lehiaketarik gabe ez dela erraza izan entrenamenduen dinamikari eustea, baina datorrenari gogotsu heltzeko gogoz daude

Amaia Txintxurreta OÑATI

Kirol koordinatzaileek eta entrenatzaileek egindako lan eskerga azpimarratu nahi izan ditu zuzendaritzako kide Jabi Agirrek, Aloña Mendiko futbol sailaren 2020/2021 denboraldiko batzar orokorrean. Azaldu du lehiaketarik gabe ez dela erraza izan entrenamenduen dinamikari eustea, baina pandemiaren okertzeak liga guztien etena ekarri zuen.

Aipamen berezia egin diete Maren Arabaolazari eta Ane Isasisasmendiri, datorren denboraldian Realaren senior mailako talde berrian jokatu baitute, Ohorezko Mailan.

Bestetik, Joseba Irizar diruzainak balantze ekonomikoa egin du, eta 6.388 euroko irabaziekin amaitu dute denboraldia. Diru-sarrerak 76.160 euro izan dira eta gastuak, 69.772 euro.

Diruzainak azaldu du 2021/2022 denboraldian bazkideen kuotetan beste "murrizketatxo" bat egingo dutela; bazkide arruntek

30 euro ordainduko dituzte eta bazkide babesleek, 50 euro. "Jakitun gara denboraldi honetan bazkideek ez dutela partidurik ikusteko aukerarik izan, baina, hala ere, elkartearen sostengua bazkideak dira eta ahalegin hori eskatu beharrean gaude", azaldu du Agirrek.

Zuzendaritzako batzordeko kideek duten kezka bat ere azaldu dute batzarrean. Izan ere, azken hilabete hauetan "ahalegin berezia, azken urteetako handiena" egin behar izan dute euren elkarteko talde guztietarako entrenatzaileak eta arduradunak lortzeko: "Fase horretan gogoeta egin dugu eta ikusi dugu gure elkartean lanean arituko diren entrenatzaileek konpen-

**"BAZKIDEEK EZIN
IZAN DUTE
PARTIDURIK IKUSI,
BAINA ELKARTEAREN
SOSTENGUA DIRA"**

tsazio ekonomikoa jasotzea me-rezi dutela denboraldian zehar egiten duten lan eskergatik, eta horrek eragina izango du elkarteko jokalarien gurasoek ordainduko dituzten kuotetan. Oraindik kopuru zehatza ezin dugu zehaztu, azterketa ekonomikoa zehatza egiten ari baikara, baina horren berri jokalarien gurasoei emango zaie 2021/2022 denboraldiaren hasieran".

Denboraldi berriari begira

Abuztuaren 15ean hasiko dira Erregional Preferente Mailakoak entrenatzen, orain arte bezala, Endika Ruizen ardurapean, eta lagunarteko partidu batzuk lotzen dabilzala aurreratu dute. Talde kopuru berarekin jarraituko dute, hamalauarekin. Eta denboraldia "normal" hasia aurreikusten dute, baina "momentuko egoerak" baldintzatuko du. Ondo bidean, irailaren 12an hasiko dute denboraldi berria Ohorezko Erregional Mailakoek eta gazteek.



Padel pista Soraluze Hotelaren atzeko aldean dago, golf zelaiaren ondoan. A.T.

Erabiltzeko prest dago herriko estreinako padel pista

Aurrez txanda hartzea derrigorrezkoa da eta ordubetez edota ordu eta erdiz alokatzeko aukera eskaintzen du

A.T. OÑATI

Ekainean jarri zuten martxan herriko lehenengo padel pista eta dagoeneko hainbat erabiltzailek estreinatu dute gune berria. Uribarri auzoko Soraluze Hotelaren atzeko aldean dago, golf zelaiaren ondoan, eta Irelorek kudeatzen du bertako erabilera. Taldeko Jabi Balzategik adierazi du "jende asko" dabilela, herrian ez baitago hori praktikatzeko beste lekurik.

Txanda hartzea

Padel pistak erabiltzeko, derrigorrezkoa da aurrez erreserba egitea. 09:00etatik 16:00etara bitartean lau euro ordaindu behar dira ordu bakoitzagatik eta 17:00etatik 21:00etara bitartean erreserbatuz gero, 6 euro balio du orduak. Erreserbak ordubetekoak edota ordu eta erdikoak egin ahal izango dira aurreratu du Balzategik.

Eta txanda telefono zenbaki honetara deituta hartu behar da: 665 73 94 77. "Jende asko dabil, eta padel pista berri honen ondoan daukagun golf zelaira ere erakarri du jendea; beraz, oso pozik gaude momentuz izaten ari den harrerarekin", azaldu du Balzategik.

Gaur egun, padel pistan jokatzeako palak eta pilotak utzi egiten ditu elkartek, baina aurrerago horiek alokatzeagatik ordaindu egin beharko dela gogorarazi du Balzategik.

Kluba, erregistratuta

Irelore Debalur izena izango du padeleko klubak. Izan ere, Balzategik esan du dagoeneko erregistratu dutela izena eta sortu dutela padel kluba, "baina oraindik itxaron egin beharko da bertako kide egiteko", gaineratu du. Esan du aurrerago emango dutela horren berri.

Kirol arloko udal dirulaguntzak eska daitezke dagoeneko

Udaleko Kirol Departamentuak bi dirulaguntza-lerro aurkeztu ditu: herriko kirol elkartek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako 3.800 euroko partida izango du, batetik, eta ohikoak ez diren kirol jardueretarako beste 15.000 euro bideratuko ditu, bestetik.

Kirola sustatu edo ohikoak ez diren kirol jarduerak antolatze-

ko udal dirulaguntza horiek klub edo kirol elkarte nahiz entitate juridikorik ez duten talde eta partikularrek eska ditzakete, baldin eta egoitza Oñatin badute edota bailaran izanik, gutxienez, kirolarien %15 Oñatikoak badira edo Oñatin errolatuta badaude.

Herriko elkartek abuztuaren 16ra bitartean aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak, eta dokumentazio osagarriarekin batera udaletxean, HAZ bulegoan, aurkeztu beharko dituzte.

"Olinpiar Jokoetan arlo psikologikoak du pisu gehien"

RAFA AXPE TIRATZAILE OLINPIKOA

Aramaioarrak Seulgo (1988) eta Bartzelonako (1992) Jokoetan hartu zuen esku. Azken hitzordu horretatik haserre itzuli zen, ez zelako bere mailan ibili

Xabier Urzelai ARRASATE

Nahiz eta txapelketa batzuk hasi dituzten, ofizialki gaur, egubakoitza, emango diete hasiera 2020ko Olinpiar Jokoei. Tartean, 30 euskal kirolari izango dira, baina, 2016an Rion gertatu moduan, oraingoan ere ez da debagoiendarrrik egongo –2012an Mainer Undak brontzea irabazi zuen–. Kirol dema hastear den honetan, Rafa Axpek (Aramaio, 1954) ondo daki kirolarietako nerbioak dantzari izango dituztela. Esperientziarik egiten du berba, birritan izan zen-eta kirolari olinpiko.

Zelan iritsi zinen tiratzaile olinpiko izatera?

Alde batetik, gaztetan ehizan egitea gustatzen zitzaidan asko. Eta beste aldetik, tiro olinpikoa egiteko orduan sekulako zale-

tasuna zegoen. Sasoi hartan herri guztietan egoten ziren mini-fosoak –tiroa praktikatzeko guneak– eta txapelketak ere han eta hemen antolatzen zizuten. Gogoan dut Azkoitira joaten ginela asko, han bazen tiro-eremu bat. Euskadiko Kopa, Euskadiko Txapelketa eta halakoak jokatzen genituen han, baita Ulian ere, Donostian. Bada, gogoan dut hilabete gutxian sekulako aurrerapausoa eman nuela, nik espero barik txapelketak irabazten hasi nintzen. Euskadiko Kopan, esaterako, 100 tiroetan ez nuen kalerik egin, 100etik 100 jo nituen, eta denboraldi amaieran Azkoitian egin zuten Espainiako Kopako proba ere irabazi egin nuen. Horri esker hautatzailearen deia jaso nuen eta Espainiako

seleksioan sartu nintzen lehenengoz [1986].

Seleksioan jarduteak ez zizun presioa handitu, orduan etorri ziren emaitza hobekak.

Errege Kopa irabazi nuen jarraian, Espainiako Kopan 200eko tiradan 199tan asmatu nuen... Nik ere ez nuen sinisten.

Eta nazioarteko probak etorri ziren jarraian.

Munduko kopak, munduko txapelketak –Australian taldeka bigarren egin zuten 1987an–, Europakoak... 1986an aukeratu ninduten seleksiorako eta bi urte nituen Seulgo Olinpiar Jokoak prestatzeko. Bada, seleksio hiru kideok lortu genuen Seulgo Jokoetarako txartela. Han konturatu nintzen ze zaila den halako torneo batean onena ematea, alde guztietatik azaltzen



Rafa Axpe, aste barruan, Bedoñan, Seulen hartutako bisera eta guzti. X.URZELAI

da presioa. Oso gutxigatik ez nintzen finalerako sailkatu, eta hamaikagarren amaitu nuen.

Seulen Bartzelonan baino emaitza hobea lortu zenuen, baina 'Bartzelona 92' oso berezia izan zen.

Olinpiar Joko haiek sekulakoak izan ziren, Espainiak dirutza gastatu zuen eta emaitzak ere halakoak izan ziren, domina mordoa [22] eskuratu zituen Espainiak. Gogoan dut olinpiar hirian egoten zen giro ederra, kirolari mordoa batzen ginen han, baina, zoritxarrez, gu lotara kanpoaldean zegoen hotel batera bideratu gintuzten. Han ez zegoen giro berbera, baina lasaiago egongo ginela esan ziguten [Barre]. Pena izan zen txapelketan ez nintzela nire mailan egon, inoiz baino hobeto nengoelako, txurroak bezala

apurtzen nituen platerak. Baina txapelketa txarra egin nuen; batek daki, tentsioa, presioa...

Ez nintzen nire mailan ibili [33. postuan sailkatu zen]. Horregatik, ondo dakit Olinpiar Jokoei kirolariaren arlo psikologikoak ze garrantzi duen, hori da egunotan gehien zaindu beharoko dutena, gainontzeko lanak aurretik eginda dituztelako. Gu ibiltzen ginen arnasketa ariketak eta halakoak egiten, ez duzu imajinatzen lasai egoteko ze garrantzitsua den arnasketa teknika ondo dominatzea, baina... Egun haietan ez zen nahikoa izan, presioak gainditu egin ninduen.

Bada, pandemia tartean dagoen honetan, koronabirus kontuek ez dute lagunduko kirolarien lasaitasunean...

Azken olinpikoa, Mainer Unda

Mainer Unda borrokalariaren (Oleta, 1977) ametsa Olinpiar Jokoetan domina eskuratzea zen. 2008an Pekingo Olinpiar Jokoetan egin zuen debuta eta orduan diploma eskuratu zuen. Saria, baina, 2012an jaso zuen, Londresen hirugarren sailkatu zen eta. Azkenik, 2016an Rio de Janeiro (2016) egoteko ahalegina egin zuen, baina ez zen sailkatu.



Mainer Unda, Londresen, brontzea irabazi berrian. GOIENA

Debagoiendar olinpiko gehiago

- **Jesus Fernandez de Arroiabe 'Matxain' (1934)** Marulandakoak Moskuko Olinpiar Jokoetan (1980) plater tiroan zilarra irabazi zuen Espainiako seleksioarekin, taldeka. Bakarkakoan hirugarren izan zen.
- **Santi Idigoras (1953)** Realeko futbol jokalarari oñatiarrak Montrealgo (1976) Olinpiar Jokoetan hiru partidu jokatu eta gol bat sartu zuen.
- **Agustin Arantzabal (1973)** Realeko jokalarari bergararrak diploma eskuratu zuen Atlantako Olinpiar Jokoetan (1996). 23 urtez azpiko seleksioa final-laurdenetarako sailkatu zen.
- **Mainer Unda (1977)** Borrokalari oletarrak brontzezko domina irabazi zuen Londresen (2012).

Uf, beldurrak jota egongo dira, urte askotako lana pikutara joan daiteke positibo batengatik edo gertuko kontaktua zarelako. Ez dut pentsatu ere egin nahi zelan egongo den bat baino gehiago, eta kirolarien artean azalduko dira positibo kasuak, seguru. Eta, horrekin batera, entzun dudana oso neurri zorrotzak jarri dituzte, kirolariek ezin dute ezer egin atsedean egunetan, ezin dira olinpiar hiritik irten, jendearekin hartu-emana izan... Horrek ere ez die lagunduko, eta baldintza horietan han barruan egotea...

Bartzelonako Jokoetan zure mailan ibili ez izanak eragina izan zuen zuzan?

Motibazioan behera egin nuen; izan ere, selekzioarekin ibiltzeak desgaste handia zuen. Pentsa, urtean hiru hilabete egiten genituen txapelketaz txapelketa, eta hori gero lanean errekupe-ratu egin behar zen! Selektzioa ere segituan utzi nuen, hautatzailea aldatu zuten eta haren semeari ere lekua egin behar zioten [Barre]. Denbora batera Andorran antolatzen zituzten txapelketei esker errekupe-ratu

nuen ostera ere motibazioa, sari ederrak ekarri izan ditut handik. **Zeure alaba Maialenen ametsa birritan bizi izan duzu zuk. Hura ere gogor dabil lanean egunen batean halako esperientzia bat bizi ahal izateko [Rafaren alaba Maialen Axpe Espainiako txapeldun izan berri da pertika-saltoan].**

Maialenek amets hori betetzeko egiten dabilen lanak ez dauka kolorerik bere egunean guk egin genuenarekin. Maialenen dedikazioa %100ekoa da, egunero-egunero entrenatzen da, gorputza

zaindu, landu... Guk ordu mor-doa eskaintzen genizkion tiro olinpikoari, baina ez da gauza bera. Pena da orkatilako lesioarekin izan duen zorte txarra, pertika-saltoan oso zaila da Olinpiar Jokoetarako sailkatzea, gutxieneko marka oso zorrotza da [4,70eko marka eskatu dute, eta Axpek 4,50 dauka], baina lesioak aukera guztiak ezerezean utzi zizkion. Nire ustez, bizimodu oso gogorra da, oso.

Diozu alabak zuk baino lan handiagoa egin duela, hortaz.

Ez izan inongo zalantzarik.

Aita eta alaba, biak Olinpiar Jokotan egotea ez litzateke marka txarra izango.

[Barre] Pentsa... egin izan dugu halako kontuez berba, munduaren beste puntara joango nintzateke alaba Olinpiar Joko batzuetan parte hartzen ikustearren.

Egun tiro olinpikoan dabilzanek garai batekoek baino lan handiagoa egiten dute?

Asko aldatu da dena, eta profesionalizatu egin dira gauza asko.

Espainian bada emakumezko tiratzaile bat [Fatima Galvez] oso ona dena, eta badakit datozen hamar urteetarako izugarriko kontratu ona sinatu dela babesleekin. Guk halako bat harrapatu izan bagenu! [Barre] Bestalde, sasoi hartan bagenuen gure plangintza, baina ez ginen gaur egungoak beste entrenatzen. Eta ez entrenatzerik ez genuelako nahi, gauzak beste modu batera egiten genituelako baizik. Ez ginen horrenbeste *matxakatz*en. Nik urtean 15.000 tiro egiten nituen gehienez eta badakit gaur egungoek 40.000 tiro botatzen dituztela urtean.

Alde handia da hori.

Sekulakoa, 40.000 tiro egiteko denbora behar da gero! Eta horrek beste gauza batzuk ere ekarri ditu. Hau da, guk sena erabiltzen genuen gehiago, punteria, erreflexu onak. Gaur egun, askok automatizatuta dituzte keinu guztiak. Platera hiru norabidetan irten daiteke, eta euren hiru puntu horien erreferentzialtasuna oso garbi daukate; alde horretatik, oso automatikak dira. Baina haize egunetan larri ibiltzen dira [Barre].

Joseba Larrinaga atleta gogoan

Atlantako (1996) Paralinpiar Jokoetatik zilarrezko dominarekin itzuli zen Joseba Larrinaga aretxabaletarra. Maratoian 2.43ko marka egin zuen, nahiz eta marka hobea zuen (2.35). Lau urtera, Sidneyn (2000) bosgarren izan zen. Zorigaitzoko istripu batean hil zen (2013), Aramaioko saihebidetan bizikletan zebilenean. 44 urte zituen.



Joseba Larrinaga Aretxabaletako orduko kirol etxearen parean. GOIENA

DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradespersion formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arki estudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>
--	---

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Datozen egunetarako antzerki proposamenak

Gag Street Boys, Trapu Zaharra, Barsanti eta Malas Compañías antzerki taldeen emanaldiak izango dira Debagoiengan, uztaileko kultura eskaintza borobiltzeko; abuztuan, berriz, Bergaran izango dira Trakamatraka eta Zirkugintza taldeak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Aretoetako programazioari lekukoa hartuta, kale-antzerkiak dira nagusi uda sasoiari; Debagoiengan ere askotariko aukerak izan dira antzerkiarekin gozatzeko, eta asteburuan ere gehiago izango dira, esaterako, Arrasaten eta Bergaran.

Emanaldi guztietarako sarreak doan dira, baina edukiera mugatua dute; Arrasateko emanaldietarako *Arrasate.eus* atarian eskura daitezke gonbidapenak eta Bergarako emanaldirako, berriz, ez dituzte aurrez banatuko, ikusleak heldu ahala sartuko dira eserlekuak bete arte.

Antzezlan "ganberroa"

Gasteizko Gag Street Boys bikoteak *Yes we art* publiko guztientzako hitz bako lana eskainiko du gaur, egubakoitza, Seber Altube plazan, 19:00etan hasita. "Aspaldiko lagunak eta komikoak gara Inigo Salinero eta biak, eta elkarrekin egiten dugun estreinako lana da hori. Gure helburu nagusia ikusleek ondo pasatzea da; hortaz, gaur Arrasaten eskainiko dugun lana *ganberroa* hutsa da, baina, era berean, kutsu soziala ere eman diogu istorioari, batzuei komeni ez zaien kontuak edo gaiak adierazteagatik kulturagileek sufritzen



Seber Altube plazan gaur emanaldia egingo duen Gag Street Boys bikotea. D.G.

dugun zentsurari eta bestelako zigorrei buruz hausnartzera bultzatzeko asmoz. Antzezlan *panfletarioa* baino gehiago, komikoa izatea nahi genuen", azaldu du David Gutierrezek.

